

**Abbé Prévost**

# **Manon Lescaut**

**euskaratzailea: Anton Narbaiza**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Anton Narbaiza.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1990  
Jatorrizkoaren data: 1731

Abbé Prevost euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=194>

# PRÉVOST IDAZLEA

Abbé Prévost bizitza benturazale eta trumoi-tsu baten jabe izan genuen. Fraile beneditar, justiziagandik iheslari, Britainia Handian eta Herrialde Beheretan exilioa ezagutu ondoren, berriro ere Frantzian ikusten dugu. Baina osterera ere, argitalpen eskandalagarri batek hankajoka jarriko du.

Asko idatzi zuen arren, bere *Histoire du Chevalier Des Grieux et de Manon Lescaut* eleberriak—bere oroitza pen liburua ren barnean argitaratua— ohorea eta ezagutza eskaini izan dio. Baina horren izenburu luzea *Manon Lescaut* emakumearen izenak irentsi bide du. Areago oraindik, horrez gero *Manon* izena bizi arineko emakumea adieraztera pasatu baita. Manon baita eleberriaren ardatz Des Grieux zaldun zorigaiztokoak itzal urria egiten diolarik. Manon baita edozer eta edonor irentsiko duen zurrumbilo goxo bezain miragarri.

Edozeri ekiteko prest duzu Des Grieux zalduna, iruzur eta tranpa, bahiketa eta erailketa;

espetxetik aterako du, maitatzaile engainatua izango da, eta hala ere zigorturik neska Ameriketarantz daramatelarik, gertu izango da hura bahitu nahi aurrenik, eta arrakasta lortzen ez duelarik bera ere desterruan bere maiteari jarraitzeko.

Baina oker genbiltzake Manonengan gure irainak egotziko bagenitu. Izan ere ez ote neska hura etorkizunean nagusituko zen izaera baten aitzindari. Bere maiteak salatzen duelarik «adarrak» nabarmenki jarri dizkiolarik, berak inportantea ez dela hori, esaten baitio, zeren bihotza ez baitio beste inori salduko, hura berea izango baitu beti.

Manon bada, izaki erakargarri bezain bihurria duzu, bere gorabeherak ezagutu ahala, zinez maitagarri bilakatzen zaizuna.

Oihartzun handia izan zuen lan honek operako bertsio bi ezagutu zituen, bata Masseneti-zor zaio, bestea Puccini-ri.

*Donna non vidi mai  
simile a questa...*

*Manon Lescaut mi chiamo...*



**MANON LESCAUT**

# EGILEAREN OHARRA

Griex-ko zaldun zorigaiztoaren benturak nire Oroitzapenetan barnera nitzakeen arren, iruditu izan zait ezinbesteko lotura ez zutelarik irakurleari atseginagoa gertatuko zitzaiola hemen banaturik ikustea. Honen luzea den kontaerak nire nirea dudan historiaren haria eten egingen baitzukeen. Obra honetan zehar idazle zehatza naizenik frogatu asmorik ez badut ere, ez dezaket ahantz narrazio bat edonolako delarik ere, astun eta ilun bilaka dezakeen edozein zertzeladaz aske izan behar duela. Horixe duzu hain zuzen Horatio-ren agindua:

*Ut jam nunc dicat jam nunc debentia dici  
Pleraque differat ac praesens in tempus omittat.*

Baina ez dugu horren itzal handiaren bila hasi behar, berez egia guztiz arrunta dena frogatzeko, zeren zentzuna baita honelako erregelabaten iturburua. Irakurlegoak nire biziaren historian ezer atsegin eta interesgarririk aurkitu

badu, zinez agintzen diot gehigarri hau plazerez hartuko duela. Griex-ko zaldunaren portaeran pasio-oldarren adibide izugarria aurkituko du. Zoriona saihestu eta adur gaiztoenaren sarean berak horrela nahirik harrapatua izatera amiltzen den itsuturiko gizon gazte bat itxuratuko dut. Tasunik ederrenen jabe izanik ere, bizitza ilun eta buhamea hobesten dituen ongizate eta naturaren abantailak baino. Eta bere zoritxarrak aurreikusi arren, haietatik itzur egin nahi ez duena.

Zoritxarrok sentitu ez ezik, eta hilduratu egiten badute ere, etengabe begien aurrean jartzen dizkioten sendagaiak errefusatzeko dituen behin eta berriro jakinik bere gaitzen sendabide izanen direla. Aiurri nahasia bestalde, bertute eta aztura makurren oreka, sentimendu on eta ekintza gaiztoen etengabeko kontraste.

Horra hor nire irakurleari aurkezten diodan ikusgunea. Gizaki jatorrek ez diote honelako lan bati alferrikako jolas iritziko.

Irakurketa atseginak sor dezakeen gozame-naz landa, gertakari gutxi izanen da historia honen arrastoan ohitura zuzenen irakaspenera-



ko balio izanen ez duenik. Eta jendeari dibertitzen den neurrian zerbait onik irakasten badiogu, mesede bazterrezina egiten diogu.

Harritu ohi gara maiz, moralaren aginduez gogarte egiterakoan, ikusten ditugularik estimatuak eta gaitzetsiak direla batera, geure buruari giza bihotzaren bitxitasun honen zergatiaz galdetzen diogularik, alegia nola ontasunaren eta betetasunaren ideiak goraipatu ohi dituen gero ostera etengabe eguneroko bizitzan beraiengandik urrutiratzen delarik. Esaterako jakinduria eta heziera maila nolabaiteko pertsonak beren solasaldi edo eta beren amets bakartien mintzagairik ohizkoena zein den aztertu nahi balute ohar-tuko lirateke ia beti ere moralezko arduren gurplean dabiltzala jira eta bira. Maila jakin batetako jendearentzat bizi-unerik eztiadak bakarrik edo lagun batekin igaro ohi dituztenak dira: bertutearen bidez eta beraietatik urruntzen gaituzten gure ahuldadeez, berauentzako sendagaiak aurkitu nahian aritu ohi direlarik.

Horatio-k eta Boileau-k ekinbide honi bizi zorientsuaren irudia osatzen duen atalik ederretakotzat irizten diote. Baina nola arraio eror

daiteke hain erraz espekulazio garai horietatik, eta berehalakoan gizakiaren mailarik arruntean aurki?

Oker nenbilke orain agertaraziko dudan arrazoiak gure ideia eta portaeraren arteko kontraesana argi esplikatuko ez balu.

Hots, adierazi nahi da moralaren agindu edozein, orokor eta zabala izanik, oso zail bilakatzen dela beraren gauzatze zehatza egitea, ohitura eta ekintzen xehetasunaren arabera. Eman dezagun etsenplu bat. Jatorri argiko arimek badakite jakin ezintasuna eta gizatasuna bertute maitagarriak direna, eta badute halaber beraiek praktikatzeko joerarik. Baina beroiek mamitzeko garaian zer? Burutugabe gelditu ohi dira maiz. Unerik egokiena aukeratu ote dute?

Ba ote daki inork zein izan behar duen beraien neurria? Bertute ariketa horren objektuak ez al gaitu tronpatzen? Honelako hamaika eta hamaika zailtasunek geldiarazten gaituzte. Izan ere on-egile eta liberala izanik tronpatua izateko beldur zara, ahultzat jo zaitzakete osteraxamur edo sentiberegia ager bazaitez, hitz batez esateko era aski ilun batez gizatasun eta ez-tita-

sunaren oinarri orokorren esparruan barneraturik dauden betebeharrak gainditu edo beteezina-  
ren kezka azaltzen zaizu. Zalantza honen eragin-  
pean esperientziak edo adibideak baino ez deza-  
ke era arrazoitu batez gure bihotzaren aiherra  
finkarazi. Baina esperientzia ez zaio inondik ere  
edonori askatasun osoz hartzea gomendatzen,  
aitzitik patuaren eraginez norbera non kokaturik  
aurkitu ohi den egoera desberdinen arabera  
joango da. Horregatik bada etsenplua baino ez  
dugu hainbat pertsonak bertutearen jardunean  
har dezaketen arau bakartzat. Horregatik bada  
hain zuzen, honelako irakurleentzat erabilgarri  
oso etor litezke honen moduko obrak, beti ere  
ohore eta zentzunezko pertsonak idatziak izan  
badira. Hemen eskaintzen den edozein gertakari  
argi-errainu bat da, esperientzia ordezkatzeko  
duen irakasbidea halaber. Berton, nork bere zer-  
zeladei egokitzea baino ez du falta. Guztia  
moralezko tratatua da, ariketa gisan era atsegi-  
nez laburbildua.

Irakurle zuhurren bat agian nire adin honetan  
maite eta patuari buruzko benturak izkiriatzeari  
berrekin diodalako ofenditurik dagoke; baina

egin berri dudan gogoeta zuzena bada, berorrek justifikatzen nau, aitzitik okerra bada, nire akatsak izanen ditut aitzaki.

# LEHEN ATALA

Nire irakurlea gibel erazi beharrean nago nire bizitzako garai hartara zeinetan Grioux-ko zalduna lehen aldiz aurkitu bainuen. Nire Espainiarentzako irteera baino seiren bat hilabete lehenago izanen zen. Nire bakardadetik oso bakan atarizaten banintzen ere, alabarenganako nuen xerak bidaia ttiki desberdinetan lotzen ninduen noizbehinka, bidaiok ahal bezain labur burutzen nituelarik.

Banentorren behin Rouen-dik —nora bere erreguari jarraiki jo bainuen— nire amaren aldeko aitonarengandiko lur zenbaiten oinordekotza Normandiako Parlamentuan kudeatzetik, aipatu lurren eskubideak alaba horri utziak nizkiolarik. Gauza da, nire bideari Evreux aldetik berrekin niolarik, han bertan lehenengo gauean atsedean hartu ondoren, biharamunean Pacy-ra —zeina bestetik bospasei legoako bidean baitago— heldua nintzela jatordurako. Hiri barnean sartua nintzelarik, bizilagun guztiak asaldaturik ikusteak harritu egin ninduen.

Beren etxeetarik jalgi eta mukuruka taberna eskas baten atarira lasterka zihoazen, beronen aurrean bi orga zeudelarik. Zaldiek, oraindik estekaturik eta beroak nekeak lar akiturik, ibilgailu bi haiek iritsi berri zirela nabarmentzen zuten. Geratu egin nintzen une batez azantza hura nondik zetorren gaztigatua izateko. Baina argitasun gutxi atera nuen jendaila ikusgura harengandik, ez baitzien nire galderei inolako jaramonik egiten, beti ere tabernarantz aitzinatzten ari baitziren, elkarri bultzaka nahasmendu handiz. Azkenik atarira azaldu zen arkulari bati —soin-uhala aldean, mosketoia bizkarrean— keinu egin nion hurbil zekidan eta harrabots haren zergatiaz gaztiga ziezadan. —Ez da ezer jauna —erran zidan—; hamabi ohaide daramatzat nire lagunekin batera Havre de Grâce-raino, handik Ameriketarantz ontzira eraziko ditugularik. Bada beraien artean politik. Horrek biztu du nonbait nekazari on hauen ikusberatasuna.

Argibide hark aseko nindukeen, baldin eta tabernatik kanporantz —eskuak bilduz eta orroa eginez— zetorren emakume xahar batek nire arreta bereganatu ez balu, hura ikaragarria ez

ezik, urrikalmendua eta izua sortzen zuen gauza zela aldarrikatuz.

— Zer da bada? —galdetu nion—.

— Ai Jauna! Sar zaitez —erantzun zidan— eta egiazta ea ikuskizun hori ez ote den bihotza urratzeko adinakoa.

Jakin-minak zalditik jaitsi erazi ninduen, berau nire zamaltzainaren esku utzi nuelarik. Nekez sartu nintzen, jendetza hura alboratuz. Eta horrela gertatu zen. Aski hunkigarri zen gauza ikusi bainuen. Gorputzaren erditik seinaka kateaturik zeuden hamabi neska haien artean, bazen bat zeinen taxua eta irudia bere hango egoerarekin uztartzen ez zena, hain gutxi non beste edozein unetan goi mailako pertsonatzat joko bainukeen. Haren tristurak, haren jantzi eta erropen zikinkeriak hain zuten gutxi ezaintzen non bera ikusteak begirunea eta gupida sortarazi baitzidan. Neska hura hala ere beste alderantz begiratzen saiatzen zen kateak uzten zion neurrian, bere aurpegia ikusleen begietatik saihesteko. Apaltasun sentimendu batek astindua zirudien bere burua ezkutatzeko egiten zuen ahaleginak. Hain zuen berezkoa! Talde zorigaizto

haren jagole ziren sei zaintzaileak gelan zeude-  
nez gero, haien burua bereizi nuen, neska lirain  
haren nondik norakoaz argitasun zenbait eska-  
tuz. Baina arras orokorrak zirenak baino ez zizki-  
dan eman ahal izan. —Ospitaletik atera dugu —  
esan zidan—, polizia-nagusiaren ordenaren  
pean. Ez dirudi ekintza onak burutzeagatik atxi-  
lotua izan zenik han. Bidean zenbait aldiz galde-  
katu dut; baina tematia da, ez du ezer erantzun  
nahi. Besteak baino hobeto tratatzeko ordenarik  
jaso ez badut ere, badaramat hala ere atxiki-  
mendu poxi bat berarentzat, gainontzekoak  
baino apur bat hobea dela deritzodalako. Hona  
hemen —erantsi zuen arkulariak—, haren atse-  
kabearen zergatiaz nik baino hobeto informatu-  
ko zintuzkeen gizon gazte bat. Paristik jarraitu  
izan zaio, negarrari tarte batez ere eutsi ezinik.  
Beraren neba edo maitale behar du izan. Gizon  
gazte hura eserita zegoen gela zokora eramán  
nuen burua. Amets sakon batek bildua irudi  
zuen. Ez dut inoiz oinazearen irudi biziagorik  
ikus; baina lehen begi kolpez nabarmendu ohi  
da nor den gizon taxuzko eta hezia. Hurbildu  
egin nintzaion. Zutitu egin zen. Haren begietan,



aurpegian, mugimendu orotan hain nuen molde fin eta prestua aurkitu, ezen barruak horrela agindurik beraren oneriztera heldu nintzela.

— Ez dizut eragozpenik sortu nahi —esan nion—, beraren ondoan eseririk. Hor, egoera horren hitsean ikusten dudan pertsona eder hori ezagutzeko dudan jakin-mina ase nahi al zenuke? Oneski ihardetsi zidan. Ez ziezadakeela berak alegia nor zen emakume hura argitu aurrenik bere burua ezagutzera eman gabe. Arrazoi handiak zituela halaber, bera nor zen inori jakin erazi gabe jarraitzeko.

— Hala ere, erran diezazuket miserable horiek ongi baino hobeto dakitela —jarraitu zuen arkulariei so eginez—, honen pasio biziz maite dudala, non berak gizonik zoritxarrekoena egiten bainau. Edozertaz baliatu izan naiz Parisen, askatasuna lortu ahal zezan. Eskaerak, maltzurkeria eta bortxa ezertako izan ditut. Berari jarraitzea erabaki dut bada, munduaren azken muturrera joko balu ere. Berarekin ontziratuko naiz Ameriketarantz, baina gizatasun izpirik ere ez dute agertzen alu koldar horiek —gehitu zuen arkulariez ari zela—, ez bainaute hari urreratzen

ere uzten. Nire asmoa Paristik zenbat legoatara haiei erasotzea zen zuzen-zuzen. Dirutza handi baten truke bere laguntza agindu zidaten lau gizonen elkarlana lortua nuen. Baina traidore halakoak! Bakarrik utzi naute abandonaturik nire diruarekin ihesi eginez. Indarraz irabaztearen ezintasunak armak ezkutatzera eraman nau. Hari jarraitzen utz nazatela sikiera proposatu diet arkulariei ordainsaria eskaintzen nielarik. Irabazpidearen gutziak amore ematera bultzatu ditu. Ordaina nahi izan dute nire maitearekin hitz egiteko askatasuna eman izan didaten bakoitzean. Diru-zorroa aldi laburrean argaldu zait, eta orain sosik gabe nagoelarik, urrats bat berarengana aurreratzen naizenean atzera bidaltzen naute bortxaz beren ankerkeria erakutsiz. Duela urte batez ere beren mehatxuei jaramon egin gabe harengana urreratu naizenean, nire aurrean fusilen muturra jartzeko ozartasuna izan dute. Beroien zekenkeria ase eta bidea oinez jarraitzeko aukera izan nahi badut beharturik naukate gaur arte zelan eraman izan nauen zaldi modukoa hemen saltzera.

Kontaeran aski lasaiturik ari bazen ere, hura amaitzean zenbait malko isuri zitzaizkion. Abentura hura guztiz harrigarria eta hunkigarria iruditu zitzaidan.

— Ez zaitut bultzatu gura —esan nion— zure arazoan sekretuak azalera diezazkidazun; baina zer baitetan baliagarri izan bazaitzaket, pozarren izanen nauzu zure zerbitzuan.

— Tamalez —erantzun zidan—, ez dut itxaropenezko argi mendreenik ere ikusten. Epai nazala nire patuaren ezinbestekoak! Ameriketarantz joko dut. Han behintzat maite dudanarekin aske izanen naiz. Havre de Grâce-ra laguntzaren bat bidaliko didan lagun bati idatzi diot. Bertaraino iristen baino ez naiz ibiliko larri, koitadu honi bidean hats hartzen aginduko diona erdiesten; —gehitu zuen bere maitaleari tristeki begira.

— Neuk amaituko dut zure estualdia —esan nion—. Hartu diru hau. Eta otoi, onar ezazu. Damu dut beste era batez ezin laguntzeagatik. Urrezko lau luis eskura nizkion zaintzaileak ohar-tzeke, zeren haiek diru-kopuru hartaz jabetzen baziren, bere laguntza garestiago salduko ziotela pentsatzen bainuen. Beraiekin tratu egiten

hastea ere etorri zitzaidan gogora, gizon gaztea bere maitearekin nahi zuenean mintzo zedin Havre-rako bidean. Keinu egin nion haien buruzagiari hurbil zekidan, eta proposamena luzatu nion. Bere lotsagabekeria nabari bazuen ere, ahalketurik iruditu zitzaidan.

— Arazoa ez da jauna —ihardetsi zidan halako itxura deserosoa erakusten zuela—, guk geuk neska horrekin hitz egiten debekatzen diogula, mutil horrek berorren ondoan egon nahi luke beti, gu egoera desegokian jartzen gaituelarik. Bidezko bekio bada, guzti horrengatik ordaintzea.

— Ikus dezagun orduan —esan nion nire alde-tik, zer litzatekeen premiazko horrelakorik senti ez dezazuen.

Bi luis eskatzeko ausardia zuen. Berehala eman nizkion.

— Baina kontu izan —adierazi nion—, ez dezazuela inolako jukutriarik egin! Gizon gazte honi nire helbidea utziko baitiot, berak hemengo berri helaraz diezadan.

Arretaz ibil zaitetze beraz, zuek zigortzeko ahalmena izan baitezaket. Arazoak urrezko sei

luis eraman zidan. Gizakume hark eskaini zidan eskerron atsegina, hura ezpal oneko egurra zela konbentzitu ninduten azkenik, bai eta nire liberaltasuna merezi zuela. Alde egin aurretik bere amoranteari zenbait hitz luzatu zion. Apaltasun hain ezti eta zoragarriz erantzun zidan, non handik irtenaz gogoeta edozenbat egin bainuen emakumeen aiurri ulertezinaz.

Nire bakardadera itzulia nintzelarik, ez nuen bentura haren inolako berririk izan. Ia bi urte igaro ziren hura guztiz ahaztuta izan nuelarik, harik eta halabeharrak zertzelada guztien berri eskaini zidan arte.

Calais-tik London-era iristen ari nintzen ikasle nuen-...ko markesarekin. Oker ez banaiz Lion d'Or-en hartu genuen ostatu non zenbait arrazoi-rengatik egun osoa eta hurrengo gaua pasatu beharrean aurkitu baikin. Arratsalde hartan kalean zehar paseatzen ari nintzela, Pacy-n aurkitu nuen gizon gazte bera ikustea begitandu zitzaidan. Janzkera oso exkaxa, lehenengo aldiz ikusi nuenean baino askoz ere zurbilago bestalde.

Besoetan fardel-uhal bat zekarren, heldu berria baitzen hirira. Hala ere itxura ederregia zuelarik aise ezagutua ez izateko, behingoan konturatu nintzen nor zen.

— Gizaseme horrengana jo behar dugu — esan nion markesari. Haren poza adierazpiderik garbiena bilakatu zen, berak ere ezagutu ninduenean.

— Ai Jauna! —adierazi zuen, eskuan musu ematen zidalarik. Berriro ere pozarren nire betiereko eskerrona eman diezazuket. Nondik zetorren galdetu nion. Itsasoz Havre-ra heldua zela erantzun zidan, Ameriketatik itzuli zetorrela hantxe lehorreratu baitzen.

— Diruz oso ondo zabilzanik ez nuke esanen —adierazi nion.

— Zoaz Lion d'Or-era bertan baitut ostatu, berehala bilduko natzaizu.

Itzuli nintzen bada, haren zorigaitzaren eta Amerikar bidaiako gorabeheren berri zehatza jakiteko irrikan. Eskuak zabalik hartu nuen eta ez zekiola deus ere falta agindu nuen. Ez zen nik bultzatzearen zain egon bere biziaren historia kontatzeko.

— Jauna —erran zidan—, horren jator onartzen nauzu, non eskertzarreko nintzatekeen zuri ezkutuko zerbait isilduko banizu. Atsekabeak eta penak ez ezik, nire hoben eta ahulkeriarik lotsagarrienak kontatuko dizkizut. Seguru nago, kondena banazazu ere, nitaz erruki izateko eragozpenik ez duzula izanen.

Ohartu behar dut irakurlea, haren historia-ia entzun eta batera idatzi nuela, egiazta daitekeelarik beraz, ez dela ezer zehatz eta fidelagorik kontaera hau baino. Fidela esan nahi dut, gazte benturazalearen gogoeta eta sentimenduen adierazpenean beroietan ere, zeintzuk munduan izan litekeen dotoretasunik handienaz ahoskatuak izan baitziren. Hona hemen bada, haren kontakizuna, zeini amaiera arte inolako eranskinik ez baitiot eginen.

Hamasei urte nituelarik Amiens-en ari nintzen nire filosofia ikasketak burutzen, bertara nire gurasoak —Pko etxerik hoberenetarikoak beraiek— bidalia. Bizitza hain zuhur eta arautua neraman, ezen nire irakasleek etsenplutzat jartzten baininduten ikastegian.

Egia esan ez nuen nik ahalegin berezirik burutzen horrelako laudoriorik merezi izateko; baina berez izaera lasai eta xaloa dudanez, ikasketetan murgiltzen nintzen aiherez, nire aztura gaiztoen kontrako berezko ezinikusizko ezaugarri zenbait haiek ostera bertutetzat jotzen zutelarik. Nire jatorriak, ikasketetako arrakastak eta nire berezko izaerak ezagutarazi ninduten bada, hiriko jende prestu guztiaren onerizpena jasoz. Nire azterketa publikoak ahobatezko onarpenez amaitu nituen, hainbat non haiek jarraitzen ari zen apezpiku jaunak eliza-estatuaren aukera eskaini baitzidan, zeinetan —zioen berak—, Malta-ko ordenaren baitan baino goraipamen handiagorik lortuko bainuen. Aipatu Ordenarako nahi izango baininduten nire gurasoek. Gurutzea eraman erazten zidaten jadanik Grioux-ko Zaldun-izenaz. Oporrak hurbil nituenez, aitaren etxera itzultzeko gertatzen ari nintzen, hark laster akademiara bidaliko ninduenaren agintzariaz. Amiens uzterakoan, nire arrangurarik bakarreana, bertan betidanik lagun mina izan nuen adiskide hura uztea zen. Ni baino urte batzuk zaharrago zen.



Elkarrekin heziak izan ginen, baina haren etxaldearen ondasunak oso urriak izanik, eliza-estatua hartzera beharturik aurkitzen zen, Amiens-en gelditu zelarik nik alde egin ondoren han bertan lanbide honi dagozkion ikasketak burutzeagatik.

Kualitate askoren jabe zen. Haietariko one-nak nire historiaren ildoan ezagutu ahal izango dituzu; batez ere bere adiskidetasunaren zabal-tasuna eta ardura, antzinateak erakusten dituen etsenpluak beraiek ere gainditzeko bezainbeste-koak. Garai hartan bere aholkuak jarrai izan banitu, gizaseme ondratu eta zorientzua izango nintzatekeen. Ai aprobetxatu izan banitu bere errietak besterik ezean! Nire pasioek herrestatu izan nauten amildegian nire patuaren eta ospea-ren hondamenditik zerbait erauzi ahal izango nukeen. Baina bere ardurek uzta urria eman dute, hutsaren hurrengoa, inoiz ordain txarra jaso ere, haiek irain eta aspergarrizat jotzen zituen eskergaiztoko honengandik.

Nire Amiens-etiko irteera-eguna finkatua neukan. Ai baina! Zergatik ez ote nuen data egun batez aitzin erazi? Gure aitaren etxera nire

errugabetasuna eramán ahal izango nukeen. Hiritik alde egin behar nuen bezperan bertan, Tiberge izeneko lagunarekin paseatzen ari nintzela, Arras-ko kotxea iristen ikusi genuen.

Jarraitu egin gintzaizkion honelako ibilgailuak geratu ohi diren lekuraino. Ikusbera ginen. Ez genuen bestelako ziorik. Kotxetik berehala ezkutatatu ziren emakume batzuk jaitsi ziren. Baina txit gaztea zen bat atarian geratu zen. Bien bitartean berarekin eta bere begirale zihoakeen giza-seme adineko bat maletak otarretatik behera ekartzen azkartzen zen. Hain xarmangarria iruditu zitzaidan neska hura, ezen nik sexu arteko desberdintasunaz inoiz pentsatu ere ez dudan honek, ez eta inongo neskari arreta pittin batez begiratu, hona bada, esaten nuen nire artean, mundu guztiak bere zuhurtasuna eta neurribidea miretsi duen hau, hara non bat batean sukarrezko lilurak eramana aurkitzen den erabat.

Herabeegia eta arras asaldatzekoa nintzela. Horiexek nituen akats. Baina orduan eragozpen haien hesia sentitu orde, nire bihotzaren erregina izango zen harengana urreratu nintzen. Nire aldean oraindik ere gazteago bazen ere, nire ele

goxoak artegatu gabe entzun zituen. Zerk zekarren Amiens-era galdegin nion, bai eta bertan ezagunik ba ote zuen. Bere gurasoek bidalia izan zela lekaime izateko erantzun zidan xalotasun osoz. Hain batera barneratu zitzaidan maitasunak, argi erakusten zidan bidea oso, hainbat non beraren xede hura nire nahien aurkako heriotzokolpetzat jo bainuen. Nire sentimenduak ulertzeko eran mintzatu nintzaion, zeren bera ni baino askoz esperimentatua baitzen: bere gogoaren kontra bidaltzen zuten komentura, zalantzarik gabe jadanik biztua zuen bere eta nire atsekabe guztien sorburua izan den plazer-irritsa iraungi asmoz.

Bere gurasoen asmo gupidagabe hura nire etorri eskolastikoak eta loratzen ari zen maitasunak idarokitzen zidaten arrazoirik sendoenaz borrokatu nuen. Ez zuen berak bere aldetik gogortasunik edo destainarik agertzen. Isilune bat iraganik, zoritxarraren eraso zetorkiola txit ongi antzematen zuela erran zidan, baina Zerua-ren borondatea behar zuela izan, itzur egiteko biderik ez baitzuen inondik ere ikusten. Bere begiradaren goxotasunak, hitzak ahoskatzen jal-

kitzen zuen halako tristurazko aire xarmant hark, edo agian hondamendirantz ninderaman nire patuaren eraginak ez zidaten nire erantzunean zalantza izpirik sortu. Segurtatu nion nire ohorea bai eta jadanik nire baitan sortarazten zuen xamurtasun izugarrian fidatu nahi bazuen, ene bizia emango nuela bere gurasoen tiraniatik aske utzi, eta zoriona erdiets zezan. Mila aldiz harritu izan naiz harrez gero, hartaz gogoeta eginenez, zeinen ausarta izan nintzen, zeinen etorri handikoa. Ez litzateke baina maitasuna jainkosa, maiz horrelako mirakulurik lot ez baleza! Mila erregu larri erantsi nituen. Bazekien nire ezezagun ederrak ongi jakin ere, nire orduko adinaz ez zegoela inor tronpatzerik. Aitortu zidan egunen batetan bera jaregiteko bitartekorik aurkitzen banuen, bizia bera baino estimagarriago zitekeen zerbaiten zor izango zitzaidala. Edozeri ekiteko prest ninduela berresaten nion; baina nire esperientzia urriak bat batean bera zerbitzatze-ko biderik argitzen ez zidanez gu biontzat laguntasun handiko ezin izan zitekeen segurtasun hala-moduzko bati lotzen nintzaion.

Bere artatzaile zaharra hurbildu zitzaigularik, nire esperantzak suntsituak ziratekeen baldin eta bere azkartasunak nirearen antzutasuna ordezkatu izan ez balu. Izan ere, gizon hura iritsi berri zelarik, guztiz harritu ninduen berak niri lehengusu deitzean, esaten zidalarik naturaltasun osoz, bestearen aurrean, ni Amiens-en aurkitu ninduelarik, atsegin handiz atzeratuko zuela egun batez bere komenturatzea, nirekin pozarren afaltzen geldituz. Amarru hura arras ongi ulertu niolarik, ostatu batetan lekua gorde zezan proposatu nion, bertako nagusia Amiens-en bizitzaren jarri izana, luzaro nire aitaren kotxeroa izanik, nire agindupean itsu-itsuan bainuen. Neronek gidatu nuen, artatzaile zaharra marmarka ari zela zirudien bitartean. Tibergek lagunak ere, gorabehera haiek deus ulertzen ez zituelarik ere, hitzik esan gabe jarraitzen zidan. Ez zuen inondik ere gure jarduna konprenitu, ni nire maite ederrari mintzatzen nintzaion artean bera berriz atarian paseatzen geratu baitzen. Haren zuhurtasunaren beldur nintzelarik, mandatu bat egin ziezadan erregutu nion, bakarrik utziko ninduenaren esperantzan. Horrela ostatura helduz nire

bihotzaren erregina zenarekin bakar-bakarrik egoteko zoriona ukan nuen.

Arin ohartu nintzen ez nintzela hain haurra. Nire bihotza inoiz sumatu izan ez nituen gozameneko mila zirraratan zabaldu zen. Berotasun goxo hura zain guztietan zehar barreiatu zitzaidan. Hitza bera ere itoazten zidan sukar moduko hark nire onetik irtenda bezala uzten ninduen begiak lekuko soil nituelarik. Manon Lescaut andereñoak —horrela zeritzadala erran baitzidan— bere xarmen ondorioengatik oso kontent iduri zuen. Ni bezain hunkitua sentitzen zela uste izan nuen. Pertsona atsegintzat jotzen ninduela eta bere askatasunaren zordun izateak txit poz-tuko zuela aitortu zidan. Ni nor nintzen jakin nahi izan zuen. Nire aitorpenak handitu egin zuen bere zirrarara. Zeren eta bera sehaska xumekoa izanik nire mailako maitale baten lorpenak guztiz asebetetzen baitzuen. Elkarrenganako izateko bideak aztertu genituen. Anitz gogoetaren ondotik ez genuen ihesa baino beste biderik aurkitu. Nahiz eta morroi soila izan, artatzailea gizon engainagaitza zen. Bat etorri ginen postaulki bat gertaraziko nuela gauean eta egun-

sentirako ostatura itzuliko nintzela gizon hura iratzarri orduko. Sekretuki alde egingo genuela eta Parisera jo zuzen-zuzen han bertan ezkonduz.

Nire aurrezki apalen fruitu ziren berrogeita hamar ezkuturen jabe nintzen orduan; berak bere aldetik ia-ia doblea zeukan. Esperientziarik gabeko haur ginelarik, uste izan genuen diru hura agortezina zela. Gainerako gauzen lorpe-nean ere antzerako neurria erabili genuen.

Afaria ordura arte inoiz sentitu izan ez nuen satisfazioaz amaitu ondoren gure egitasmoa burutu ahal izateko atera egin nintzen. Nire egin-beharrak azkar moldatu nituen lehendik buruan etxerantz jotzea pentsatua nuelarik nire ekipaia ttikia gertu utzia bainuen. Nire kaxa eramaten ez nuen bada denbora handirik hartu, ez eta goizeko bostetarako postaulki bat prest izaten, ordu honetan zabaltzen baitira hiriko atea. Baina ustekabeko oztopo hark hautsi zidan ia-ia nire helburua.

Tiberge ni baino hiru urte zaharrago besterik ez bazen ere, portaera zuhur eta heldutasun handiko mutila zen. Barru-barrutik maitatzen

ninduen. Manon andereñoaren edertasuna ikusi-rik, nire hura lagundu beharra bai eta bera urrutiratzeko hartzen nuen ardura, zertzelada guzti haiek nire maitasunean zerbait susmatzeko bidean jarri zuten. Ez zen utzi ninduen ostatura itzultzen ausartu, minduko ninduenaren beldur-erez, hala ere nire gelara jo zuen non itzultzean aurkitu bainuen hamarrak jota zeuden arren. Bere presentziak tristatu egin ninduen. Arras ongi nabaritu zuen sortzen zidan eragozpena:

— Seguru nago —erran zidan itzulingururik gabe—, niri aitortu nahi ez didazun zenbait buru-  
tapen badarabilzula. Zure begitarteak erakusten dit hori garbi.

Berari nire asmo guztien berri eman beharrik ez niola ihardetsi nion era zakarrez.

— Ez, horrela da —erantzun zidan—. Baina beti laguntzat hartu izan nauzularik, uste dut tasun honek konfiantza eta zabaltasun poxi bat merezi duela.

Hain zidan gogor eta luze nire sekretuaren atea zabal niezaion eskatu, ezen inoiz inolako iluntasunik izan ez nuenez berarentzat, nire maite-grinaren egia osoa adierazi bainion.



Desgogara itxura azaldu zidan, halakoa non ikara bizian jarri baininduen. Berari nire ihesaren berri jakin eraztean azaldu nuen zuhurgabetasunagatik damutu nintzen batez ere. Benetako lagun nuelako helburu haren kontra bere indar guztiz aurrean izango nuela aitortu zidan. Hasteko, atzera egiteko gauza izango nuen edozer begien aurrean ipini nahi zidala, baina erabaki erratu hura baztertzen ez banuen berehala hura geraraz zezaketenei gaztigatuko ziela. Ordu laurdenetik gora iraun zuen berbaldi gaitza luzatu zidan hantxe bertan, nire burua zuhurtasun eta zentzu gehiagoz erabiltzen ez banuen salatuko ninduenaren mehatxuaz amaitzen zuelarik. Nire burua horrela nahita salatzeak etsitu egiten ninduen. Hala ere maitasunak nire buru-bizkortasuna bizpahiru orduren aldian asko biztu zidanez, oroitu nintzen alegia nire egitasmoa biharamunean gauzatu behar nuenik ez niola adierazi. Bera tronpatzea erabaki nuen bada, zimardika:

— Tiberge —erran nion— gaur arte lagun zintudala sinetsirik egon naiz. Eta aitorten honen bitartez horixe egiaztatu nahi izan dut. Egia da maite dudala, ez zaitut engainatu; baina nire

ihesari dagokionez ez duzu halabeharrari utzita-ko eginkizuna. Zatoz bihar goizeko bederatzietan. Ahal izanik nire maitalea ikusiko duzu, epai orduan bada nire berarenganako aurrerabide honek merezi duen ala ez.

Bakarrik utzi ninduen hamaika oniritzi-froga eskaini ondoren. Gau osoa eman nuen nire gauzak sailkatzen. Goizaldean Manon andereñoaren ostatura iritsi nintzenean, zain nuen kale aldera jotzen zuen leihotik so. Ikusi ninduen bezain azkar atea zabaltzera jaitsi zen. Hotsik egin gabe alde egin genuen. Aldagarriak baino ez zituen fardelean, haien ardura neuk hartu nuelarik. Irte-teko prest genuen postaulkia. Berehala beraz, urrutiratu ginen hiritik. Aurki kontatuko dut zer nolakoa izan zen Tibbergeren jokabidea tronpatu egin genuela ohartu zenean. Ez zen haatik bere ardura epeldu. Ikusiko duzu nolako gehiegikeriatan murgildu zuen. Zenbat negar-malko isuri behar izan dudan harrez gero nire ordaina nolakoa izan den ikusiz! Hain ginen azkar aitzina ezen St. Denis-a gaua etorri aurretik iritsi ginela. Zaldi gainean postaulkiaren ondoan nindoanez ez genuen zaldi-aldaketetan baizik elkarri min-

tzatzeko aukerarik izaten. Baina Paris hurbil nabaritu genuenean astia hartu genuen solasalditxo bat egiteko ez baikenuen ezer ahora eramangure Amiens-eko irteeratik. Nire maitegrina handia izanik ere, Manonek berea ere ez zela atzean gelditzen sinetsarazi zidan. Gure lantzenen sua ez genion inori ezkututzen, bakarrik egoteko uneei itzaroteko egonarririk izaten ez genuelarik. Miretsirik begiratzen ziguten zein gure kotxe-gidariak nola ostalariak. Harridura hura gure adineko ume mukizu bi hain maite-sugar bizian ikustetik zetorrela ohartu nintzen. Gure ezkontza-asmoak St. Denis-en ahortzi genituen. Elizaren eskubideei iruzur egin eta ezkonduarik aurkitu ginen guzti hartaz inolako gogoetarik egin gabe. Ez dut zalantzarik honen xamur eta iraunkor naizen hau bizi osorako zoriontsu izanen nintzatekeela Manon fidel izan banu. Zenbat eta ezagunago orduan eta kalitate atsegin gehiago aurkitzen nuen berarengan. Bere buruargitasuna, bere bihotza, bere xarma, bere edertasunak hain zidaten kate sendo eta erakargarria osatzen non nire zorion guztia beraien barnean ilki gabe emango bainukeen. Oi

aldaketa doilorra! Pentsa, nire egungo etsipen hau sortarazi duenak nire zoriona ere sor zezakeen. Gizonetan zoritxarrekoena naiz, paturik onena eta maitasun-ordainik osotuena ekarri behar zidan iraunkortasun horrengatik berarengatik.

Etxe-bizitza jantzi bat alokatu genuen Parisen. V kalean, eta nire zoritxarrerako B. jaunaren —zerga-biltzaile ospetsua berau— etxetik bertan. Hiru aste iraungi ziren zeinetan pasioaren betetasunean blai, ez nuen familiaz oroitzarik izan ez eta nire berririk ezak aitarengan sortuko zuen saminean pentsatu. Edozein modutan nire portaeran nasaikeriak lekurik ez zuenez eta bestalde Manonen jarrera sotiltasun handikoa izanik ezagutzen ari ginen trankiltasun hura emeki-emeki nire betebeharraren premia gogora eraziz etorri zitzaidan. Aitarekin adiskidetzea erabaki nuen ahal zelarik. Nire maitea hain xarmangarria izanik ez nuen zalantzarik atseginez onartuko zuela, baldin eta beraren zintzotasun eta giza balioa ezagutarazten asmatzen banuen, hitz batez esateko, harro nintzen aitaren baimena hura esposatzeko izango nuelakoan, segur nin-

tzelarik beraren onespenik gabe esperantza oro alferrikakoa zela.

Egitasmo haren berri eman nion Manoni, maitasun eta betebeharrarrazoiez kanpo premiarena ezin ahantz zitekeela adierazten niola.

Izan ere gure diru-baliabideak arras ahituak ziren. Eta neroni ere agortezinak zireneko uste hartatik aldatuz nindoan. Manonek baina nahiko hotz hartu zuen irizpide hura. Hala ere agertu zizkidan zailtasunak bere ez-titasunak eta ni galtzeko beldurrak eraginak zirelarik aitak gure asmoei uko egiten bazien gure aterpearen berri izan bezain laster, ez nuen bada astindu behar ninduen kolpe doilorraren susmo izpirik ere izan. Diru-premiaren arazoiei erantzunez, nondik bizi izango genuela esan zidan berak.

Aurkitu omen zuen eta probintzia aldean zuen zenbait senitartekori idatzirik haiengandik sos batzuk. Bere ezezkoa fereka xamur eta beroz leundu zuen, hainbat non berarentzat baino begirik ez nuen honek beraren erantzun eta erabaki guzti haiek txalotu baintuen. Gure diru-zorroaren eta ohizko gastuen ardura berari utzia nion.

Ez zen aldi luzea igaro kontura nendin orduko gure mahaia hobeto hornitua zegoela bai eta aldean zeramatzan apaindura zenbaiten prezio ez-nolanahikoaz. Hamabi-hamabost pistola baino geratzen ez zitzaizkigunez, nire harridura azaldu nion gure oparotasun gehitze nabari hartaz. Ez kezkatzeko inola ere esan zidan irribarre-tsu:

— Ez al nizun agindu —jarraitu zuen— balia-biderik aurkituko nuela?

Nire maitasunak xalotasun sobera zuen ni hain erraz aztoratua sentitzeko.

Bazkalostean atera nintzen egun batez ohar-tarazi niolarik ohi baino aldi luzeagoz kanpoan izango nintzela, oso harritu nintzen itzultzean atean bizpahiru minutuz zain izan baininduten. Gure adin inguruko neskato bat genuen zerbitzari bakarra. Atea zabaltzera etorri zitzaidanean galdegin nion ea zergatik hain luzeiritzirik izan ninduen. Ez omen zuen dei-hotsik entzun erantzun zidan aurpegi lotsatuaz. Atea behin baino ez nuelarik jo hauxe esan nion:

— Baina ezer entzun ez baduzu, nola arraio etorri zara zabaltzera?

Galde hark hain zuen biziki larritu ezen ihardesteko behar adina lasaitasunik izan ez zuelarik negarrari jo zion, bere errua ez zela aitortzen zidalarik. Etxeko andereak galarazi ziola alegia inori aterik irekitzerik B. jauna kabinetera ematen zuen beste eskaileratik irten zedin arte.

Nire nahasmenduak etxera sartzeko ere kemenik gabe utzi ninduen. Eginbeharraren aitzakiaz eskaileretan behera abiatu nintzen, aurretik neska hari aginduz esan ziezaiola bere etxeko andereari aurki itzuliko nintzela berriro baina aitortu gabe inondik ere B. jaunari buruz hitz egin zidanik.

Beherantz nindoalarik eskaileretan nire egozinezinak malkoak isuri erazten zizkidan jakin gabe oraindik non zuten haiek sorburu.

Aurkitu nuen lehenengo kafetegira sartu nintzen. Mahai baten ondoan eseririk bi besoak burura eraman nituen zerk zuen nire bihotza inarosten bilatu nahian. Ez nintzen entzun berri nuen hura gogora erazten ausartzen. Amets gaiztotzat jo nahi nuen guzti hura. Bizpahiru aldiz berriz etxera igotzeko prest izan nintzen ezertaz jabetu ez banintzen bezala.

Manonek tradi nintzakeenari hain irizten nion ezinezko, non susmorik ateratzeak berak ere irainduko ote nuen izua sortzen baitzidan. Adoratu egiten nuen. Hori egia zen. Baina nire maite-erakuspenak berak niri eskainirikoak baino handiagoak ote ziren?

Zergatik bada ni baino aldakor eta gezurtia-gotzat salatuko ote nuen? Zein arrazoik bultza zezakeen ni tronpatzera?

Ez al zen bada hiru ordurik ere isuri bere laz-tanik goxoenez ferekatu ninduenetik, ordainez nire aldetikoenugarra jasotzen zuelarik? Izan ere ez nuen nire bihotza berea baino hobeto eza-gutzen.

«Ez, ez —eta nire teman jarraitzen nuen—, ezinezkoa da. Manonek ezin nau engainatu. Berarentzat baino ez naiz bizi. Ongi daki berari begira bizi naizela, gurtu egiten dudala. Nondik bada izan dezake ni gorrotatzeko ziorik?»

Edozer izanik ere B. jaunaren isileko sartu-irtenak kezka handia sortarazten zidan. Eta orduan gure ondasunak aise gainditzen zituzten Manonen erosketak gogoratu nituen. Ez ote zuen



guzti horrek amorante berri baten eskuzabaltasunean pentsarazten?

Eta zer esan nik neuk behintzat ezezagun nituen baliabide haien etorburuaz azaldu nahi zidan konfiantzari buruz? Zail egiten zitzaidan hainbeste enigmari nire bihotzak desio zuen argitasunik aurkitzea. Baina beste aldetik ez al nuen beti nigandik hurbil izan Parisetik irten ginenetik? Eginbehar, oster, olgetan ere beti elkarren ondoan ibiliak ginen. Jainko nirea! Banatze-unetxo bat berak ere zeharo hunkituko gintuzkeen! Gure maitasuna etengabe adierazten jardun behar izaten genion elkarri. Hori gabeko kezka hil izango gintuzkeen. Ezin bada lipar batez ere irudika Manonek nitaz kanpo beste inor izan zezakeenik. Azkenean lokarri haien korapiloa aurkiturik nuela uste izan nuen.

«B.ko jauna —esaten nuen nire artean— negozio eta bidenabar harreman ugari darabil-tzan gizasemea da. Manonen gurasoak gizon honetaz baliatu izan dira berari diruren bat helarazteko. Behar bada lehenago ere kopururen bat jaso du harengandik. Gaur ere horretara etorria dateke. Orain guzti hori isildu nahi dit gero uste-

kabe ona emateko. Agian ohi bezala sartu izan banintz leku honetara penatzera etorri beharrean hitz egingo zidakeen auziaz. Ez dit ezkutatu neronek aitatzan badiot behintzat.»

Burutapen hari sendo oratu niolarik biziki lagundu zidan nire tristura leuntzen. Berehala itzuli nintzen egoitzara. Ohizko goxotasunaz lantandu nuen, eta berak oso ongi hartu. Geroz eta egiazkotzat jotzen nituen nire begitazioen berri emateko irrika izan nuen, baina pentsamendu hura baztertu egin nuen agian berak propio gertatu zen guztiaren berri emango zidalakoan.

Afaria mahairatu ziguten. Ni nire aldetik alai itxuran urreratu nintzen, baina haren eta bion artean ezarria zegoen kandelaren argiak nire bihotzeko maitearen begi-masailetan tristura nabari erazi zidan, pentsamendu hark nire baitan ere gauza bera sentiarazten zidalarik. Ohartu nintzen bestalde bere begirada ohi ez bezala zetorkidala. Maitasuna ala errukia ezin garbi jakin zer ote zen. Edozein modutan sentimendu xamur eta makaldua iruditu zitzaidan. Hasierako arreta berberaz begiratzen nion. Eta ez ote zen bera ere bere aldetik nire begiradei jarraiki nire

bihotzaren sentimenduak irakurtzen saiatzen? Ez genuen orduan jateko edo pentsatzeko pentsamendurik. Halako batean bere begi ederrek malko zenbait isuri erazi zituzten. Eta nolakoak! Malko perfidoak!

— Ai Jainkoa —kanporatu nuen— negarrez ari zara nire Manon laztana, negarra sortu arterainoko pena daramazu baina ez didazu zure oina-zeaz hitzik ere esaten.

Nire egonezina larriagotu egin zuten zenbait zotinez baino ez zidan ihardetsi. Ikaraz zutitu eta bere negarraren arrazoiak ezagutarazteko erre-gutu nion maitasunezko larritasunik handienaz, neroni ere bere malkoak xukatu ahala beste horrenbeste gertatzen zitzaidalarik. Bizirik harro areago nintzen hilik. Nire min eta beldur adieraz-penek gizakumerik basatiena ere hunkituko zuketan. Berari erabat so nengoen aldi hartan bertan eskaileretan gora zetozen pertsona batzuen hotsa sumatu nuen. Atean jo zuten emaro-emaro. Manonek musu bat eskaini eta besoetatik ihesi joan zitzaidan. Kabinetera sartu zen bizkor atea berehala ixten zuelarik. Nire ustea zen apaindu gabe egonik deitu zuten eze-

zagun haien aurrean bere burua ezkutatu nahi zuelako izan zitekeela. Neu joan nintzen atea irekitzera. Ireki bezain agudo berehala ezagutu nituen nire aitaren sehi ziren hiru gizonek oratu zidaten. Bortxarik gabe. Baina birek besoetatik eusten zidaten bitartean hirugarrenak patrikak erregistratu zizkidan aldean neraman labaina txikia —nire arma bakarra— atereaz. Barkamena eskatu zidaten beren errespetu faltagatik beste erremediorik ez zutela eta. Nire aitaren agindupean ari zirela aitortu zidaten jakina, bai eta anaia nagusia kalean nuela zain zalgurdi baten barruan. Hitzik ahoratu gabe eraman nintzaten utzi nien sor eta lot bainengoen.

Bai horrelaxe zen, anaia behean nuen zain. Bere ondoan jesarri nindutelarik kotxeroak bera- ren aginduez ongi jabeturik, Saint Denis-eraino gidatu gintuen ziztu bizian. Maitekiro besarkatu ninduen nire anaiak nahiz eta elerik egotzi ez. Horregatik nire adu gaiztoan amets egiteko behar adina astirik izan nuen.

Hasieran dena zetorkidan ilun, ez nuelarik argibide mendreenik ere ikusten. Traditua izana nintzen doilorki baina noren aldetik?

Tiberge izan nuen aurrena oroimenean: «Traidore, hireak egin dik nire susmoak egi bilakutzen badira.»

Baina berehala gogoratu nuen hark ez zekielagure helbidearen berri, ezin zezaketela beraz berarengandik hura ezagutu. Ezin bestalde Manon salatu, ez baitzen nire bihotza uste horretan errudun sentitzen. Sumatu nion tristura izugarri hura lur jota bailegoen, haren malkoak, alde egin zuenean eman zidan muxua bera... ñabardura guzti haiek enigma itxura hartzen zuten nigan, baina hura gu bion adur gaiztoaren aurreustea bailitzan ikusten nuen, eta berarengandik erauzten ninduen gertakariak txit larritzen ninduen bitartean, bera ni baino errukigarriago zelako sinesberatasuna nuen. Nire gogoe-taren ondorioak sinestaraztera eramán ninduen alegia Parisen ezagunen batzuek ikusi eta gure aita ohartaraziko zutela. Burutapen honek kontsolatu egin ninduen. Nire ustetan guzti hura aitaren agiraka edo jipoi zenbaitez ebatzi zitekeen. Egonarriz jasango nuen etorri behar zuena, eta eskatzen zidatena beteko, hainbat azkarren Pariserantz abiatu ahal izateko.

Azkar igaro zen St. Denis-erako bidea. Nire isiltasunak harritu egin zuen nire anaia, hura nire beldurraren ondoriotzat jotzen zuelarik. Kontsolatu nahi izan ninduen esanez ez nuela aitaren zorrotzasunaren beldur izan behar, baldin eta nire betebeharraren ardura hartzen banuen eta haren niganako oniritzia merezi izaten.

Gaua St. Denis-en igaro erazi zidan, hiru sehiak nire logelan sartzen zituelarik. Arrangura handia sortarazi zidan Manonekin Amiens-etik Parisera nentorrela geratu ginen ostatu berean nire burua ikusteak. Ostalariak eta mirabeek ezagutu egin ninduten eta ildo horretatik gure nondik norakoaren berri izan zuten.

— Hara! Duela sei aste oso maite zuen andereño batekin hemendik igaro zen galai berbera da —entzun nion ostalariari—. Zeinen xarmangarria zen neska hura! Eta nola laztantzen ziren gazte biak! Bai atsekabea elkarrengandik banatu behar izana.

Entzungor egin nuen nire aldetik eta ahal izan nuen neurrian ez nintzen haien aurrera azaldu. Nire anaiak bi jesarlekuko postaulkia zuen, zeinetan goiztirian atera eta biharamun gauean

etxean ginen. Nire aurretik urreratu zen anaia aitarengana auzi hartan izan nuen jarrera apala nire alde goraipatuz. Horrengatik ez ninduen uste bezain gogor hartu. Bere baimenik gabe etxetik alde egiteagatik ohizko errieta baino ez nuen izan. Nire maitaleari zegokionez, gertatu zitzaidana ongi merezi nuela erran zidan emakume ezezagun batez fidatu nintzelako. Nire zuhurtziaren iritzi hobea zuela, baina bentura txiki haren ondotik zentzu handiagoz jokatu nuela espero zuela. Nik baina jardun hartatik nire ideiekin bat zetorrenari baino ez nion jaramonik egin. Eskerrak eman nizkion gure aitari barkatzeko izan zuen ongiagatik. Nik nire aldetik bizi arautu eta zuzenagoa eramango nuela agindu nion. Nire arima barruan garaipena sentitzen nuen. Izan ere nork ukan zezakeen zalantza gau hartan bertan etxe hartatik desagertuko ez nintzenik?

Afari legerako eseri ginen. Nire Amiens-eko konkista eta nire maitale fidelarekin izan nuen ihesari buruz adarra jo zidaten galanki. Ez ninduten gehiegi hunkitu. Ia-ia pozarren nengoen nire barnea etengabe betetzen zuen hartaz elekatze-

ko; baina aitari isuri zenbait hitzek arreta bizia sortu zidaten. Perfidiar eta B. jaunak buruturiko mesede interesatu batez mintzatu zen. Burua nahasirik gelditu nintzen izen hura entzun nionean. Apalki argitasun gehiago eman ziezadan erregutu nion. Orduan nire anaiarengana buelta eman ez eta historia guztia ez zidan kontatu galdetu zion. Hark erantzun zion alegia hain trankil ikusi ninduela bidean ez zitzaizela ezinbestekoa iruditu sendagai haren beharra izango nuenik nire erotasuna sendatzeko. Ohartu nintzen gure aitak zalantza izan zuela aurrera jarraitu ala ez. Otoi eta otoi aritu nintzaion azkenerako nire irrika asebate zuelarik. Hobeto esan erail egin ninduen krudelki kontaktarik ikaragarrienaren bidez.

Hasteko, itaun zidan ea hain xaloa nintzen nire maitaleak, maite izan ninduenik sinesteko. Ausarki erantzun nion, hartaz berme nintzela eta ez ninduela inork zalantza bidean ipiniko.

— Bai, bai —ekin zion barreari gogotik—, oso ondo motel. Adar tzarrak aldean eta pozik! Atsegin hartzen dut zu horrelako irizpideekin ikustean. Tamalgarria benetan zu Maltako Ordenara



bidali behar izana, horren senar erabilgarri eta jasankor izango baitzinateke!

Eta jarraian argudio antzerakoak erabiliz iseka anitz kanporatu zuen berak nire lelokeria eta sinesberatasunaren lekukotzat jotzen zituen haietaz.

Azkenik isiltasuna izanik nire erantzuna bere elari jarraitu zitzaion esanez bere kalkuluen arabera Manonek Amiens-etik irten nintzenetik hamabiren bat egunetan maitatu izan ninduela: —Zeren —gehitu zuen—, badakit iragan hilaren 28an atera zinela; egun hilak 29 ditu, eta hamai-ka egun dira B. jaunak idatzi didala. Eman deza- gun —hori da nire iritzia— zortzi egun behar izan dituela zure amorantearen ezagutza ona egiten, beraz hilabete batetako 28tik hurrengo 29 arte dauden hogeita hamaika egunetatik hamaika gehi zortzi kenduz hamabi dituzu gutxi gora behera.

Eta hura esanez batera barre —algarari ekin zion.

Bihotza suntsitzear entzuten nuen guztia. Izu nintzen. Ba ote nintzen narrazio triste hura amaiera arte jasateko gauza?

— Jakin ezazu —lotu zitzaion berriro ere bereari—, honen berri ez duzunez, B. jaunak zure printzesaren bihotzaren jabe egin dela ez baita alperrik nitaz trufatzen sinestarazi nahi didalarik nireganako mesede desinteresatuagatik kendu nahi izan dizula... Horrelako elementurik! Ezagutu ere ezagutzen ez nauen horrengandik nork espero hain sentimendu zintzorik. Utikan! Neskarengandik jakin zuen jakin nire semea zinena, eta zu saihesteko non eta zein desegoki bizi zinen aditzera eman ez, zu bide zuzenera ekartzeko larre motzean lotu behar izango zintuzkedala adieraziz. Zu ustekabeen harrapatu ahal izateko bitartekoak eskaintzeko prest agertu zitzaidan, berarengandik eta zure amorantearen haritik azkenik aurkitu ahal izan du zure anaiak hain zuzen zu oharkabeen harrapatzeko unea. Harro izan hadi zaldun, hire garaipenaren iraupenagatik. Aski azkar garaitzen duk baina ez dakik oraindik hire konkistei eusten!

Hitz bakoitza bihotz urratzaile nuen kontraera haren harian jarraitzeko indarge geratu nintzen. Mahaitik jaiki eta bizpahiru urrats egin orduko zerraldonintzen zoruaren gainean. Arin lagundu

nindutelarik nire onera etorri nintzen. Begiak ireki ahala malko jario ugaria ilki zitzaidan, ahotik berriz nire erostarik hunkigarri eta tristenak ezpainetaratzten nituelarik. Beti biziki maite izan nauen aitak bere xamurtasunik handienaz kontsolatu nahi izan ninduen. Entzun bai, baina uler-tu deus ere ez nion egiten.

Belaunikatu egin nintzaion eskuak bildurik. Parisera utz nintzala itzultzen erregutu nion, B. jaunak nire sastakaiaren zorrotza dasta zezan.

«Ez, esaten nuen. Ez du Manonen bihotza irabazi; ez, indarrez bereganatu du. Aztikeria, pozoiaz liluratu du, eta nork daki bortxatu ere ez duen egin! Manonek maite nau. Ez dakit ba nik hori ongi. Sastakaiaz baliaturik mehatxatu egingo zuen nigandik bana zedin. Zer ez ote du egin niri hain maitale ez-tia harrapatzeko!

Oi Jainko Ahalguztidunak! Posible ote Manonen tradizioa, posible ote nire bihotzak jadanik Manonengan lekurik ez izatea?»

Beti ere Parisera hainbat azkarren itzultzea neramalarik ahoan, jaiki ere edozenbat aldiz asmo horrekin egin nintzela oharturik, aitak ikusita horren karian su eta gar nintzela pentsatu

bide zuen ezerk ez ninduela geldiaraziko. Horregatik goren solairuko gela batetara eramán ninduen ni zaintzen bi morroi utzi zituelarik. Ez nintzen nire buruaren jabe. Bizia bera emango nukeen Parisetik ordu laurdenera izateagatik. Arras ongi ulertu nire helburuen berri hain garbi emana nuelarik ez nindutela nire gela hartatik aise irteten utziko. Nire begiek leihoen luzera neurtu zuten. Ihes egiteko inolako ahalbiderik ez nuela ikusirik nire zaintzaileei ele goxoz mintzatu nintzaien. Zin eta zin egin nien egun batez aberats bihurtuko nituela ihesbidean jartzen baninduten.

Esan eta errepika, lausengatu eta mehatxatu. Denetik egin nuen. Baina ekintza hura ere alferrikakoa izan zen. Esperantzarik ñimiñoena ere galdurik, hiltzea erabaki nuen. Ohean etzan nintzen hantxe bertan nire bizia uztekotan.

Gau hura eta hurrengo osoa egoera hartan pasatu nituen. Biharamun goizean helarazi zidaten janariari ere uko egin nion. Bazkalostean aita etorri zitzaidan ikustera. Nire samina bere hitzik hunkiberenez baretzeko onginahia izan zuen. Oso zorrotz zerbait jateko agindu zidan. Bere

aginduek merezi zuten begiruneagatik obeditu egin nion.

Zenbait egun isuri zen ezer jaten ez nuelarik, beraren aurrean eta berari obeditzeagatik ez bazen. Berak berriz, zentzu onaren lorratzera eramanez nintzaketan arrazoiak eskaintzen zizkidan, beti ere Manon infidelarenganako mespretxua sortu guran. Egia zen ez nuela jadanik maite. Nola bada maite gizakirik buruarin eta perfidoena? Baina haren irudia, bihotz barnean neraman haren giza itxura atsegina bizirik zebiltzan oraindik.

Ondo sentitzen nintzen: «Hil naiteke —nioen nire artean—, hil behar nuke hainbat lotsa eta oinazeren ondotik, baina mila herio pairatuko nituzke Manon eskertzarrekoa ahaztu ezinik.»

Txunditurik zegoen gure aita ni hain sakon hunkiturik ikustean.

Ezagunak zituen nire ohorezko irizpide garbiak; ez zuen beraz haren traizioak nire mespretxua irabaz ez zezakeenik zalantzan ipintzen. Nire saiatzea grina zehatz hartatik baino areago nire emakumeenganako jaiduratik zetorkidala iruditzen zitzaion. Hain zitzaion pentsamendu

hari lotu, ezen bere onerizte handiak agintzen zionari baino ez jaramon eginik erran baitzidan:

— Nire zalduna, Maltako gurutzea paparrean ikusi nahi izan zaitut gaur arte, baina nabaritzen dut zure aiherrak ez doazela inondik ere alde horretatik. Emakume politak maite dituzu. Zure gogoko bat aurkitu nahi nizuke. Eman iezadazu lasai zeure iritzia guzti honetaz.

Ihardetsi nion gertatutakoaren ondoren ez nuela jadanik inolako desberdintasunik ikusten beraien artean denak nituela indar berberaz gorrotatzen.

— Manonen antza izango duen bat aurkituko dizut —jarraitu zuen irribarretsu— baina hura baino fidelago izango zaizuna.

— Ai! —erantzun nion—. Nire zoriona nahi izango balu, huraxe bera itzuliko lidake. Seguru izan aita estimatua, berak ez nauela mola ere traditu. Berak ez dezake horrelako zantarkeriarik egin. B. dongeak engainatzen gaitu: zu, bera eta hirurok. Ai baleki zeinen fin eta benetakoa den. Ikusi bezain azkar maitatuko luke berorrek ere.

— Haur bat baino ez zaitugu —erantzun zidan berak—. Nola arraio egon zaitezke itsuturik neu-

rri horretaraino nire kontaketa entzun eta gero? Bera izan da zure anaiaren esku utzi zaituena. Ez beste inor

Haren izena bera ere ahaztu behar zenuke engoitik eta zintzoki jokatzuz dizudan bihotz-zabaltasuna aprobetxatu.

Argi eta garbi arrazoi zuela onartu beharra neukan. Baina nahigabeko eragin batek nire infidelaren alde jartzen ninduen.

— Ai! —jarraitu nuen isilaldi baten ondotik— egia handia da inoiz ikusi izan den dongekeriarik koldarrenaren helburu naizela. Bai —eta orduan negarrari jo nion—, ongi dakusat haur bat baino ez naizena. Bai erraza zitzaiela nire sinesberatasuna tronpatzea! Baina ongi dakit zein den nire mendekua.

Aitak zer nuen asmo jakin gura zuen.

— Parisera joango naiz —esan nion—, eta B. jaunaren etxeari su emango diot, bera eta Manon gaiztoa bizi-bizirik kiskalarazten ditudalarik.

Jarrera hark barrez jarri zuen gure aita ni ostera oraindik estuago zaindu ninduten nire espetxean.

Set hilabetez egon nintzen bertan, beraietatik lehenengoan nire adorea gutxi eza gutu zuelarik. Nola Manonen irudia itxuratu nire lokietan, horrelakoak ziren nire sentipenak: orain gorroto, orain amodio, zein itxaropen nola etsipen. Neskarik maitagarriena irizten nion aldi batez, nire aldarteak bera ikusteko irrika sentitzen zuelarik, geroxeago ostera maitale donge eta koldartzat jotzen nuen zin egiten nuelarik aurkitu eta zigortu egingo nuela.

Nire adorea apur bat berpizten lagundu zuten liburu zenbait eskuratu zidaten. Nire gogozko egile guztiak berrirakurri nituen. Jakintza berri baten jabe egin nintzen eta ikasteak berriro ere gozamen deskribagaitza eskaini zidan. Ohartuko zara aurki zertarako balio izan zaidan. Maitasunak sortu distirek aurretik ilun iruditu izan zitzaizkidan Horatio eta Virgilioren hainbat pasartetan argi egiten lagundu zidaten. Eneidaren laugarren liburuaz amodiozko iruzkin bat burutu nuen; argitaratu nahi nuke noizbait. Ustedut jendeari laket izango zaiola. A baina! —nioen berori idazterakoan—, nire bihotza bezalakoa behar izango zukeen Dido fidelak!



Egun batez Tiberge igo zitzaidan gatibu-lekura. Bere besarkada beroak harritu egin ninduen. Ez nuen nik orduan oraindik haren estimuaren froga berezirik. Adin bertsuko diren ikaskideen artean izan ohi den adiskidetasunaren modukoa zen. Elkar ikusi gabe pasatu ziren bospasei hila-betetatik hain aldatua eta jantzia sumatu nuen, ezen bere itxura eta mintzamoldeak begirunea sortarazi baitzidaten. Aholkulari zuhurra bailitzan mintzo zen, ez ikaskide legez. Erori ondoren neraman nire nora eza deitoratu zuen.

Zoriondu egin ninduen sendatze-bidean oso aurreraturik uste ninduelako. Azkenik erru hura aintzat harturik plazeren hutsalaz jabe nendin erregutu zidan.

Txunditurik begiratzen niola konturaturik esan zidan:

— Nire zaldun preziatua, ez dizut azterketa sakonaren ondoren baino konbentzitu ez nauen egia sendoa adierazten. Zuk zeuk bezainbateko irritsa nion gurikeriari baina aldi berean zeruak bertutearen egarrian bideratu ninduen. Arrazoiarengana jo izan dut bataren eta bestearen fruituak erkatzeko, eta ez dut denbora handirik

ahitu bien arteko desberdintasunak nabaritzen. Zeruaren laguntza nire gogoeta sendotzera etorri zait. Munduak antzekorik ez duen mespretxua sortu dit. Asmatuko al zenuke zerk lotzen ninduen bertan, zerk eragozten didan bakardadean murgiltzen? Nire zureganako adiskidetasun benetakoak baino ez. Ongi ezagutzen ditut zure bihotz-izpirituen bikaintasuna. Ongia oro egiteko gauza zara. Baina plazeraren edenak desbideratu egin zaitu. Nolako galera bertutearentzat! Zure Amiens-etiko ihesak bihotz-minez bete ninduelarik, ezin izan dut harrez gero betetasun une bakar batez ere gozatu. Zuk epai, hark egin erazi dizkidan atakak ikusiz.

Engainatu ez ezik nire maitalearekin alde egin niola oharturik, zaldi gainean jarraitu zidala, baina lauzpabost orduz aurretik nindoakiolarik, ezin izan zitzaidala bildu adierazi zidan.

Hala ere ni St. Denis-etik irten eta ordu erdira iritsi zela. Halaber jakinaren gainean izanik Parisen geldituko nintzela, sei astez nire bila jardun zuela. Bere ustez aurki nintzakeen leku guztietara jo ohi zuela.

Baina alperrik. Egun batean oster, nire maitalea antzokian ikusi zuelarik hain apaindura dotorez, iruditu omen zitzaion itxura hura amorante berri bati esker izan beharko zuela. Kotxeari bere etxeraino jarraitu ziolarik, morroi batengandik jakin omen zuen B. jaunaren esku-zabaltasunari esker bizi zela.

— Ez ninduzun baina horrekin bakarrik ase — jarraitu zuen—. Biharamunean itzuliz, berarengana jo nuen zure nondik norakoa jakin nahirik. Baina zure izena entzutean alde egin nuen zakarki. Etxera itzuli nintzen deus argitu gabe. Gero zure benturak eta berak sortu dizun sasta-da latzaren berri izan dut. Horregatik ez zaitut gaur arte ikusi nahi izan, lasaiago izango zinen esperantzan.

— Marion ikusi duzu beraz —galdetu nion barne-barnetik—. Ai! Bera berriro ez ikustera zigortu duten hau baino zoriontsuago zara!

Destainez hartu zuen nire erosta hura nire harenganako sua itzali ez zela adierazten baitzuen. Hain artez hitz egin zidan nire izaera eta joeren —omen— ontasunaz, lehenengo ikustaldi hartatik gure mendeko plazer guztiei uko egin

eta bera bezala eliza-estatuan sartzeko gogo izugarria sortu baitzidan.

Xede hari pozarren heldu nion. Hainbat non bakarrik gelditzean ez bainuen beste gauzarik buruan. Amiens-eko apezpikuaren predikuak oroitu nituen. Hark ere aholku bera eman baitzidan, zantzu zorionekoak sumatzen zituela nire baitan baldin eta ildo jakin hartatik abiatzen banintzen. Nire burutapenetan eraspena bera ere azaldu zitzaidan. «Giristino-bizi zintzoa eramango dut» nioen nire artean. Amodioaren plazer labainkorretan pentsatzeko astirik eskaintzen ez zuten erlijioa eta ikasketak izango nituen ardatz.

—«Gizaki orok miretsi ohi duena arbuiautuko dut. Eta nire bihotzak benetan atsegina duena baino desiratuko ez duenez, nire desirak nire kezkek bezain urri izango dira.»

Aurretik bizi lasai eta bakartia irudikatzen nuen. Egitasmo haren isurian, etxe urrundua baso ttiki batean, lorategi barreanean ur gardeneko erreka, aukeraturiko liburuz osotutako liburutegia. Zer ez ote nuen amesten! Laguntalde urri baina bertutetsu eta zentzuzkoa,

mahai txukuna, baina apal eta neurritz hornitua. Paris aldetik gutun bidez informatuko ninduen lagun bat eransten nion guzti hari. Hark gertakizun publikoen berri helaraziko zidan, nire jakin-gura asetzeko baino gehiago gizakien eromenezko portaeren kontura olgeta egiteko.

«Ez ote nintzen bada zoriontsu izango? Ez ote dira nire helburu guztiak beteko?» Gehitzen nuen. Egia zen egitasmok hark zinez asetzen ninduela. Baina plangintza zuhur haren amaieran nire bihotzak oraindik ere zerbait espero zuenaren zirrararen egiten zidan, alegia: bakardaderik gozagarrienean ezin nezakeen beste ezer desira ez bazen Marion nire ondoan izatea.

Hala ere Tiberge maiz etortzen zitzaizkidan bisitan beti ere sortarazi zidan asmo hura nigan sendotu nahian, egoera hartaz baliaturik galde egin nion nire aitari. Bere haurrak aske uzteko asmoa zuela —nork bere nahiaren arabera— erantzun zidan; gehitu zuelarik zernahi egiten nuelarik ere bere eginkizuna aholku ematera mugatuko zela. Aholku zuhurrik eman ere, nire asmoa baztertze bakoitzeko baino areago hari jakinduria osoz lot neskion bilatzen zutenak.

Hurbil geneukan ikasturtea. Tiberge eta biok elkarrekin bilduko ginela St. Sulpice-ko apaizte-gira erabaki genuen, berak bere teologia ikasketak amaitzera, neroni berriz nireak hastera.

Bere merezimenduek elizbarrutiko apezpi-kuak ongi ezagutzen zituenak bestalde, eliza-agintari harengandik mesede handiak erdietsi zizkioten gure irteera aurretik. Gure aitak ez zuen inolako eragozpenik jarri ni joaten uzteko. Nire pasio-orbanak jadanik sendaturik iruditzen baitzitzaizkion.

Parisera heldu ginen. Eliza-janzkiak Maltako gurutzea ordezkatu zuen eta Grioux-ko Abade izenak Zaldunarena. Hain nintzen ikasketetan gogor saiatu hilabete gutxiren buruan aurrera-pen izugarriak egin nituela. Zeregin honi gaua-ren aldi batean lotzen nintzaion egunez istant bat bera ere galdu gabe. Nire izena han-hemen-ka hedatu zen ospe handia ematen zidalarik, hainbat non aurrez zorionak ematen baitzizkida-ten lortuko omen nituen duintasunengatik. Eta hara non nik eskatu gabe onuren zerrendan azal-du zen nire izena. Ez nuen eraspen faltarik, ari-keta guztiek berotasun bera izaten baitzuten

nire aldetik. Tiberge bera ere txunditurik zebilen bere egintzat jotzen zuen mirakulu haren aurrean. Negarra zeriola ikusi nuen hainbat aldiz, nire konbertitzea omen zen hura goraipatuz. Giza erabakiak aldagarriak diren usteak ez dit inoiz harridurarik sortu; bada beroien sorreran pasio bat, bada alabaina beraiek suntsi ditzakeen beste bat. Baina St. Sulpice-ra eraman ninduten haien saindutasuna eta beraiek burutzean zeruak eskaintzen zidan barne-bakean pentsatzen dudanean, izutu egiten naiz zeinen erraz hautsi nituen oroitzuz. Zeru laguntzek beti ere pasioen bezainbesteko indarra badute, argi diezadatela otoi, zein zorigaiztoko indarrak garmatzen bat bateko kolpez gure betebeharratik urrun, ez garelarik gauza kontrako indar izpirik egin eta inolako damu-tantarik sentitzeko. Amodioaren edonolako ahuldadek ez zuela lekurik nire bihotz barnean sinetsirik nengoen. Nago Agustin Sainduaren orrialde baten irakurketa edo ordu laurdeneko kristau gogartea zentzua- ren gozamen guztiak baino nahiago izango nituzkeela —Manonek eskain ziezazkidakeenak barne—. Hala ere lipar zoritxarreko batek amil-

tze-bidean ipini ninduen berriro, nire erorketa konponezina bilakaturik, are gehiago bat batean atera nintzen leizearen ilun bertsuan aurkitu nintzelarik, anabasa berriek oraindik zokorago aipatu leizearen ondoraino amildu baininduten.

Bazen ia urtebete Manonen berri ez nuela. Nire buruari ezarri nion bortxa hura oso latza izan zitzaidan. Baina Tibergeren aholku ahantzenez eta nire gogarte propioek garaitu egin zuten. Azken hilabeteak oso trankil isuri zirenez, izaki xarmant eta donge hura betirako ahazteko lorratzean ikusten nuen nire burua. Horrela bada Teologia eskolan jendaurreko ariketa burutzeko garaia heldu zitzaidan. Zenbait pertsona ohoretzuri erregutu nien beren presentziaren ohorea eskain ziezadaten. Hori zela eta Pariseko auzategi guztietan zehar zabaldu zen nire izena, bai eta nire infidelaren belarrietara iritsi. Ez ninduen berak seguruenik abate izenetik ezagutu; baina nik ez dakit kuriositate apur batek edo agian traditu ninduelako damuak ezin izan nuen inoiz garbitu biotariko sentimenduetatik zeinek, hala ere, jakin-min bat sortu zioten hain nire antzerako iruditu zitzaion izena entzunez. Edozer delarik



ere, Sorbonara etorri zen beste zenbait andere lagun. Ariketan bertan izan zelarik ez zuen noski lan handirik izango ni berriro ezagutzen. Ez nuen bisita haren inolako berririk izan. Badakizu horrelako tokietan emakumeek berentzat bereziki jartzen diren ezkutuguneak dituztela.

St. Sulpice-ra itzuli nintzen bada loria eta konplimenduz beterik. Arratsaldeko seiak ziren. Iritsi eta laster andere batek ni ikusi nahi ninduela jakin erazi zidaten. Berehala abiatu nintzen mintzagelarantz. O Jainko maitea! Zeinen agerpen harrigarria! Hantxe nuen Manon. Inoiz ikusi izan nuen baino maitagarriago, distiratsuago. Hemezortzi urte zituen orduan. Bere xarmek hitzik biribilenak mutu uzten zituzten. Hain zeren itxura leun, goxo, ezti, maitasuna bera adierazten zutela. Haren dena zitzaidan liluragarri. Txunditurik gelditu nintzen. Ezin bere ikustaldiaren zergatia antzeman, begiak jaitsirik dardaraz zerbait aitor ziezadanaren zain nengoen. Une batez bere durduzadura nirearen antzerakoa izan zen. Baina nire isilaldia jarraitu egiten zuela ikusirik eskua begietara eramanez, bere zotina estali nahi izan zuen. Herabeti bere infidelitateak

nire gorrotoa baino ez zuela merezi aitortu zidan, hala ere jarraitu zuen, inoiz berarengana-ko xerarik izan nuenik egia bazen, oso gupidagabe izan nintzaiola nire patuaren berririk bi urte luzetan eman ez niolako. Areago oraindik bera nire aurrean aurkitzen zen egoera hartan ikusirik nik hitzik ere luzatzen ez niola. Ezin nire arimaren egonezina adierazi beraren hitza entzutean.

Eseri egin zen. Ni ostera zutik gorputza albo-ka berari zuzenean begiratzen ausartzen ez nintzela. Zenbait bider erantzunen bati ekiten nion ezin izaten nuelarik amaitzeko indarrik. Azkenean ahalegin bat buruturik, esan nion mindurik:

— Ai Manon gaiztoa, dongea! —Berak ostera negar malko ugariren artean ez zuela inondik ere bere dongekeria justifikatu nahi errepikatzen zidan—. Zer gura nauzu orduan? —galdetu nion berriro ere. —Hil. Zure bihotza itzuliko ez bazenit. Ezin baitut inola ere bera gabe bizirik iraun. —Eska iezadazu bizia, infidel halakoa! —erantzun nuen neuk ere eutsi ezinik nerabiltzan mal-koak isuriz—, eska nire bizia, oraindik eskaini ez dizudan gauza bakarra. Zeren nire bihotzak beti zurea izaten iraun baitu.

Nire azken hitz haiek ahoskatu bezain azkar, zalu zutiturik besarkatzera etorri zitzaidan. Maite-garrezko fereka grinatsu anitzez laztandu ninduen. Maitasunak bere ele xamurrak adierazteko ezagut litzakeen izen guztiez deitu zidan. Zabar nintzaion oraindik. Zer nolako aldaketa izan ere, nire bizimodu trankil hartatik birjaio-tzen sentitzen nituen irrika sutsu haietara! Izutu egin nintzen. Beldur-ikara hurbildu zitzaidan gauak urrutiko basoan harrapatzen gaituenean bezala. Beste mundu batetara eramana sentitzen zara, izu sekretu batek inarrosten zaitu eta ez zara handik zure onera etortzen harik eta inguruak luzaro aztertu arte. Elkarren ondoan jesarri ginen. Bere eskuak nireen artean hartu nituen. —Ai Manon! —esaten nion tristuraz begiratzen niola nire maitasunak ez zuen zure traizio beltzaren ordaina espero. Zeinen aise izan zitzazun zu zeu erregina ahalguztidun zinen bihotz baten tronpatzea! Bai erraza zuri obeditzen eta atsegin ematen bere zorion guztia bilatzen zuen bihotzaren ukatzea! Esadazu orain arren, honen xeratsu eta menekorik aurkitu izan duzun inoiz. Ez. Inola ere ez. Naturak ez du nire tenoreko

bihotz askorik sortzen. Esan otoi, inoiz beraren antsiarik izan duzunik. Ba ote egia arrastorik nire bihotz honenganako kontsolamendurik, onginahizko itzulaldi honetan? Ongi ohartzen naiz inoiz baino xarmangarriago zaudela; baina otoi zugatik nozitu izan ditudan oinaze guztien ize-nean, otoi Manon ederra erradazu fidelago izango zaren.

Bere damua zela eta gauza hunkigarririk agertu zidan, eta hainbat zin eta agerpenez fideltasuna agindu zidan, ezen neurri ulergaitzez bigundu baininduen. —Manon bihotzekoa —esan nion maite eta teologiazko adierazpideen nahasketa profanoa eginez izakia izateko adoragarri-gia zara. Nire bihotza garaipenezko gozamenak eramana sentitzen da. St. Sulpice-n askatasunaz dioten guztia kimera hutsa da. Ondasun eta ospe, zugatik galduko ditut. Ongi dakusat hori gaurdanik. Nire patua zure begi ederretan irakurtzen dut. Baina zure maitasunak galerarik latzenetan kontsolatu ahal izango nau. Utikan adur onaren mesedeak! Loriari keari bezain ilauna deritzot; nire eliza-bizitzazko egitasmoguztiak irudikapen eroak nituen. Zu gabe etor lekiz-

kidakeen on guztiak baztergarriztat jotzen ditut, ez bailukete nire bihotzean unerik laburrena ere iraungo zure begirada bakar baten aurrean.

Beraren erruak erabat ahantziko nituenaren truk, B. jaunak nola seduzitu zuen adieraz ziezadan jakin nahi izan nuen.

Kontatu zidanez, leihoan ikusi omen zuen, eta behingoan beraz liluraturik gelditu omen zen. Bere maite-adierazpena zerga-biltzaile legez egin omen zion, alegia gutun batean idazten ziolarik ordain-saria mesedeen arabera izango zela. Hasiera batetan amore eman zuela, beti ere harengandik diru-kopuru handia lortzeko gero gu biok erosoago bizi ahal izango ginelakotan. Haren promesa izugarriek harriturik utzi zutela, emeki-emeki bere egin zuen arte. Epai nezala baina bere damua gure banatze-egun bezperan agertu zidan saminaren lekukotasunetik, zeren hark ematen zion ugaritasunagatik ere, ez baitzuen gizon harekin inoiz ere zorionik dastatu. Ez bakarrik harengan ni baitan aurkitzen omen zuen sentimenduen fintasuna eta nire portaeren gozotasun poxirik ikusten ez zuelako, baizik eta hark etengabe eskuratzen ziz-

kion plazeren erdian ere, berak bihotz-barrenean nire maitasunaren oroitzapena eta bere infidel-tasunaren aladura baitzeraman. Tibbergeren izena aipatu zidan, bai eta haren bisitak eragin zion asaldapen izugarriaz. —Bihotza urraturiko ezpatakada batek —gehitu zuen— lasaiago utzi-ko nindukeen. Bizkarra eman nion, beraren presentzia ez bainezakeen jasan.

Nire Pariseko egonaldiaren berri zein bidetarik jakin ahal izan zuen, jarraitu zuen kontatzen. Nire estatu aldaketaz eta Sorbonako ariketez ere jakinaren gainean zegoen. Azken hauen jarduna hunkiturik jarraitu zuela halako moldez non oso larri egon baitzen, malkoei ez ezik bere barnetiko intziriei eutsi ezinik, lehertzear izan baitzituen behin baino gehiagotan.

Erran zidan azkenik, leku hartatik azkena irten zela bere egonezina ezkutatu nahian, eta bere bihotzaren taupada eta gurarien oldarrari baino ez zielako jarraitzen apaiztegirantz zuzen-zuzen abiatu zela, erabakita zuelarik han bertan bere burua hilko zuela barkamenik ez banion ematen.

Non beraz aurki haindamu bizi eta xamurragoaren aurrean hunkiturik geldituko ez zen gizonik! Ez eta basatirik handiena ere! Une hartan kristau-munduko apezpikutza guztiei uko eginen niekeela Manonengatik sentitu nuen. Zer nolako gizalegez jardungo zuen aurrerantzean gure arazoetan galdetu nion. Apaiztegitik ilki eta leku seguruago batean gure gauzez aritu behar genuela erantzun zidan. Baietz esan nien bere nahi guztiei txintik eztabaidatu gabe.

Bere kotxera sartu zen kalearen hegala batean nire zain egoteko. Atalzaina ohartu gabe egin nuen ihesi handik lasterrera berarekin biltzeko. Jantzi erabilien denda batetara joan ginen. Galoi eta ezpata-jabe nintzen berriro ere. Manonen kontura izan zen dena, sosik ere ez bainuen. Gainera St. Sulpicetik irten ondoren ez zuen nire gelara diru bila itzul nendin gura izan edonolako oztoporik izan ez nezan. Ezin esan bestalde nire altxorra oparoa zenik, bera ostera B. jaunaren emankortasunari esker nik uzten nuena gutxies-teko bezain aberatsa zen. Dendan bertan hartu behar genuen norabideaz aritu ginen.

B. uztean bere lepo hartzen zuen sakrifizioa are gehiago azpimarratzeko, harenganako loturak etetea erabaki zuen:

— Bere altzariak bertan utziko dizkiot, bereak baititu —esan zidan—, baina neurekin eraman behar ditut horrela baitagokit, harengandik lortu izan ditudan bitxiak eta hirurogei mila franko inguru. Ez diot nire buruarenganako inongo eskubiderik eman. Horrela Parisen bizi ahal izango gara beldurrik gabe. Etxe eroso batean zoriontsu izango gara.

Argi jarri nahi izan nion, beretzat arriskurik ez bazuen ikusten ere, niretzat berriz bazegoela. Eta handirik gainera. Han edo hemen ezagutuko baininduten. Beti ere lehen ere pairatua nuen zoritxarraren ezpata hurbil izango nuela. Baina bera nonbait oso tristatuko zuen Parisetik alde egiteak. Hain nintzen bera nahigabetzeko beldur ezen zernahi arriskuri aurre egiten bainion bera-ri atsegina emateko. Hala ere batez besteko oreka zentzukoa aurkitu ahal izan genuen Parisetik urte kokatzen zen herririka batean etxe bat alokatuz. Bertatik hirira jo genezakeen erraz apetak edo premiak deituko gintuenean. Urrun



ez den Chaillot hautatu genuen. Manon bere etxera itzuli zen berehala. Tuileries lorategiko ate txikian egongo nintzaion zain. Ordubete gero itzulia zen kotxe alokatu batean bere meneko neskame batekin. Zenbait kaxa zekartzan zeinetan bere jantziak eta baliozko guztia gorderik baitzeukan.

Aurki ginen Chaillot-en. Lehenengo gau hura ostatuan igaro genuen. Horrela astia izango genuen etxe edo behintzat gela egokiren bat aurkitzeko. Biharamunerako bagenuen gustuko bat.

Aldaezin ikusten nuen orduan nire zoriona. Izan ere Manon ez-titasun eta fintasuna berbera zen. Hain hartzen nuen nireganako ardura xamurrik ezen aurreko nahigabe guztietarik sendaturik ikusten bainuen nire burua. Baginen ordurako jakitunago horregatik gure diru-ondasunen sendotasunaz deliberatu genuen.

Hirurogei mila libra geneuzkan. Horra gure altxorra, ezin noski pentsa beraz bizi guztirako iraun zezakeenik. Edozein modutan ez geunden gure zorroa gehiegi lotzeko prest. Ez zen ekono-

mia Manonen lehenengo bertutea, nirea ez zen bezala. Hona zer proposatu nion:

— Hirurogei mila frankok hamar urtez iraun diezagukete. Chaillot-en bizitzen jarraituz, bi mila ezkutu nahikoa izango dugu urtero. Oneski eta xume bizitzen noski. Gure eralgi bakarra kotxea eta ikuskizunak izango dira. Konponduko gara. Opera atsegin duzula? Astean berritan joango gara. Jokorako ere moldatuko gara. Ez dugu inoiz bi pistola baino gehiago galduko. Guztiz ezinezkoa da hamar urteren buruan gure familian aldaketarik ez izatea. Aita urteetan aurrera doa. Hil daiteke. Orduan nire garaia izango da. Oraingo kezkek ahaztuko ditugu.

Plangintza hura ez zatekeen nire biziko ekin-tzarik eroena izarien, baldin eta berari hausturarik gabe zuhurki lotu izan bagintzaizkio. Baina gure erabakia ez zen hilabete baino askoz gehiago luzatu. Manonek bizimodu ona maite zuen. Nik bera. Noiznahi sortzen zitzaizkigun xahutze-ko bideak. Eta ni, hark inoiz esku-beteka erretzen diruagatik kexu izan ordez, aurrea hartzen nion nire ustez laket zitzaion guztia eskuratzen niolarik. Baina Chaillot-eko etxea bera ere ez

zitzaion jadanik laket. Neguarekin batera jendea hirirantz etorri ohi zen inguruko herrixkak hutsik utziz. Berak ere Parisen etxea hartzea proposatu zidan. Ez nion onartu. Baina zerbaitetan amore emateagatik esan nion gela jantzi bat aloka genezakeela non gaua pasatu baikenezakeen astean zenbait aldiz izaten ziren bileretatik berandu ateratzen ginenerako. Horixe baitzen haren aitzakia Chaillot uzteko, alegia hain berandu itzuli beharraren deserosotasuna. Horrela bada bi etxe-bizitza genituen, bata hirian bestea herrixka hartan. Aldaketa hark arrin eta arras nahaspilatu zituen gure arazoak, gure hondamendia bultzatuko zuten bentura biri atea irekiz.

Bazuen Manonek neba bat zaintze-guardia zena. Tamalez guretzat, Parisen alokatua aurkitzen zen gure kalean bertan. Goiz batez arreba leihoan ikusi zuelarik, berehala igo zen gurera. Gizon trauskil, ohorea zer zen ezagutzen ez zuena, gure gelara sartu bezain laster birao ezin itsusiagoak jaurtiki zituen. Bere arrebaren benturen zati bat ezagutzen zuenez, irain eta destaina, errukirik gabe aritu zitzaion. Ni unetxo bat lehenago aterea nintzen, bere edo nire zorione-

rako. Ez bainintzen bestela haren irainik jasateko. Berak alde egin ondoren itzuli nintzen etxera. Manonen tristurak zerbait latzik gertatu zela adierazi zidan. Nozitu berri zuen gertakari laido-garri hartaz mintzatu zitzaidan bere nebaren mehatxu ohilak tarteko. Hain ninduen kontatera hark sumindu ezen haren ondotik aterako bainintzatekeen korrika berehala mendeku bila Manonek geratu izan ez banindu bere malkoekin. Gertakari hartaz ari ginela, goardia hura itzuli egin zen, eta inolako abisurik eman gabe gure gelara sartu. Ez nukeen ez gizalegez hartu izango, ezagutu izan banu; baina elkarri agur egin ondoren irribarretsu, barkamena eskatu zion Manoni izan zuen jokabideagatik: uste izan omen zuen neska zabar itxuran bizi zela. Horrek biztu zuela alegia bere ernegua, baina gure morroietako batek nitaz gauza on asko kontatu ziolarik, gurekin harreman jatorrak izateko gogoia sortu zitzaiola. Nire sehietako batek emaniko argibide hark bitxi eta estrainio kutsurik bazuen ere, oneski jaso nuen haren konplimendua. Horrela Manonek atsegin hartuko zuela uste bainuen. Hain irudi zuen pozik bere neba

adiskidetzen ikustez! Gurekin bazkaltzera gonbidatu genuen. Laster hartu zuen bere burua etxekotzat eta gure Chaillot-erako itzuleraz aditu zuelarik, gurekin etorri nahi izan zuen. Gure kotxean tokia utzi behar izan genion. Leku-jabetze bat izan zen hura, pozarren sentitu baitzen gure artean, hain azkar non gure etxea berea bihurtu baitzuen, gure gauza guztien nagusi egiten zelarik nolabait. Anaia deitzen ninduen, eta anaitasunezko askatasunaren aitzakiaz bere lagun guztiak gure Chaillot-eko etxera ekartzeko ohitura hartu zuen, gure lepo bapo gonbidatzen zituelarik. Dotore janzten hasi zen gure kontura. Areago oraindik bere zor guztiak ordain erazi zizkigun. Tirania garbi haren aurrean, begi itxi egiten nuen Manoni atsekaberik ez emateko.

Ohartzen nintzen bestalde aldian-aldian dirukopuru dezentea ateratzen ziola bere arrebari. Haren alde esan behar, jokalari amorratua izanik, diruren bat itzuri ohi ziola, adur ona izaten zuenean. Baina eralgipen handiegiak ziren gure ondare txit arruntarentzat. Behin berarekin hitz egitear nengoela bere nabarmenkeriak zirela eta, istripu zoritxarreko batek kezka hartatik

itzuri egin ninduen hondamendian leizeratuko gintuen beste bat erakarriz.

Sarritan bezala, Parisen geratu ginen behin bertan lo egiteko asmoz. Horrelakoetan bera bakarrik Chaillot-en geratzen zen neskamea, biharamun goizean etorri zitzaidan esatera, gauetz etxea sutan hasi zela, eta oso zaila gertatu zela sua itzaltzea. Gure altzariak kalterik izan zuten galdegin nionean, haren erantzuna izan zen nahasmendu izugarria gertatu zela kanpoko asko igo zelako sorostera. Berak ez zezakeela bada ezer segurta. Kutxa txiki batean gorderik geneukan gure diruaren oroitzapenak ikara betean jarri ninduen. Chaillot-era jo genuen azkar. Alferrikako ardura! Han ez zen kutxarik!

Orduantxe sentitu nuen dirua maite daitekeela zekena izan gabe. Galera hark hain ninduen gogor astindu, ezen burua galdu behar nuela sumatu bainuen. Berehala konturatu nintzen zer nolako zoritxar berriren arriskupean aurki nintekeen. Behar gorria zen hala ere txikiena. Ezagutzen nuen Manon. Ongi baino hobeto nekien jakin, patua gure alde genuenean zein leial eta fidel izaten nuen, baina miseria garaian

ez zen inola ere horrelakorik gertatzen. Oparotasuna eta plazerak gustagarriegi zituen ni haien ordez jartzeko.

«Galdu eginen duk —nioen nire artean—. Galdu, zaldun zorigaitzokoa! Orain ere maite duan guztia galdu behar duk.»

Pentsamendu hark hain ninduen gogor astindu, zenbait minutuz nire burua hiltzeko gogoia etorri baitzitzaidan nire gaitz guztiei amaiera emanaz. Hala ere oraindik nire baitan gorderik neraman zuhurtasun apurrak ea aurrenik baliabideren bat lor nezakeen aztertzeraz bultzatzen ninduen. Goiko Zeruak nire etsipena geldiaraziko zuen ideia sortarazi zidan. Uste izan nuen galera hura Manoni ezkutatzea ez zitzaidala ezinezko izango, eta amarruz edo menturaz mantendu ahal izango nuela zintzoki estutasunik senti ez zezan. «Nire kalkuluen arabera —esaten nuen nirekiko—, hogeita mila ezkutu aski izango ditugu hamar urtetarako. Eman dezagun hamar urteok iraganik ez dela nire familian espero dudana inolako aldaketarik eman. Zer egin orduan? Nora jo? Ezin garbi esan, baina nork eragozten dit orduan egin nezakeenik egun ez egi-

tea? Zenbat eta zenbat pertsona ez ote dira bizi Parisen, nire jakinduria eta nire berezko liraintasunik gabe, eta hala ere bizi-mantenua beren berezko gaitasunei esker lortzen dutenik! Probi-dentziak —pentsatu nuen biziaren egoera desberdinez gogoeta egiten nuelarik, ez ote ditu gauzak era zuhur batez antolatu? Handikiak eta aberatsak inozoak izan ohi dira. Mundua pittinen bat ezagutzen duenak ondotxo daki hori. Horratxuzentasun zoragarria. Jakinduria aberastasunari erantsiko baliote, zoriontsuegi izango lirateke eta gainerako gizakiak miserableegiak. Azken hauei gorputz-arimetako tasunak ematen zaizkie miseria eta pobreziatik itzur egin dezaten. Batzuek handikien ondasunetan hartzen dute esku berauen plazeretan era maltzurrez zerbitzatzuz; bestetzuk beraien hezkuntzan ari dira jende zentzuzko bilaka daitezen, arrakasta egiantan esateko oso bakan lortzen dutelarik. Baina hori ez da jainko-zuhurtziaren helburua. Beren ardurei etekina ateratzen diote beti, hots: hezten dituztenen kontura bizi ohi dira; beraz edozein ikuspegitatik begiraturik ere aberats eta handi-



kien inozokeria irabazpide bikaina da jende xumearentzat.

Burutapen hauek bihotz-buruak lasaitu zizkidaten. Aurrenik Lescaut jauna Manonen neba kontsultatzea erabaki nuen. Oso ongi ezagutzen zuen Paris. Hainbat aldiz izan bainuen aukera jakiteko, bere diru-iturririk handiena ez zetorkiola ondasun propioetik ez eta soldatatik. Patrikan nire zorionerako aurkitu nituen hogeit hamar pistola baino ez neuzkan. Nire zoritxar eta zalantzak ezagutarazten nizkion bitartean nire zorroa erakutsi nion. Galdetu nion ea ba ote nuen gosez hiltzea eta etsipenez burua harri baten kontra apurtzearen artean aukerarik. Ihardetsi zidan norbere burua hiltzea txepelen irtenbidea zela: gosez hiltzeagatik berriz gehitu zuen, jakinduria handiko jende anitz bazela mutur horretaraino eroria, bere adimenaz baliatzen asmatzen ez zuelako. Niri zegokidala noraino heltzeko gai nintzen aztertzea. Nire ekinbide guztietan bere laguntza eta aholkuak segurtatzen zizkidala.

— Gauza arras lainotsua dirudi horrek Lescaut jauna —erantzun nion— Nire premiak sen-

dagai azkarragoa behar du, zeren zer esango diot bestela Manoni?

— Bada, Manon aipatu duzularik —hartu zuen berriz hitza—, zerk kezkatzen zaitu harengan? Ez al duzu beti ere berarengan zure larritasunak amaitzeko biderik onena? Pentsa, horrelako neska batek biok —zu eta ni— manten gaitzake.

Hitz desegoki haiek merezi zuten erantzuna eten egin zidan jarraitzen zuelarik esaten iluntzerako mila ezkutu bion artean banatzea bermatzen zidala bere aholkuari jarraitzekotan. Ezagutzen omen zuen plazeren munduan gizaseme bat hain eskuzabala zeini mila ezkutu ez baitzitzaien deus irudituko Manon bezalako neska baten begikoa lortzeagatik.

Moztu egin nion hitza: —Zutaz iritzi hoberik nuen, uste bainuen eskaini zenidan adiskidetasuna orain azaltzen ari ez zaren irizpidearen guttiz bestelakoa zela.

Baina berak oster a aitortu zidan maltzurki, beti pentsaera bera izan ohi zuela, bai eta bere arrebak bere sexu-legeak bortxatu zituelarik behin —maiteen zuen gizonarekin izan bazen

ere—, berarekin adiskidetu zela, beraren portae-  
ra txarretik etekinik ateratzeko esperantzan.

Arin ohartu nintzen ordura arte beraren ama-  
rrupean egon ginela. Bere eleek sortarazi zida-  
ten suminagatik ere, bere menpean nengoenez,  
erantzun beharrean jarri ninduen esaten niolarik  
irribarrez bere aholkua azken bitarteko eta ezin-  
bestean erabili beharrekoa izango nuela. Beste  
bideren bat ireki ziezadan erregutu nion. Nire  
gaztetasunaz baliatzeko proposatu zidan, alegia  
naturak eskaini zidan itxura ederraz emakume  
adineko eta emankor batekin harremanetan  
ipintzeko. Ez. Jokabide hark ere ez ninduen ase-  
tzen, ez bainintzaion Manoni fidel izango.

Jokoa aipatu nion, nire iduriko nire egoerari  
hobekien eta errazen zetorkion bidea izanik. Bai,  
horrela zela, jokoa baliabide zitekeela baina  
aurrez argitu beharreko gauza zela. Izan ere  
jokoari besterik gabe kateatzea ohizko etekinik  
ateratzeko asmoz, nire hondamendiari azken  
gezia sartzea omen zen.

Norbera bakarrik eta laguntzarik gabe jard-  
teak, hots, gizon trebeek beren ondarea ildora-  
tzeko erabili ohi dituzten bidexka horiek ezagutu

gabe, lantegi arriskutsuegia zatekeela. Bazela bada, hirugarren bat elkartzeara alegia, baina beldur zela elkarkideek gazteegizat ez ote ninduten joko, eta bidenabar elkartean sartzeko beharrezko ziren tasunen jabe oraindik ez nintzela jabe iritziko. Edozein modutan bere eragina agindu zidan haien baitan, bai eta —eta hau ez nuen berarengandik espero— dirua premia gorriak itotzen ninduenerako.

Zertzelada haien berri ez eta nire galeraz ez ziezaiola Manoni deus kontatu. Horixe izan zen eskatu nion mesede bakarra.

Etxe hartatik irten nintzenean lauso handiago nuen begien aurrean. Damutu ere damutu nintzen nire sekretua aitortu niolako. Izan ere ez zuen fitsik ere nire alde egin, neure kasa berdin-berdin lortuko ez nukeen gauzarik behintzat. Izutu egin nintzen bestalde pentsatuz Manoni guztia kontatuko ziola, eman zidan promesa hautsiz. Hala ere haren ideien adierazpenetik sumatu nuen ez zuela Manon nire besoetatik erauzteko asmorik —bere esamoldeetan adieraziz— edo behintzat ez ziola nigandik alde eta beste amorante aberats eta zoriontsuago bati

uztartzeko aholkatuko. Guzti hartaz nire burua asaldatzea eta goizean nozitu nuen etsipena berritzea baino lortu ez zuten mila eta bat gogo-eta erabili nuen. Hainbat aldiz aitari idaztea deliberatu ohi nuen, ostera ere konbertitze berribaten itxura eginez, ea diru-laguntzaren bat erdiesten nuen; baina bat batean gogoratu nintzen hura ontasun handiko gizasemea izan arren, sei hilabetez hertsirik gorde ninduela nire lehenengo erruagatik. Txit seguru nengoen bestalde, nire St. Sulpice-tiko ihesaren ondoren sortuko nuen harrabotsaren ondotik askoz gogorrago hartuko ninduela. Burutapen nahaspila hark nire barnera barealdia ekarri zuen beste bat sortu zuen. Eta nola ez nintzen hartaz lehenago oroitu oso ninduen harritu. Tiberge adiskidea nuen buruan. Berarengana joko nuen bada. Ziur bainintzen betiko adiskidetasun eta atxikimenduzko oinarria aurkituko nuela. Ez da ezer miresgarriagorik, eta ez dio bertuteari ohore handiagorik ematen beren prestutasunagatik ongi eza-gunak ditugun pertsonengana hurbiltzeko izaten dugun konfiantza baino. Inolako arriskurik aurkituko ez dugunaren zirrara datorkigu; laguntza

emateko egoeran ez badaude ere, seguru gaude haiengandik onginaia eta urrikaltasuna lortuko ditugula. Gainerako gizakiengan hain arretatsu hertsia ohi den bihotza, beraien aurrean ostera berez zabaldu ohi da, eguzki errainuen epel goxoa espero duen lilia bezala. Jainko-babesaren ondoriotzat jo nuen Tibergez oroitzea. Horregatik eguna amaitu orduko bera ikusteko bideak bilatzeari ekin nion. Etxera itzuli nintzen berehala berari idazteko elkarrizketarako leku aproposa adierazten niolarik. Isiltasuna eta zuhurtasuna eskatzen nion, nire arazoak aurkitzen ziren kinkan laguntza ezin handiagoak iruditzen baitzitzaizkidan. Bera ikusteko itxaropenak ematen zidan pozak, Manonek bestela nire begitartean aski ongi nabarituko zituzkeen nire saminaren arrastoak ezabatu zituen. Manoni bada, gure Chaillot-eko ezbeharrak edozein huskeriari ematen zaion garrantzia eskainiz, inolaz ere larritu ez zezakeen eran hitz egin nion. Paris bera pozak txoratzen sentitzen zen lekua izanik, ez zion muzin egin han bertan gelditzeari harik eta Chaillot-en sure txikiaren ondorioak konpon zitezen arte. Ordubete gero, Tibergeren erantzuna jaso

nuen, aipatu nion lekura etorriko zenaren agin-  
duaz. Artegaturik abiatu nintzen bertara. Banuen  
hala ere lotsa apur bat nire nondik norakoenga-  
tik errieta baino jaso ez nezakeen lagun baten  
aurrera agertze soilagatik. Baina bere bihotz-  
ontasunak eta Manonenganako nuen xerak nire  
ahuldadea menperatu zuten. Palais-Royal-eko  
lorategira biltzeko esana nion. Eta bertan zen ni  
baino aitzin. Besarkatzera aurreratu zitzaidan  
ikusitako orduko. Luze estutu ninduen bere besoen  
artean. Istant hartan nire aurpegia malkoz bete-  
rik sentitu nuen. Adierazi nion burua nahasturik  
agertzen nintzaiola, bihotz barreanean nire esker-  
txarraren damu bizia neramalarik, eta arren eta  
arren eskatzen niola, esateko otoi, laguntzat jo  
behar ote nuen oraindik, hain zuzen bere esti-  
mia eta oniritzia galtzea merezi izan bainuen  
arrazoi osoz. Tonurik kutunenaz ezerk ez zuela  
eskubide horretatik baztertuko aitortu zidan.  
Nire atsekabeek oro bai eta ondokoa kanpora-  
tzen uzten banion, hots: nire akats eta nasaike-  
riek alegia, bere nireganako xera gehitu egin  
zutela; baina saminik bizienaz nahasturik zetor-  
kiola, hain zuzen maite den pertsona bere gale-

raren leizerantz amildurik ikustean sentitzen dena. Banku batetan jesarri ginen. —Ai! —esan nion bihotzaren erditik irtendako hasperenez—. Zure errukiak izugarria behar du Tiberge maitea nire oinazeen bezainbestekoa dela badiostazu. Ahalke nauzu beroien adierazteko, aitortu behar baitut beroiek sortu arrazoia ez dela oso loriosa. Baina hain duzu beraien eragina tristea, ezen ez delarik beharrezko zuk maite nauzun bezainbat maitatzea hunkitua sentitzeko. Nire St. Sulpiceko irteera ondotiko zertzelada guztiak gezurrik gabe konta niezazkion eskatu zidan, adiskidetasun froga bezala. Horrelaxe egin nuen. Eta egia-  
ren saihestea inondik ere pentsatu ez nuelarik, nire maite-grinaren berri eman nion, horrek nire baitan sortzen zuen indar guztiaz. Niri gertatutakoari patuaren halabeharrak ekarritako kolpe iritzi nion, ni bezalako miserable bati itsatsia, bera-  
ren aurka bertuteak deus gutxi zezakeelarik, ez eta zuhurtasunak aurreikus. Nire kezka eta bel-  
durren azalpen gordina egin nion. Bai eta bera ikusi aurretiko bi ordu lehenago astindu ninduen etsipen zartadaz, zeinetan eroriko bainintzen berriro patuak bezain doilorki lagunek ere baz-



tertzen baninduten; hitz batez esateko hain  
nuen hunkitu Tiberge jatorra non bera bere alde-  
tik errukiz beterik ikusi bainuen, ni nire pairakun-  
tzaz nintzen bezainbeste. Ez zen ni besarkatzen  
eta kuraia eta kontsolamendua izan nezan erre-  
gutzen nekatzen. Baina bere iritziz beti ere  
Manonengandik banatu beharra izango nuenez,  
adierazi nahi izan nion banaketa hari berari nire  
zorigaitzik handiena irizten niola, gehitzen nue-  
larik ez bakarrik miseriaren azken astindu borti-  
tza jasateko prest ninduela, baizik eta heriorik  
ankerrena ere, nire gaitz guztiak batera baino  
jasangaitzago izan zitekeen sendagaia hartu  
aurretik. —Argi iezadazu arren orduan —esan  
zidan, zer nolako laguntza-mota emateko gai  
nauzun zuk zeuk nire eskaintza guztiei uko egi-  
ten badiezu. Ez nintzen ausartzen esaten, bere  
diru-zorroaren beharra nuela. Azkenean baina  
ulertu zuen, eta aitortzen zidalarik konprenitzen  
ninduela une batez pentsakor gelditu zen, zalan-  
tza bizi duen pertsonaren tankeran. —Ez pentsa  
—jarraitu zuen laster batera—, nire hausnarketa  
adiskidetasun epeltze baten ondorioa denik.  
Baina zer nolako mugarria jartzen didazun!

Onartu nahi duzun laguntza bakarrari uko egin behar al diot, ala ostera nire eginbeharra urratu eskatzen didazuna ematen badizut? Zeren ez al da guzti hau zure nasaikerietan esku hartzea beroietan jarrai dezazun iraun erazten lagunduaz? Edozer delarik ere, jarraitu zuen gogoeta laburraren ondotik, iruditzen zait agian txirotasunak erakarritako itsumenak ez dizula askatasunik aski uzten norabiderik hoberena aurkitzen. Egoera lasaia behar da zuhurtasuna eta egia dastatu ahal izateko. Bidea aurkituko dut dirurik izan dezazun. Zilegi bekit baina zaldun bihotzekoa —gehitu zuen besarkatzen ninduela— baldintza bakarra baino ez ipintzea: alegia, zure etxeko helbidea eman diezadazula onartu behar izango duzularik nire ahaleginak burutu ditzadan bertutearen esparrura ekar zaitzadan, bai baitakit berori maite duzula, zure grinen oldarrak urrutiratzen bazaitu ere. Eskatzen zidan guztiari amore eman nion leialki nire aldetik erregutzen niolarik nire patuaren ankerkeriaz erruki zedin lagun jatorraren aholkuei hain etekin eskasa ateratzera bultzatzen baininduten. Aldean dirurik ez zeramanez, ezagun zuen banka-gizon baten

etxera gidatu ninduen, zeinek beraren bermepean ehun pistolaren mailegua egin baitzidan. Esana dut nire laguna ez zela aberatsa. Bere errentak mila ezkutu zemaizkion; baina jasotzen zuen lehenengo urtea izanik, ez zuen oraindik ezer bereganaturik; beraz mailegu hura etorri behar zitzaionaren aurrerapen bat baino ez zen. Bere eskuzabaltasunaren handitasunak arras hunkitu ninduen. Nire betebeharrak guztiak bortxatzeraino ninderaman maitasunaren itsukeria deitoratzeraino. Aldi batez bertuteak aski indar izan zuen nire bihotzean pasioaren gaintetik altxatze-ko, orduantxe —argialdi hartan konturatu nintzen zein lotsa eta duintasunik eza zerien nire kateei. Ai baina! Gatazka hura arina izan zen. Ez zuen luze iraun. Manonen ikusteak berak zerutik bertatik amilduko nindukeen. Horregatik harritu egin nintzen, beraren ondoan berriro aurkitzean, hain xarmangarri zen harenganako maitasun egiazkoari lotsagarri iritzi izateagatik. Manon aiurri izugarriko izakia zen. Ez da inoiz diruari berak baino lotura gutxiagorik daukan emakumerik ezagutu. Baina ez zen lasai egoten hura faltako zitzaionaren beldurrarekin. Plazera eta

dibertitzea beharrezkoak zituen. Ez zion sos bat bera ere irabaztea ardura, dirurik gabe dibertitzea ahal izaten bazuen. Eguna ongi pasatu, hori zuen goiburu, ez zuen bada gure ondarearen egoera nolakoa zen jakiteko galdetu ere egiten. Gauzak horrela oso jokozale ez izanik eta xahutze nabarmenek ere distira handirik egiten ez ziotenez, ez zen zaila bilakatzen beraren asebetetzeko egunero bere gogozko olgetak antolatztea. Baina hain zuen plazeraren premia ezinbestekoa, ezen ez zegoela deus egiterik hori gabe bere umore eta aiharren poza lortzeko. Sutsuki maite baninduen ere, ni neu bakarrik nintzelarik berak aitortzen zidanez amodioaren gozamenez erabat asetzen zuena, ia ziur nintzen bere xarmantasunak ez ziela nire zenbait beldurri eutsiko. Munduko beste edonor baino ni nahiago izango nindukeen nire hala-moduzko patuarekin ere, baina ez nuen inolako zalantzarik beste B... berri batengatik abandonatuko ninduenarena, nik berari jarraikortasun eta fidelitasunezko fardel arina baizik eskaintzea izango nuen garaian. Guzti hori zela eta, nire gastu propioa ongi neurtu beharrean aurkitu nintzen beti

ere bere premiak hornitzeko prest izanik, ni ostera beharrezko nituen makina bat gauza baztertuz, berari berriz gauzarik ilaunena ere ukatu gabe. Zalgurdiak enparauzkoak baino gehiago kezkatzen ninduen ez bainuen zaldiak eta zaltzaina mantentzeko ahalbiderik ikusten. Nire larrialdia Lescaut jaunari jakin erazi nion. Ez nion bestalde isildu lagun batengandik ehun pistola jasoak nituenik. Berriro ere esan zidan, jokoaren mundura hurbildu nahi banuen, uste zuela alegia ehun frankoren truke elkarkideak erostea erdiets ziezadakeela, horrela elkartean sar ahal nendin. Iruzurrak nazka ematen bazidan ere, premia gorriak bentzutu egin ninduen. Lescaut jaunak gau hartan bertan bere ahaide bezala aurkeztu ninduen. Adu hoberenaren beharrean nengoenez orduan eta gertatuago aurkitzen omen nintzen arrakasta izateko. Hala ere gizon haiei nirea ez zela gizaseme ezdeus baten miseria sinestartzeko, esan zien beraiek afaltzera gonbidatzeko asmoa nuela. Eskaintza onartua izan zen. Ezin bikainago hartu nituen. Luze mintzatu ziren nire jentiltasun eta gaitasun handiez. Nigandik gauza anitz espero zitekeela, zeren gizaseme jatorra-

ren itxura nuelarik, ez omen zen inor nire jukutriez konturatuko. Azkenik Lescaut jaunari eskerak eman zizkioten, elkartera hain nobizio balio-tsua erakartzeagatik. Erabaki zuten halaber beraietako zaldun batek zenbait egunetan zehar premiazko argibideak emango zizkidala. Nire balentrien abiapuntua Transilvania hotela izango zen, non jokorako mahai berezi bat baitzegoen, bai eta zenbait dado eta karta-joko korridorean. Elkarte hura garai hartan Clagny-n bizi zen Rko printzearen onuretan aritzen zen, bertako ofiziale gehienak gure elkarteko kideak zirelarik. Esateak ere lotsa ematen dit, baina azkar aprobe txatu nituen nire maisuaren irakaspenak. Trebetasun izugarria lortu nuen batez ere, bueltaerdia egiten, kartak desagerrarazten. Maukare luzearen laguntza ezin estimagarriagoa nuelarik, abilenen begiak nahastu eta jokalaria ondratu askoren hondamendia lasai asko ekarritz. Trebetasun hark bada, nire ondasuna metatu zuen azkar, ezen aste gutxiren buruan dirukopuru ederraren jabe egin baininduen, nire elkarkideekin batera lege onez banatu genituenak kontatu gabe. Ez nuen engoitik Manoni gure

Chaillot-eko galeraren berri emateko beldurrik izan, eta berri penagarri haren ematearekin batera, etxe jantzi bat alokatu nuen non oparo eta dotore bizitzen hasi baikin. Ez zuen Tibergek aldi guzti hartan ikustaldi ugari egitea ahaztu. Haren moral-irakaspenak ez zuen agorbiderik. Berriro eta etengabe nire kontzientzia, ohore eta ondasunari egiten nien kaltea errepikatzen zidan. Irizpide haiek adiskidetasunez jaso nituen. Izan ere, nahiz eta beraiei jarraitzeko ezein pentsamendurik ez izan bere ardura eskertzen nion, haren jatorria ezagutzen bainuen. Inoiz zirikatu egiten nuen Manon aurrean nuelarik erregutzen niolarik hainbat apezpiku eta apaiz baino xuhurrago izan ez zedin, gai baitira hauetako asko amorantea eta eliza-eginkizunak oso ongi uztartzen. —Ikus —esaten nion nire kutunaren begiak erakutsiz—, eta esan ez ote den honen helburu ederrik justifika ez dezakeen errurik. Handia zuen egonarria. Baina urrutiegi ere bultzatu zuen. Hala ere nabaritu zuenean nire irabaziak hanpatuz zihoazela bere ehun pistola itzuli ez ezik, etxe berri bat alokatu eta gastuak bikoiztu egiten nituela, oraindik areago plazeren mun-

duan murgiltzera nindoala berriro, tonu eta jokaerak aldatu zituen. Nire egoskortasuna deitoratu eta zeruko zigorrarekin mehatxatu ninduen, laster iritsiko zitzaidan hainbat zoritxar iragarriz. —Ezinezkoa da —esan zidan—, zure nasaikerien mantenurako darabiltzazun irabaziak legezko bideetatik datozenik sinestea. Zuzengabekeriaz zureganatu dituzu. Era berdinez erauziak izango zaizkizu. Jainko-zigorrik izugarriena beraien gozamenean trankil jarrai dezazun litzateke. Zertarako izan ote dituzu nire aholku guztiak! Beldur naiz laster desegoki ere ez ote zaizkizun irudituko. Agur lagun herbal eta eskertxarrekoa! Ailitez zure plazer doilorrak itzailaren antzo aiena! Ailitez zure adur ona eta diruok itzulbiderik gabe gal! Eta zuk bakarrik eta biluzik oso erotu izan zaituzten ondasunen hutsalkeria senti dezazula! Une horretan bai, zu maitatzeko eta zerbitzatzeko prest izango nauzu; baina gaur eta orain zurekin dudan harreman oro eten egiten dut eraman izan duzun bizia gaitzesten dudalarik. Nire gelan bertan Manon aurrean genuela, egotzi zidan hitzaldi elizkoi hura. Zutitu eta alde egitera zihoala ikusirik



geratu nahi izan nuen, baina Manonek joaten uzteko esan zidan zoraturik zegoela adieraziz. Baina haren hitzaldiak utzi zuen bai lorratzik nigan. Nire bihotzak zintzotasuneranzko itzulaldiak sentitu zituen aldarteak gogoratu nahi ditut zeren honelako oroitzapenei zor baitiet nire sendotasunaren zati bat nire bizitzako zertzeladarik beltzenen garaian. Manonen laztanek instant batean desagerrarazi zuten enkontru hark eragin zidan tristura. Plazer eta amodioz osaturiko bizitza egiten jarraitu genuen. Gure ondasunen gehikuntzak biderkatu egin zuen gure maitasuna. Venus eta Patuak ez zuketean jopu zoriontsu eta kutunagorik ezagutu izango. O Jainko Jauna! Zergatik adierazi mundua, miseria lekua denik bertan gozamen hain atsegini dasta daitekeen! Baina ai alajaina! Tamalez bere berezkoa dute azkar iraungi beharra. Zein bestelako zorionaren bila gindoazke gure hauek iraupen betierekoa balute? Gureek bada ohizko zoria ezagutu zuten: iraupenez labur eta damu aldetik garratz. Jokoan hain etekin handiak lortu nituelarik nire diruaren zati bat nonbaiten ezartzea bururatu zitzaidan. Nire morroiak nire arrakastaren jakina-

ren gainean zeuden, batez ere nire sehiak eta Manonen neskameak, zeinen aurrean maiz elekatzen baikinena lasai asko. Aipatu neskamea polita zen, nire sehia berriz maitemindurik zebil-kion. Ugazaba gazte eta jasanberen zerbitzari zirenez, begitandu zitzaizkien haiek aise engaina zitzaketela. Helburu horren bila joan ziren, eta gure kaltetan gorpuztu zuten inoiz ezin atera izan ginen kinka larrian jartzen gintuztelarik. Lescaut jaunaren baitan afaldu genuen egun batean gau erdi-inguruan itzuli ginen etxera. Nik nire sehia deitu nuen, Manon-ek bere neskamea, ez bata ez bestea han ez zen inor agertzen. Esan ziguten zortzietatik ez zituztela etxean ikusi, zenbait kutxa garraiatzeko agindua emana zutelarik irten omen ziren, nigandik jaso omen zuten mandatuei jarraituz. Egiaren alderdi bat hautesman banuen ere, urrun ziren nire susmoak gelan sartzean ikusi nuenaz alderatzeko. Nire idaztegi-ko sarraila derrigortua eta dirua eta jantziak eramanak izan ziren. Guzti hartaz gogoeta egiten ari nintzela bakarrik, Manon hurbildu zitzaidan izu-ikaran bere gelan harrapaketa berdintsua egin zutela esanez. Hain latza iruditu zitzaidan

zartada hura, ezen nire zentzuei ahalegin izugarria eskatu behar izan bainien zotin eta negarrei eusteko. Nire etsialdia Manoni kutsatzeko beldurraren beldurrez aurpegi patxadatsua agertzeko itxura egin nuen. Esan nion txantxetan, aurkituko nuela nire mendekua norengana egotzi Transilvania hotelean.

Hala ere gure nahigabearen aurrean hain sentibera iruditu zitzaidan, non bere tristurak ni neu goibeltzeko indar handiagoa izan baitzuen, nire itxurazko pozak bera bere eroralditik jasotzeko izan zuena baino.

— Galduak gara. —esan zidan begiak bete malko—. Nire ferekek kontsolatu nahi izan zuten. Baina alperrik. Nire malkoek berek ere ez al zuten nire etsipen eta hondamendia azaltzen? Alkandora bat bera ere ez zitzaigun geratzen. Hain zen egundokoa gure suntsipena!

Berehala norbait Lescaut jaunaren bila bidaltzea erabaki nuen. Polizia buruarengana bai eta Pariseko Probestuarengana jotzeko lehenbailehen aholkatu zidan. Eta egin banuen egin nuen. Guztia nire zoritxarrerako. Zeren bilaketa hark eta justizia funtzionario biri egin erazi nizkienek

ezer ez argituz landa Lescauti denbora eman baitzieten ni kanpoan nintzen bitartean bere arrebarekin hitz egin eta berarengan erabaki izugarri hura pizteko. Mko G. jaunaren gainean mintzatu zitzaion. Gizaseme, agure lizunkoi hura hobeto esateko, emankorra zen plazerak ordaintzen. Nebak, haren babesean jartzen bazen hainbat abantailez elekatu zion, non gure ezbeharraren ondoren lur jota zegoenez, proposatu zion guztia onartu zion. Itun ohorezko hura ni itzuli nintzenerako ebatzirik zuten, biharamunean mamitua izango zelarik, Lescautek Mko G. jaunari gaztigatu ondoren.

Zain nuen etxean nire maitearen neba. Baina Manon osterara oheratua zen jadanik, bere lakaioari agindu ondoren niri adierazteko alegia, atsedeen premia zuela eta gau hartan utzi nezala bakarrik bere gelan. Lescautek bere aldetik alde egin zuen onartu egin nizekion zenbait pistola eskaini eta gero. Laurak izango ziren oheratu nintzenean. Nire ondasuna nola berreskura burua nekatzen aritu nintzelarik, hain ninduen berandu loak hartu, eguerdira arte ez nintzela iratzarri. Goizaldean Manonen osasunaren berri

jakiteko jaiki nintzen; baina ordubete lehenago bere bila etorri zen zalgurdi alokatu batean alde egina zela bere nebarekin esan zidaten.

Horrelako irteera Lescautekin arraro xamarra iruditu bazitzaidan ere, ez nintzen aiher izan nahi. Horregatik nire susmoak ezabatu egin nituen. Gauzak horrela zenbait ordu pasatzen utzi nuen anartean irakurtzen jardun nuelarik. Baina geroxeago nire egonezinak astindurik, etxea gelarik gela zeharkatu nuen arin-arin. Manonenean gutun zigiludun bat ikusi nuen mahai gainean. Niri zuzendua eta berak idatzia zen. Hotzikara larriz zabaldu nuen. Ondoko hitzek betetzen zuten hura: —Zin egiten dizut, zaldun maitea, zeu zaitudala nire bihotzaren idoloa. Ez dezakedala nik maite dudan indarrez beste inor zeu baizik maita. Baina ez al duzu ikusten nire barreneko kuttun horrek nozitzen ari garen egoera larri honetan, fidelitasuna bertute inozoa dela? Ala uste al duzu benetan badela amodiozko grinarik ahora eramateko ogirik gabe? Goseak itzulezinezko atakara garamatzake. Egunen batetan ziur izan nire azken hasperena maitasunezkoa izango da. Adoratzen zaitut.

Otoi, ez izan zalantzarik; utzi baina faborez aldi batez nire esku gure ondasunaren gobernua. Madarikatua zinez nire sarean trabatuko dena. Nire zalduna aberats eta zoriontsu bilaka dadin ari naiz lanean. Nire nebak zure Manonen berri emanen dizu bai eta nolako negar-zotina sortarazi dion zuregandik alde egin beharrak.

Irakurketa haren ostetik azaltzea txit nekeza zaidan kinkak astindu ninduen. Gaur egun ere oraindik ez baitakit zer nolako sentimendu motak inarrosi ninduen orduan. Inoiz antzerakorik sentitu izan ez duzun bakan horietakoa zen: besteei argitu ezin izango geniekeen horietakoa; ez baitute hartaz ideiarik ere; norberari ere zail egiten zaiolarik haien ulertzea, bakarrak izanik ez baitzaie ezeri ere lotzen gure oroimenean, ezin ditugularik bada sentimendu ezagun batekin konparatu. Hala ere nire sentimenduen jatorria edonondikoa izanik ere, garbi zegoen bertan, oinazea, sumindura, jelsia eta ahalkea barne zirela. Zoriontsua ni, maitasuna bera ere han barruan izan ez bazen!

Maite nau, sinetsi nahi dut —nioen nire baitan— baina ez ote munstroa izan behar ni gorro-

tatzeko? Ba ote luke norbaitek bihotz batengan  
nik harenean behar nukeen hainbat eskubide?  
Zer gehiago dezaket beragatik? Den-dena nai-  
zen guztia eskaini izan diot. Eta hala ere utzi  
egin nau. Eta eskertzarreko horrek uste du nire  
erdeinuetatik aske gelditzen dela ni maitatzen  
jarraitzen duela esatearekin. Izu dio goseari. Ai  
Jainko ahalguztiduna! Zeinen sentimendu arrun-  
tak! Zein gaizki erantzuten dioten nire fintasuna-  
ri! Ez naute ni ostera izutu berariaz lazeriaren  
menpean egon naizen hau! Beragatik bere onda-  
sunari eta aitaren etxeko erosotasunari uko egin  
dion hau! Gauzarik premiazkoenak ere saihestu  
behar izan ditudan honek, bere nahikundeak eta  
gutziarik ñimiñoenak ase zitzaizkion. Adoratzen  
nauela dio. Ai adoratuko baninduzu eskertzarre-  
ko horrek! Ongi dakit norengandik jasoko zeni-  
tuzkeen aholkuak; ez nindukezu abandonatuko  
agur ere esan gabe. Jo bezate niregana zer nola-  
ko samin doilorrik nozitzen den zorabiatzen zai-  
tuen pertsonarengandik banatzen zaituztenean  
ezagutu nahi dutenek. Galdua behar luke zen-  
tzua arrisku horietan harrapatua izateko nahita.

Nire erosta haiek espero ez nuen bisita batek eten zituen: Lescaut zen.

— Borrero madarikatua! —esan nion ezpata eskura ekarriz—. Non duzu Manon? Zer egin diozue?

Nire zirkinaldiak beldurtu egin zuen. Orduan berak erantzun zidan horrelako harrera egin behar banion kontutan izanik egin ziezadakeen mesederik handiena burutzera zetorrela, joan egingo zela eta ez zuela inoiz gehiago hankarik ipiniko nire etxean. Gelako aterantz jo nuen orduan eta hura ongi itxi eta gero berarengana buelta eman ez esan nion: —Ez pentsa berriro ere lelotzat hartuko nauzunik eta zure ipuinekin engainatuko. Itzul Manon edo gertu bestela zure bizia defendatzeko.

— Zeinen oldarkorra zaitugun! —ihardetsi zuen berak—. Ez dakart beste sujetik. Asma ez dezakezun berri bat dakarkizut zeure zorionerako. Berori entzunez, onartuko duzu baduzula agian nireganako zorrik.

Hitz haiek lehenbailehen argitzeko eskatu nion. Berak adierazitakoaren arabera. Manonek ezin zuelarik lazeriaren beldurraz iraun, eta



batez ere behingoan gure egoera aldatu zela bereganatu, eskuzabal ospea zuen Mko G. jaunaren ezagutza bidera ziezaiola eskatu omen zion. Ezkutatu egin zidan baina berak aholkatu eta halaber bidea erakutsi ziola.

— Harengana eraman dut gaur goizean — jarraitu zuen— eta gizaseme jator hura hain txunditurik gelditu da beraren izaeraz, ezen lehenengo bere landetxera gonbidatu baitu bertan zenbait egun igarotzera. Guzti hau zein onuragarri izan dakizukeen berehala ulertu dudan honek —gehitu zuen Lescautek—, ulertarazi diot abilki Manonek galera handiak izan dituela; eta hain dut beraren eskuzabaltasuna piztu behingotan berrehun pistolaren oparia egin diola. Gaur gaurkoz egoki iruditu zaidala esan diot, baina etorkizunean nire arrebak beharkizun izugarriak izango dituela erantsi, zeren gurasoen heriotzaren ondoren haur txikia zela gure bizkar gelditu zitzaigun neba gaztearen ardura berak hartu baitu, beraz Manoni bere xeraren duintasun irizten bazion, ez zuela bere erraien zati jotzen zuen haur gajoaren bidez sufritzerik utziko. Kontaera honek hunkitu egin du. Hitz eman dit eme eroso

bat alokatuko duela zuretzat eta Manonentzat; zu zeu baitzara neba umezurtza. Guztiz nasai kokatuko zaituela, hilero lauhun libraz hornituko; beraz nire kontuak ondo eginak badaude lau mila eta zortziehun urtean. Landetxera irten aurretik agindu dio bere administratzaileari etxe bat aurki eta prest izan dezala itzultzen denerako. Orduantxe ikusiko duzu berriro Manon. Mila laztan bidaltzen dizkizu. Inoiz baino maiteago zaituela esateko agindu dit.

Eseri egin nintzen nire egoera bitxi haren nondik norakoaz pentsatzen. Sentimenduen sakabanaketa batek dardaratzen ninduen, eta horregatik amaigaitza zen zalantzan, hainbat non luzaro egon bainintzen Lescautek luzatzen zidan galde-sail bati erantzunik eman gabe. Une hartan bertan ohoreak eta bertuteak damuaren ukituak sentiarazi zizkidaten. Begiak herri minez Amiens-erantz, aitaren etxerantz St. Sulpicerantz eta errugabetasunean bizi izan nintzen leku guztietarantz egotzi nituen. Bai izugarria egoera zoriontsu hartatik banatzen ninduen aldea! Urrutidanik baino ez nuen ikusten itzal bat bailitzan. Nire bihotzmin eta desirak oraindik

ere bereganatzen zituen itzala, baina ahulegia bestalde nire ahaleginak sustatzeko.

«Zer adur gaiztok —nioen nire artean— bilakatu ote nau horren eraile? Maitasuna, pasio errugabea izanik, nolaz aldatu ote da niregan lazeria eta nasaikeria iturri? Nork eragozten ote ninduen Manonen ondoan lasai eta bertutetsu bizitzen? Zergatik ez nuen bada esposatu bere maite-donaria lortu baino lehen? Hain biziki maite ninduen aitak ez ote zukeen baietsiko, legeak onarturiko eskaeren bidez bultzatu banu? Ai gure aitak herak ere alaba xarmangarritzat izango zukeen! Xera handia hartuko ziokeen. Bere semearen emaztea izateko duina oso. Zoriontsu nintzateke Manonen maitasunarekin, aitaren onginahiarekin, jende jatorraren oniritzia jasoz, patuaren onurekin eta bertuteak ematen duen lasaitasunarekin. Iraulketa beldurgarria! Nor da baina aurrez aurre ipintzen didaten pertsonaia zantarra? Zer arraio! Banaketara joango naiz. Ba ote zalantzarik, Manonek berak asmatu-riko gauza izanik? Eta galtzen badut morrontza horretan sartzen ez banaiz?»

— Lescaut jauna —esan nion begiak hertsirik gogoeta penagarri haiek uxatu nahi banitu bezala—, ni zerbitzatzeko asmoa izan baduzu esker-rak demaizkizut. Bide ondratuagoa aukera zenezakeen; baina auzia bukatutzat eman behar, ez al da? Balia gaitzen zure egintzez, bete dezagun zure egitamua. Ez dezagun bestelako pentsaerarik erabil.

Lescaut, zeini nire haserreak, isilaldi luze batez jarraiki, halako egonezin bat sortu nion, oso poztu zen, nik berak uste zuenaren guztiz bestelako erabakia hartu bainuen. Ez zen inola ere ausarta. Izan nuen bai gero bon frogatzeko astirik. —Bai, bai —hartu zuen hitza azkar—, mesede ezin hobea egin dizut. Ikusiko duzu nola laster orain espero duzun baino etekin gehiago aterako dugun.

M.ko G. jaunari gure itxurazko senidetasunaz izan zitzakeen mesfidantzak —seguruenik irudikatzen ninduen baino handiago eta nagusiago ikusirik— nola desager geniezazkion pentsatzen jardun genuen. Itxura xume eta probintziarra azalduko nuen beraren aurrean. Sinetsaraziko nion eliza-estatuan sartzeko xedea nuela eta

horregatik egunero ikastegira joaten nintzela. Ez genuen beste aterabiderik ikusten.

Erabaki genuen baita ere oso janzkera arlo-tean agertuko nintzaiola agur esatera.

Hiruzpalau egun gero itzuli zen bina. Berarekin eraman zuen Manon administratzaileak atondu zion etxeraino. Manonek berehala gaztigatu zion bere nebari. Lescautek bere aldetik niri deiturik, harantz abiatu ginen biok. Amorante zaharra irtena zen jadanik.

Manonen nahikundeei amore eman banien ere etsikor, ezin izan nituen nire bihotz oihuminak isilarazi. Triste eta itzalia aurkitu omen ninduen. Bera ikustearen pozak bestalde ez zuen tamalez bere infidelitatearen arrangura erabat estaltzen. Berak ordea, ni ikustearekin guztiz liluraturik zirudien. Nire ezpainek baina eutsi ezinik donge eta infidel hitzak kanporatu zituzten, zizpuruka. Nik omen xalotasunak barrea sortu zion. Ai baina! Nire begiradek berarengan zutela jomuga goibela, bai eta nire izaera eta desiren hain kontrakoa zen aldaketa onartzeko nuen doluaz konturaturik, alde egin zuen bere gelarantz.

Apur bat geroago jarraitu egin nintzaion. Negarrez ari zen. Non ote zuten malko haiek sorburu galdetu nion.

— Erraz antzeman dezakezu —esan zidan—. Nola gura duzu bizi nakizun ni ikusteak kopeta ilun eta samindua bai no ez badizu sortarazten? Bada jadanik ordu bete hemen zaudela eta ez dut oraindik zure musuen beroa sentitu. Zuk ostera nireak Turkiar Handiak serrailoan jasoko zituzkeen maiestateaz jaso dituzu.

— Entzun Manon —erantzun nion besarkatzen nuelarik—. Nola isil diezazuket bihotza arrazartatua daramadanik? Eta ez nagokio orain zure ustekabeko ihesak sortu didan alarmari, ez eta kontsolapen hitzik gabe ni abandonatzeko izan duzun krudelkeriari, gaua nirea ez zen ohe batean igaro ondoren. Zure presentziaren xarmak hori eta gehiago ahantz eraziko lidake. Baina otoi erradazu, uste al duzu etxe honetan eraman behar izango dudan bizitza triste eta zorigaiztokoaz oroiturik lantu eta egonezinik gabe pentsa dezakedanik? Eta hori esan eta malko batzuk erori zitzaizkidan. Utz ditzagun nire jatorria eta ohorea alde batetara. Ez bitez berriz arrazoi

horren xeheak honen maitasun sendoarekin konkurrentzian ipini. Baina ez al duzu maitasun hori berori ikusten horren makur eskertua izateagatik, edo hobeto adierazteko horren maitatzaile eskergaizto eta egoskor batek ankerki tratatzen duelako ikara betean ari dela?

Moztu egin zidan: —Zaude nire zaldun bihotzekoa, alperrik duzu zure agiraken bidez jarraitzea. Zuregandik etorririk bihotza zulatzen didatela jakin behar zenuke. Ondotxo ikusten dut zerk mintzen zaituen. Gure ondarea apur bat berreraikitzeke neuzkan asmoak onartuko zenituzkeelakoan nengoen. Eta zure fintasuna hunkitua izan ez zedin zure esku hartzerik gabe ekin nion egitamu honi baina etsi egingen dut, zuk ez baituzu baiesten.

Eroapen poxi bat eskatu zidan egunaren hondarreraino. Agureak berrehun pistola eskaintzeaz gain, iluntzerako perladun lepoko eder bat agindu omen zion bai eta beste zenbait bitxi ere, ahortzi gabe aginduriko urteko pentsioaren erdia.

— Emadazu mesedez, opari horiek eskuratzeko denbora; zin dagizut baina, ezin izango

duela nire buruarenganako eskaini dizkiodan faboreez harrotasunik erakutsi, hirira iritsi bitartean atzeratu baitizkiot. Ez dizut ukatuko ez. Miloi bat aldiz musukatu dit eskua. Bidezko bekio bada, horregatik ordaintzea.

Laster bost edo sei mila franko ez dira gehiegi izango bere aberastasun eta adinaren arabera. Bere erabakia egia esan, bost mila franko haien itxaropena baino pozgarriagoa iruditu zitzaidan. Une hartan ohartu nintzen nire bihotzak. ez zuela oraindik ohorezko sentimendurik galdu, pozarren aurkitzen baitzen zantarkeria hartatik ihes egiteagatik. Baina zorion llabur eta oinaze luzetarako sortua nintzen.

Patuak amildegitik idokitzen ninduen baina gero beste batetarantz jaurtikitzen. Manoni mila laztanez adierazi ondoren, zein pozik sentitzen nintzen beraren aldaketagatik, esan nion Lescaut jaunari gaztigatu behar geniola erabakiak batera har genitzan. Hasieran hura marmarka aritu zen, baina diruaren aipamenak berak oso arin makurtu zuen gure helburuetara.

Akort jarri ginen bada afaltze garaian elkartuko ginela Mko G. jaunarekin. Eta hori bi arrazoi-



rengatik: bata, ni Manonen neba omen, nire burua eskolaumetzat jo behar nuelarik: antzezpen ikusgarria gurea alajaina! Bestea berriz, libertino agure hark ez zezan nire maitalearenganako gehiegizko konfiantzarik har, aurretik hain eskuzabal ordaindu zuela eta, horrek eskubide bereziren bat ematen ziola uste izanik. Lescautek eta biok alde egin behar genuen, hark bere logelara gaua pasatzera jotzen zuen unean bertan. Baina Manonek berari jarraitu ordez irten eta nirekin igaroko zuela agindu zidan. Lescautek bere aldetik kotxea prest izango zuen atean.

Afalordua iritsi eta Mko G. jaunari ez zitzaion berandutu. Lescaut egongelan zegoen bere arrebarekin. Agurearen lehenengo esku-erakutsia bere ederrari, lepokoa, perladun eskumuturrekoa eta belarritakoak izan zen. Mila ezkuturen balioa bazen han gutxienez. Gero urrezko luis bikainetan bi mila eta lauhun libra eman zizkion, bere pentsioaren erdia hain zuzen.

Bere bezuza hura xaramela zenbaitez dotoretu zuen, Gorte zaharreko eskolaren eran. Manonek ezin izan zizkion musu batzuk ukatu; txanpon bakoitzaren truk jasotzen zuen beste

horrenbesteko eskubideren ordaina zen. Ni ate ostean nengoen. Belarria tente Lescautek sartzeko noiz adieraziko zidan zain.

Manonek dirua eta bitxiak bereganatu zitue-nean bere neba nire bila etorri eta eskutik harturik Mko G. jaunarengana eraman ninduen berari gur egiteko agintzen zidalarik. Bizpahiru aldiz gurtu nuen era dotorez.

— Barkatu beharrean zaude jauna. Esan zion Lescautek. Hasi berria baino ez da. Ez du aise antzeman dezakezunez Paristarren jasik. Baina espero dugu ikasiaz moldatuko dela. Eta niregana buelta eman ez hauxe gehitu zuen: —Maiz ikusi ahal izango duzu jaun agurgarri hau hemen, aprobeitza ezazu ongi bada, horren eredu egokia aurrean izanik.

Gizaseme zahar hark pozik hartu bide zuen konplimendua. Gero, masailean emaro ukituz mutil polita nintzela esan zuen, baina tentuan ibili behar nuela Parisen, gazte asko erraz alperrik galtzen baita. Lescautek baina berehala lasaitu zuen esanez, nik zintzotasun berezkoa nuela, hitzetik hortzera apaiz izatea baino ez

nuela ahoan, eta nire jostagairik handiena, gogaide berriak egitea zela.

— Manonen tankera hartzen diot —ekin zion berriro aitonak kokotsa eskuaz jasotzen zidalarik—. Erarik inozoenaz honela erantzun nion:

— Pentsa beza berorrek, gure haragi biak oso hurbiletik ukitzen direla, horregatik Manon nire arreba nire baitako zatia bezala maite dut.

— Ez al duzu entzun? Esan zuen Lescautek. Burua argi dauka mutil honek. Tamalgarria, mundu-bizi apur bat gehiago behar luke.

— Oi jauna —hasi nintzen berriro ere—. Horietako asko ikusi izan dut elizan, uste dut ni baino leloagorik aurkituko dudala Parisen.

— Begira —egotzi zuen berak—. Probintziar gaztetxo batentzat ez dago batere gaizki.

Gure afal orduko autua antzerakoa izan zen. Egun kaskarina zuen Manonek ia-ia hondatu zigun guztia, barreari ekin baitzion zenbait aldiz.

Afarian zehar gizaseme hari bere historia propioa eta mehatxatzen zuen zorionik gabeko patua kontatu nion. Lescaut eta Manon ikaraturik egon ziren, batez ere haren irudi garbia egin nuenean. Baina bere izaerak bere buruaren isla-

pena ikustea galarazi zion. Eta hain nuen nire kontatera tentu onez amaitu ezen berari ere barregarri iruditu baitzitzaion. Ohartuko zara ez dudala arrazoirik falta eszena barregarri haren xehetasunak emateko. Oherako garaia iritsia zelarik, maitasuna eta urduritasuna izan zituen solasgai. Lescaut eta biok atera egin ginen. Logelaraino lagundu genuen agurea. Gero Manon, aitzakiaren bat erabiliz, gelatik irten eta atera etorri zitzaigun. Bi edo hiru atari beherago zain genuen zalgurdia, gu hartzera etorri zitzaigun. Berehalakoan utzi genuen auzategia.

Guzti hura makurkeria galanta izan zela aitorturik ere, ez zen nire buruari egotziko niokeen okerrena. Egia esan, eskrupulu gehiago nuen jokoan irabazitako diruarekin. Edozein modutan batari zein besteari mozkin urria atera genion. Zeruak nahi izan zuen zuzengabekeria bietatik arinena hain zuen era gogorrenez zigortua izan zedin.

Ez zion gauari egunak jarraipen askorik egin, Mko G. jauna iruzurtua izan zela konturatu zenerako. Ez dakit esaten, gaur hartan bertan bilaketari ekin zionetz gure nondik norakoaren bila.

Bazuen hark noski itzalik bilaketa haiek alferrika-koak gerta ez zekizkion. Gu oster, arduraga-beak izan ginen, Parisen hedaduraz fidatu ginelako, haren eta gure auzategiaren arteko urruntasun handia lar izan genuelako kontutan. Ez zuen hark soil-soilik gure bizilekuaren berri eta nola bizi ginen jakin, baizik eta ni nor nintzen, zer-nolako bizitza eramán nuen Parisen, Manon-en B.renganako aurre-lotura, neskak nola engainatu zuen... Hitz batez laburtuz, gure portaeraren alderdi eskandalagarri guztiak. Horren ondorioz, gu atxilotzeko erabakia hartu zuen, epai gintzatela bada, gaizkile legez baino gehiago libertino bideragaitz bezala. Ohean ginen oraindik polizia-ofiziale bat beste dozena erdiren bat guardiarekin gure gelara sartu ziren unean. Gure dirua kendu ziguten aurrenik —Mko G. jaunaren dirua erran nahi dut—. Azkar utzi behar izan genuen gure habia kalerako bidean, non bi kotxe baikenituen. Haietariko batetara Manon gajoa inolako argibiderik eman gabe sartu zuten, bestean berriz, ni St. Lazare-rantz eramán nindutelarik.

Horrelako estualdi gaiztoa jasan beharra dago zeinen etsialdi latzean jartzen zaituen jakiteko.

Gure zaintzaileek jokabide gogorra izan zuten gurekin, ez baitzidaten Manon besarkatzen utzi, hitzik esaten ere. Aldi luze batez ez nuen beraren berririk izan. Aurretik nora zihoan ez jakiteak, zorionekoa izan zen niretzat, zeren horrelako hondamendiak zentzua galaraziko baitzidan, eta nork daki, agian bizia bera ere.

Begien aurretik bahitu zidaten nire zoritxarreko maitea, eta aipatzeak berak ere izua sortzen didan leku batetara eramane. Zeinen adur gaiztoa gizaki guztiz xarmangarri harena! Gizon guztiek nire begi eta bihotzez ikusi izan balute, munduko tronurik bikainena beretzat izanen zukeen. Ez zuten han ankerki tratatu; baina leotza estu batetan hertsu zuten bakar-bakarrik, egunero lanen bat egitera zigortuz, janari nazkagarria orain eramane nahi izango bazuen. Ez nintzen xehetasun horretaz jabetu gero baino, nik neuk ere zenbait hilabetez hildura latz eta gogorra pairatu nuen arte. Nire guardiek nora ninderamaten adierazi ez zidatenez, St. Lazare-ko ata-

rian baino ez nuen jakin nire helmuga. Une hartan han sartzea baino, han bertan heriotza nahiago izango nukeen. Etxe hartaz gauza izugarriak entzuna bainintzen.

Nire izua areagotu egin zen guardiek berriro ere nire patrikak erregistratu zituztenean ea armarik edo defentsa tresnarik neraman ikusteko. Laster azaldu zen nire iristearen berri zuen nagusia. Gizalegez agurtu ninduen. —Aita Jauna, otoi duinkeriarik ez! Mila aldiz galduko nuke bizia baina ezin izango nuke horrelakorik behin ere nozitu.

— Ez. Inola ere ez —haren erantzuna. Izan zaitez zintzoa eta ongi konponduko gara. Gai-solairu batetara igotzeko erregutu zidan. Ez nion eragozpenik ipini. Arkulariek ateraino jarraitu ziguten. Nagusiak nirekin sartu ondoren aldenitzeko agindu zien.

— Zure preso naiz beraz —esan nion—. Ongi da. Baina zer gura nauzu bilakatu?

Ni hain zentzuzkoa ikustean, atsegin handia hartzen zuela erran zidan. Bere eginkizuna bertutearen eta erlijioaren gozotasuna nire baitan sortzea zuela; nirea berriz bere erregu eta ahol-

kuak aprobetxatzea. Nereganako izango zuen begirunea aintzako hartzen banuen gozamina baino ez nuela sentituko nire bakardadean. —Ai gozamina diozu! Ez al dakizu hori aita jauna gauza bakar batek eskura diezadakeena? —Badakit —ihardetsi zidan—. Hala ere zure aihera aldatuko dela espero dut. Bere erantzunak nire benturen berri bazuela esaten zidan eta agian nire izena ere bazekiela. Nik horrela eskaturik xehetasun guztien gainean informatua zegoela aitortu zidan. Egiaztapen hura nire zigorrik garratzena izan nuen. Malko isuriek etsipenaren izugarria agertzen zidaten. Ezagutzen ninduten pertsona guztien irria eta nire familiaren lotsa erakarriko zuen desohoreak kontsolagaitz bihurtuko zitzaizkidan.

Eroraldirik beltzenean zortzi egun igaro nituen nire lotsariak burmuina irekitzen zidalarik. Ez nuen beste pentsagairik erabili. Manonen oroitzapenak berak ere ez zion nire doluari ezer eransten. Oinaze berri haren aurretik neraman sentimendua baino ez zen behintzat. Ariman nagusi nuen egonezina lotsa eta barreneko nahasmenduz egina zegoen. Pertsona gutxi da



bihotzaren higidura berezi horien indarra ezagutuko duenik. Gizakia oro har, bost edo sei pasiorri zaio sentikor. Beraien inguruan darama bizia, beraien biran dago dardara. Ken iezaezue maitasuna eta gorrotoa, ken plazera eta oinazea, erauzi itxaropena eta beldurra, eta ez du ezer sentituko. Baina nortasun handiko pertsonak mila era desberdinez izan daitezke inarrosiak: irudi luke bost zentzu baino gehiagoren jabe direla, bai eta naturaren ohizko mugarretatik at dauden ideia eta zentzazio beregana dezaketela. Eta nola arruntasunaren gainean kokatzen dituen nagusitasunaren sentimendua duten, horren harro dira oso. Hortik datorkie bada, mespretxua eta iseka egonarriz ez onartzea, lotsa dutelarik bestalde beren baitako asaldurarik oldarkorrena.

Abantaila hits hura nekarren St. Lazare-ra. Nire tristurak hain iruditu zitzaion gehiegizkoa nagusiari ezen haren ondorioen beldur xamurtasun eta bihozberaz hartu baininduen. Egunean bizpahiru aldiz etorri ohi zitzaidan bisitatzera. Maiz, berarekin eramaten ninduen lorategirantz bere ardura erreguz eta onginahizko aholkutan

agortzen zelarik. Samurkiro, nire eskerrona azalduz ere hartzen nituen. Hortik ateratzen zuen nonbait nire konbertitzearen itxaropena.

— Horren izaera ezti eta maitagarria duzularik —esan zidan behin—, ez ditzaket zuri egotzierruak uler. Bi gauza hauek harritzen naute: bata, horren tasun ederren jabe izanik nola, libertinaiaaren atzamar itsusian utzi izan duzun zeure burua, besteak berriz oraindik txunditze-nago nauka, alegia nola, horren gogotsu zeure egiten dituzun nire aholku eta oharrak, hainbat urtetan ostera nasaikerian murgildua izanik. Damua bada, Jainko-urrikalmenduaren zeinu nabaria zaitugu. Berezko ontasuna baduzu, zure nortasunak oinarri bikainik baduela behintzat adierazi nahi du. Espero dut beraz, ez zaitugula luzaro hemen izanen bizitza onest eta ondatura itzul zaitezen aurretik.

Nitaz zuen iritziak txit poztu ninduen. Eta bere uste onean areago finka zedin oraindik nire portaera zintzoagoa egitea deliberatu nuen, ziur bainengoen nire hertsialdia laburtu egingo nuela. Liburuak eskatu nizkion. Arras harritu nuen orduan, berak irakurgaien aukera eskaini

zidalarik, nik berriz egile sakonak hautatu baini-tuen. Ikasketetan buru-belarri murgildurik ari nintzenaren itxura egin nuen, hark ni baitan beti, desio zuen aldaketaren frogak izan zitzaizkidan.

Hala ere guzti hura axalekoa baino ez nuen. Lotsa osoz aitortu behar dut, hipokrita baten pertsonaia antzeztu nuela St. Lazare-n. Bakarrik egoten nintzenean ikasi orde, nire adur gaizto-agatik lantu isilean aritzen nintzen. Nire gatibutasuna eta bertan kateatzen ninduen tirania madarikatzen nituen. Etsialdi hartan nasaitasun apurra izan ondoren amodio bitsetan erori nintzen berriro ere.

Manonen absentzia, beraren etorkizunaren zalantza, inoiz berriro ikusiko ez nuenaren beldurra, horra nire gogarte hitsen pentsagaia. Mko G. ten besoetan irudikatzen nuen lehen pentsamendu batean, Manoni berari niri «eman» zidaten tratu berbera eman ziotela ahazten nuelarik, guztiz sinetsirik bainengoen ni urrundu ninduela berak nire maitalearen lekua lasai asko hartzeko.

Zein luzeak gertatu zitzaizkidan egunak eta gauak! Nik berriz, nire hipokresiaren arrakastan baino ez nuen esperantzarik.

Nire nagusiaren aurpegia eta hitz aspertuak arretaz jarraitzen nituen, nitaz zer pentsatzen zuen ongi antzemateko. Beraren oniritzia erdies-ten ahalegintzen nintzen bada, nire patuaren erabakitzailetzat jotzen bainuen. Aise ohartu nintzen bide onetik nenbilela. Ez nuen jadanik nire alde jokatuko zuenaren zalantzarik. Behin ea bere esku ote zuen nire askatasunaren erabakia galdetzeko ausartzia izan nuen. Erantzun zidan ez zela hura bere agindupeko manua, baina espero zuela bere aitoren bidez, Mko G. jaunak —zeinen agindupean polizia-buruak atxilotu baininduen— nire askatasuna onartuko zuela.

— Ba ote dut —esan nion apalki— bete dudan bi hilabete hauetako espiazioa nahikoa irudituko zaionaren esperantzarik?

Nik horrela gura izanik hitz egingo ziola hartaz agindu zidan. Mesede hura bete ziezadan eskatu nion behin eta berriro. Bi egun gero esan zidan Mko G. jaunak pozik hartu zituela nitaz iri-

tsi zitzaizkion albiste onak, zeren prest baitzego-  
en ez bakarrik ni aske uzteko, are gehiago ni neu  
hobeto ezagutzeko asmoa azaldu omen zion, zio  
horretan nire gatibu-zulora etortzeko xedea  
azalduz. Gizon haren presentzia ez bazitzaidan  
inondik ere atsegina, nire askatasun hurbilaren  
bila bide-urreratze bezala ikusten nuen.

Eta horrela gertatu zen. Itxura batean Mano-  
nen etxean baino serioagoa iruditu zitzaidan, ez  
hain txepela azken finean. Nire jokabide okerraz  
zentzuzko hitzak luzatu zizkidan. Bere nasaike-  
riak justifikatzeko nonbait, gizonoi naturak eska-  
tzen dizkigun zenbait plazeren lortzea zilegi zai-  
gula adierazi zuen, baina iruzurra eta jokabide  
makurra zigorgarriak zirela beti ere. Nire menpe-  
kotasun tankerak arras aserik utzi bide zuen.  
Nire Manon eta Lescautekiko senidetasunaz ego-  
tzi zituen isekak ere ez ninduten iraindu. Gauza  
bera nire St. Lazare bertako egonaldian eginak  
izango omen nituen gogaideei buruz, hain eras-  
pen handiko ekimenari pozarren atxikitzen nin-  
tzaionez... Baina zoritxarrez beretzat eta Mano-  
nentzat ere atera zitzaion Manonek ere bere  
aldetik horrelako ugari egingen zituzkeela Ospita-

lean. Ospitale hitzak sortu zidan barren barrenago zirrara handia izan bazen ere, argitasun gehiago eskatzeko trenpea izan nuen.

— Bai, horrelaxe da —jarraitu zuen—, bada bi hilabete zuhurtzia zer den ikasten ari dela Ospitalean. Espero dut zuk St. Lazaren adinako hobarik atera ahal izango duela.

Betiereko presondegiaren mehatxua izan edo hantxe bertan Herioak bere aihotza erakutsi izan balit ere, orduan ere, ez nintzatekeen nire buruaren jabe izanen, berri hain izugarria entzun eta gero. Amorrurik bortitzenaz jauzi egin nuen beraren gainera, hain sutsu egin ere, indarren erdia galdu nuela. Aski izan nuen hala ere lurre-ra bota eta lepotik oratzeko. Ia itotzear nuelarik, bere erorketaren hotsak eta ozta-ozta eztarriratu zituen zenbait garrasik nagusia eta beste erlijio-gizon batzuk erakarri zituen nire gelarantz. Eskuetatik kendu zidaten. Ia arnas eta indarrik gabe aurkitzen nintzen. Jainko maitea esan nuen intziri artean—. Baina nola bizi ninteke honelako zantarkeriaren ondoren?

Berriro ere zauritu ninduen gizatxar harengana eginen nukeen jauzi oratu izan ez bazidaten.

Nire orro eta negar zotinak, nire etsipena, irudika ezinak ziren.

Hain nuen gauza harrigarririk egin, non han ziren guztiak gertatuaren zergatiaz deus ez zekitenez, elkarri begira jarri ziren harriduraz zein izu-itxuran.

Mko G. jauna bien bitartean bere gorbata eta ileordea zein bere lekuan ipintzen saiatzen ari zen. Hain gaizki hartua izan zelarik, agindu zion nagusiarri inoiz baino estuago har nintzatela St. Lazare-n usu ziren zigorrak erabakiz.

— Ez jauna —ihardetsi zion nagusiak—. Ez dugu jaun honen leinuko gizasemeekin horrelako jokaerarik izaten. Zintzo eta ondratua da gainera, horregatik bere oraingo portaera honek zer pentsa ematen dit. Ez zatekeen agian horrela arituko arrazoi gotorrik izan ez balu.

Erantzun hark txit nahastu zuen Mko G. jauna. Handik irten zen esanez, nagusia, ni eta berari frente egiteko ausartzia izango zuten guztiak menderatuko zituela. Nagusia, bere erlijiokideei atera lagun zezatela agindu ondoren, niregana hurbildu eta bakarrik gelditu ginen biok.

Azkar aitor niezaiola nondik zetorkidan suminaldi hura erregutu zidan.

— Ai aita nirea! —esan nion haur-malkoak isurtzen nituelarik etengabe—. Irudika ezazu doilorkeriarik zitalena, zantarkeriarik latzena. Horra Mko G. jaunak burutu duen koldarkeria. Bihotza erdibitu dit. Ez naiz inoiz nire onera itzuliko. Dena kontatuko dizut. Zuregan konfiantza baitut. Gupida izanen duzu nitaz.

Nire Manonenganako grina garaitezina laburbildu nion. Gero, gure ondasunen egoera ezin hobez mintzatu nintzaion gure etxeko morroiek larrutu gintuzten arte. Mko G. jaunak nire maitzaileari egin zizkion eskaintzez. Beren arteko ituna nola ebatzi zuten, eta geroago eten. Egia esateko, gauzak gure aldeko ikuspegitik azaldu nizkion: —Horra Mko G jaunak nire konbertitzea lortzeko agertzen duen axolaren arrazoia nondik datorren. Ni hemen atxilotzeko eragina izan du mendeku xede soil batez. Barkatua bego. Baina nire aita jauna, hori ez da guztia; nire izatearen erdirik maiteena erauzi zidan ankerki, eta jarraian ospitalean giltzapetu. Eta hor ez da amaitzen dena. Guzti hori nire aurrera esatera



etortzeko lotsagabekeria izan du. Ospitalera nire aita errukiorra! Zeru zuzentasunezkoa! Nire maitatzaile xarmanta, nire bihotzeko erregina Ospitalera, gizakirik trauskilena bezala! Non, baina arren, aurki ahal dezaket indarrik aski minak eta ahalkeak ez nazaten hil!

Erljio-gizon hark hain aldarte txarrean ikusi ninduelarik, kontsolatu nahi izan ninduen. Erran zidan, ez zuela inoiz nire bentura ni kontaktzen ari nintzaion eran ulertu. Bazekiela jakin, nire bizi erratuaren berri, baina Mko G. jaunaren erabakia nire familiarekin zuen harremana eta adiskidetasunak bultzaturik zetorrela uste zuela, berari ere hain zuzen horrela azaldu ziola. Nik aitortu niona bada, auziari aldaketa handia ematen zionaren zalantzarik ez zuela. Alegia polizia-buruari egin asmo zion kontaketa zehatzak nire askatasunaren erdiespenean lagunduko zidala. Ondoren, zergatik ez nion oraindik nire familiari guzti hartaz gaztigatu itaundu zidan, ez baitzuten nire gatibutasunaren berririk. Objekzio hari aitari sor niezaiokeen samina kontrajarri nion, bai eta nire baitan jasan nezakeen lotsa. Polizia-buruarengana joko zuela agindu zidan beraz, besterik ez

bazen ere Mko G. jaunaren edonolako jokabide makurrik eragozteko, itzal handia baitzuen bera-  
ren beldur ez izateko, kontutan izanik gainera  
etxe hartatik oso haserre atera zela.

Nagusiaren etorrera bere sententziaren zain  
dagoen zorigaiztokoak nozi lezakeen larritasu-  
naz espero nuen. Ezin nezakeen Marion Ospita-  
lean itxuratu. Oinaze gogorra sortarazten zidan.  
Bere atxiloketaren gupidagabekeria kanpo utziz,  
ez nekien ezer jasaten ari zen tratuari buruz,  
baina izu-etxe haren gainean entzun izan nituen  
xehetasun zenbaitek nire egonezina pizten zuen.  
Hain nintzen hura edonola laguntzeko gertu sen-  
titzen, non St. Lazare bera ere sutan jarriko bai-  
nukeen beste era batez irtetea lortu izan ez  
banu. Zer nolako jokabidea hartuko nuen polizia-  
buruak nire borondatearen kontra bahiturik  
gorde nahi izango banindu, ari nintzen pentsa-  
tzen. Nire sena lan egiten ipini nuen. Ahalbide  
guztiak igo ziren nire burmuinetik. Ez nuen baina  
tamalez ihesaren arrakasta bermatuko zidan  
ezer ikusten, ekintza ustela gertatzen bazitzai-  
dan, oraindik ere estuago hartuko nindutenaren  
beldur bainintzen. Laguntzera etor zitezkeen

zenbait adiskideren izenak gogoratu nituen; baina nola helaraz beraiei nire egoeraren berri? Azkenerako egitamu hain trebea moldatu nuen non arrakasta ziurra izango nuela uste izan nuen. Nagusiaren itzuleraren ondoren hobeto atontzeko asmoaz utzi egin nuen une baterako, baldin eta hark buruturiko ekimenek porrot egi-ten bazuten, orduan ezinbesteko gertatuko bai-tzitzaidan.

Ez nengoen luzetsirik bistaratu nuenean. Bere aurpegiak ez zidan berri onei darien poz zantzurik agertzen. —Hitz egin dut polizia-burua-rekin —esan zidan—; baina beranduegi izan da. Mko G. jauna joan baitzaio hemendik irten eta berehala. Hain dio zurekin kontu izan dezan erre-pikatu non irtetear baitzegoen niri agindu berriak ematera etortzeko, are gogorrago har zaitzagun esatera. Hala ere, auziaren funtsean zer datzan adierazi diodanez bigundu egin zait oso. Eta haren arinkeriagatik irri apur bat eginez esan dit sei hilabetez jarraitu behar izango duzu-la berton, hura asebetetzeko. Ezin hobeto zure-tzat gehitu du, hemengo egonaldiak mesede handia egingo baitizu. Tratu egokia eman dieza-

zugun gomendatu dit. Esan nahi dizut, ez duzula nire aldetik inolako arrangurarik sentituko nire jarreran.

Argibide guzti haiek luzeak izanik, gogoeta zuhurra egiteko astia eman zidaten. Ohartu nintzen, nire askatasun egarria gehiegi nabarmentzen banion, nire ordura arteko adu ona pikutara bidal nezakeela. Horregatik bada, adierazi nion han egotera beharturik nengoelarik, bere onespena lortzea kontsolamendu ezta izango zitzaidala. Jarraian, inori kalte egingo ez eta niri ostera lasaitasun handia ekarriko zidan mesede bat eskain ziezadala erregutu nion: hots, St. Sulpice-n aurkitzen zen nire lagun hari —elizgizon saindua bera— jakin eraztea, alegia ni St. Lazare-n nengoela, eta bidenabar bere noizbehinkako ikustaldia baimen ziezadatela. Inolako arazorik gabe eskaini zidaten mesede hura. Tiberge nire lagunaz ari naiz noski. Ez noski harengandik nire askatasunaren bidean premiazko laguntzarik erdiestea espero nezakeelako, baina bai ostera erabil nezakeelako bera ohartu gabe —urrutitik eragiten zaion tresna bezala— nire helburua lortzeko. Hitz batez laburbilduz, hona nire plana:

Lescauti gutun bat bidaliko nion, berak eta adiskide komunak bere gain har zezaten ni askatze-ko ardura. Lehenengo zailtasuna nire gutuna nola helaraz berari izan zitekeen. Kari horretarako Tiberge nuen. Hala ere nire maitatzailearen neba zela bazekienez, beldur nintzen ez ote zuen mezua betetzerik nahi izango. Nire asmoa baina, Lescauti zuzenduriko gutuna beste baten barruan sartzea zen, azken hau nire ezaupideko gizaseme ohoretsu bati helaraziz, erregutzen niolarik bertan lehenik aipatu gutuna bere helbidera bidal zezan. Lescaut eta biok ezinbestean elkarrekin egon behar genuenez, St. Lazare-ra etortzeko esan nion, bere burua Parisera beste lanik gabe nire arazoan berri jakitera etorri den nire anaia nagusitzat joaz. Bion artean erabakiko genuen ihesbiderik seguruenena. Nagusia Tiberge-rekin —bera ikusteko nuen nahiaz— hitz egitera joan zen. Nire lagun fidel hark bazuen bai nire gorabehera eta benturen albisterik; bazekien halaber St. Lazaren nintzela. Eta ez zen agian nire nahigabe hartaz errukitu, betebeharraren ildoan zuzenduko nindutela uste baitzuen. Arin etorri zitzaidan bisitatzera.

Gure elkar ikuste hura adiskidetasunez beterikoa izan zen. Nire aldartea zertan zen jakin nahi zuen. Erabat zabaldu nion nire bihotza ger-tatukoaren berri emanez, nire ihes egiteko asmoa aipatu gabe noski.

— Ez dizut zuri adiskide-min —esan nion—, ez naizenaren zerbaiten itxurarik egin nahi. Lagun zintzo eta zuhurra aurkituko zenuenaren usteak ekarri bazaitu hona, jainko-zigorrak irat-zarri duen libertino damutua alegia, hitz batez maitasunaren itsaspenetik at eta Manonen lazta-netatik urrunduriko bihotza aurkitu nahi baduzu, ondoegi epaitu nauzu. Duela lau hilabete utzi ninduzun bezalaxe naukazu, adur gaiztoko maite-grina horren zurrunbiloan, gaur goxo, bihar zoritxarreko, baina berorretan nahi dudalarik nire zoriona aurkitu.

Nire aitorpena barkaezinezkotzat jotzen zuela ihardetsi zidan. Ezagutzen zuela bai bizio-aren gezurrezko eromenean horditurik —berau bertutearen aurrean jarriz— bizi zen hainbat eta hainbat; baina haiek sikiera zorion-irudiei atxiki-tzen zitzaizkiela, itxuren jopu bilakatuz. Nik egi-ten nuenak oster, nire pasioak errudun eta

dohakabe bihurtzen ninduela onartzen nuelarik ere, gero ondikoan eta bekatuan berariaz lohitzen nintzelarik, nire adimenarekin bat ez zetorren ideia eta portaeraren arteko kontraesana adierazten zuela.

— Tiberge —ihardetsi nion nire aldetik— zein erraz zaigun irabaztea gure armei aurrean behaztoparik jartzen ez dietenean! Utzi baina niri ere nire arrazoiak ematen. Ez arren esan niri bertutearen zoriona deitzen duzun horrek oinaze, behaztopa edo larrialdirik ez duenik! Zeren eta nola adieraz dezakezu mistikoek bezala gorputzaren hildura arimaren zoriona dela? Ez, ez dut uste horrenbestera ino ausartuko zinatekeenik. Paradoxa defendaezina litzateke. Zuk horren gora jasotzen duzun zorion hori mila saminez nahasturik dago, edo behar bada, hobeto adieraziz, bere harien barrena zorionaren arrastoa antzeman litekeen zorigaitzeko ehuna duzu. Beraz, irudimenaren indarrak gaitz beroietan barrena plazera sortarazten badu, irrikatzen dugun zorionezko jomugara eramán dezaketelako, zergatik bada, jotzen duzu zuk kontraesan-kor eta zentzugabekotzat guztiz antzerako den

nire jarrera hau? Maite dut Manon, eta beraren ondoan hamaika oinazeren astindupean bizi nahi nuke. Naraman bideak nekea du ezaugarri, baina helmugara helduko naizen esperantzak txit arintzen dit urratsa. Gaitz guztiak ahantziak lirateke, haren ondoan izan nezakeen unetxoaren ordainaz. Zure eta nire aldetiko gauzak ez zaizkit desberdinak iruditzen. Nik badut edozein modutan abantaila bat: nik espero zoriona hurbil dago, zurea ostera urrun. Nerea sentibera zaio gorputzari, berari baitatxekio, bestearen jatorria ezezaguna duzu, fedea baino ez dezake egiazta.

Asaldaturik irudi zuen Tiberge arrazonamendu harengatik. Atzerantz eginez ondoko hau aurpegiratu zidan seriotasun handiz, alegia esan berri nuena ez zihoala soil-soilik zentzu onaren aurka, baizik inpietate eta federik ezaren sofisma zorigaiztokoa zela, «zeren zure oinazeen amaiera eta erlijioak eskaintzen dituen helburuen artekoen alderaketa hori —erantsi zuen berak— ezpainera daitekeen ideiarik libertino eta zantarrena duzu».



— Aitortu behar dut —ihardetsi nion nire aldetik— ez dela zuzena; baina ohar zaitez ez dela berorretan hain zuzen nire arrazonamendua sostengatzen. Zuk zoritxarreko maitasun baten iraupenean kontraesankor irizten diozunari argitasuna eskaini nahi izan diot. Baina uste dut frogatu dizudala kontraesankortasunik izatekotan alderdi biotan izan dela, zure nola nire baitan. Ikuspuntu horretatik baino ez diet berdin direnik iritzi, eta nirean jarraitzen dut. Uste al duzu zinez, bertutearen helburua maitasunarena baino izugarri gorago dagoela? Nork uka lezake hori? Baina hori ote gure galdekizunaren funtsa? Ez ote gara ari hemen batak zein besteak oina-zea jasan ahal izateko duen adoreaz? Epai ditza- gun ondorioetatik. Zenbat eta zenbat desertore dituen bertute zorrotzak! Eta zein gutxi maitasu- nak! Erantzunen didazu ontasunaren saiatzean oinazerik bada, ez direla ezinbestekoak ez eta nahi eta nahiezkoak. Esanen didazu halaber ez dela jadanik tiranorik edo eta gurutze-biderik, makina bat jende bertutedunek bizitza lasai eta baketsua daramala. Baina nik neuk ere erantzu- nen nizuke badirela era berean maitasun adur

oneko eta bakezkoak. Eta areago oraindik —eta balantza guztiz nire alde jarriko nuke —maitasunak maiz tronpatzen bazaitu ere, ez dizula poza eta betetasuna baizik eskaintzen; erlijioak berriz tristura eta hildurazko jarduna baino eskatzen ez dizularik. Ez zaitez asalda —erran nion geroz eta urduritzenago ikustean—. Guzti honekin amaitzeko esan nahi dudana da, ez dagoela alegia, bihotz bat maitasunetik saihesteko bide okerragorik berorrek dakartzan gozamenak ukatzea baino, bertutearen jardunean zorion handiagoak aginduz. Gizakiok eginak izan garen aldetik begiratuz, garbi dago gure zoriona plazerean datzala, eta honetaz apustu dagoit bestelakorik dionari. Horregatik bada, arin adieraziko du bihotzak plazer guztietatik atseginenak maitasunezkoak direla. Eta beste nonbait tentagarriagorik eskaintzen zaionean azkar nabaritzen dizu tronpatua dela. Eta tronpatze horrek promesik sendoenez mesfidatzera darama. Bertutera eramán gura nauzuen predikariok, esadazue bai berau guztiz premiazko dudala, baina otoi ez ezkuta, zorrotza eta nekagarria denik. Baiezta ezazue bai, maitasunaren xarmak iragankorrak direla, eta debeka-

tuak, eta betiereko zigorra jasoko dutela. Etaagian gehien zirraratzen nauena da, alegia xarma horiek zenbat eta eztiago diren, orduan eta esker handiago izango baitu zeruak sakrifizio hain gogorraren ordainetan; baina aitor ezazu gure bihotz hauentzat hemen behean direla gure zorionik beteenak.

Nire azken ele haiek lasaitasuna ekarri zioten Tiberge adiskideari. Bazela nire pentsamenduetan zentzuzkorik zerbait aitortu zidan. Objekzio bakarra erantsi zuen: ea zergatik ez nentorren gutxienez nire irizpidearekin bat nire maitasunaren irrikak baino aipatu ordainaren esperantza hobetsiz.

— Ai lagun maitea! —erantzun nion—. Horretan bai, nire ahulezi eta ezdeusa onartu behar dizut. Bai, badakit. Arrazonatzen dudan bezala jardun beharko nuke. Nire esku ote dago hori? Zeinen eskerga behar lukeen laguntza Manonen lilura ahantz nezan!

— Jainkoak barka nazala —erantzun zidan Tibergek—. Jansenista batekin mintzo naizela uste dut.

— Ez dakit zer naizen —esan nion—; eta ez dakit ere oso garbi zer izan beharko nukeen; baina arras ongi ulertzen dut beraien egia.

Hizketaldi hark nire lagunaren errukia sortarazteko balio izan zuen behintzat. Ulertu baitzuen nire nasaikerietan ahulezia makurkeria baino anitz gehiago aurkitzen zela. Laguntzeko gogo handiagoa azaldu zuen; eta aitortu behar dut berari esker ez nintzela leizerik sakonenean amildu. Hala ere ez nion St. Lazaretik ihes egiteko asmoaren aipamen mendreenik ere egin. Nire gutunaren ardura har zezala erregutu nion soil-soilik. Hantxe nuen gertu bera iritsi aurretik, eta aurkitu nuen gutun hura idazteko nuen premia hainbat aitzakia. Fideltasun osoz helbideratu zidan. Eta horrela gaua orduko Lescautek eskuetan zuen berari igorria. Biharamunean etorri zitzaidan, nire anaitzako bezala arazorik gabe sartuz. Pozarren sentitu nuen nire gelaren atean. Hura arreta handiz itxi eta esan nion: —Ez dezagun segundorik gal. Emadazu aurrenik Manonen albisterik eta gero burdina hauek eteteko aholku on bat.

Erran zidan ez zuela bere arreba ni atxilotu ninduten egun hartatik ikusi. Argibide eta bilaketa askoren ostean lortu izan zuela gure berri. Bizpahiru aldiz izana zela ospitalean baina ez ziotela bera ikusteko eskubiderik eman.

— Ez duk ordain merkerik izango, Mko G. madarikatu horrek! —egotzi nuen.

— Zure askatasunari nagokiolarik, hartu zuen hitza Lescautek, zuk uste baino arazo zailagoa da. Atzo iluntze osoan bi lagun eta neu etxe honen kanpoko aldea begiratzen aritu ginen. Zuk azpimarratu bezala zure leihoek etxez inguraturik dagoen atari batetara jotzen dute. Gaitza dugu beraz zu hemendik ateratzea. Gainera zu hirugarren solairuan zaudelarik guk ezin dugu ez soka ez zurubirik barneratu. Ez dut bada kanpotik laguntzeko ezein biderik ikusten. Horregatik hemen bertan aurkitu behar dugu amarruren bat.

— Ez —ekin nion nik—. Dena miatu dut, batez ere nire hertsialdia nagusiaren eskerronagatik honen gogorra izan ez denetik. Ez naute jadanik giltzapean uzten; erlijiosoen korridoreetan barrena ibiltzeko askatasuna dut, baina eskailera guz-

tiak gau eta egun itxirik dauden ate sendo batzuen behaztopa dute. Artez bakarrik ezin izango dut askatasunik lortu. —Itxaron —esan nion—, ideia baten gainean gogoeta egin nuelarik. Lortuko al zenidake pistola bat?

— Bai erraz —Lescautek—. Baina norbait hil nahi al duzu?

Trankildu egin nuen esanez ez nuela inondik ere horrelako asmorik eta horren frogaz bezala, berak nahi izanez gero kargatu gabe ekar ziezadakeela.

— Eskura iezadazu bihar bertan —gehitu nuen—. Etor zaitez ahaztu gabe gaueko hamaietan etxe honen ate aurrera zure lagun horiekin. Laster bildu ahal izango natzaizuela espero dut.

Argitasun gehiago eman niezaion erregutu zidan. Esan nion aurrera eramaten ausartu nintzen ekintza arrakastatsua izan ondoren baino ez zitekeela arrazoizkotzat jo. Bere bisita hura laburtzeko eskatu nion, biharamunean itzultzeko erraztasun handiagoa izan zezan. Lehenengo aldian bezain erraz sartu zen. Aurpegi serioa zekarren. Nire askatasun tresna esku artean

ikusitu nuenean ez nuen ia nire planaren arrakastan zalantza izpirik sentitu. Izan ere bitxia eta ausarta zen. Baina zeri ez ote niokeen helduko nituen arrazoiak ezaguturik! Konturaturik nengoen nire gelatik irten eta korridoreetan zehar paseatzeko baimena eman zidatenetik, ataltzainak iluntzero ate guztietako giltzak nagusiari itzultzen zizkiola, gero isiltasun handia barreiatzen zelarik etxean barrena, mundu guztia geletaratu zenaren seinale. Eragozpenik gabe galeria batetik barrena nire gelatik nagusiaren gelara hel nintekeen. Nire xedea hari giltzak kentzea zen, onean ematen ez bazizkidan, nire pistolaz beldurtuko nuen, eta haietaz baliatuz kalera irtengo. Txit urduri nengoen zain. Ataltzaina ohizko orduan etorri zen bederatziak jota. Ordu bete gehiago utzi nuen harik eta erlijiosoak eta morroiak ohera zitezen arte. Atera nintzen bada, nire arma eta kandela izeki bat aldean neramatzala. Aurrenik nagusiaren atean deitu nuen emaro-emaro hotsik gabe iratzar zedin. Bigarren kolpean sentitu ninduen. Erlijiosoren bat ondoezik laguntza premian zegoelakoan uste izanik atea zabaltzera jaiki zen. Hala ere barrutik nor

zen eta zer nahi nuen galdetzeko axola izan zuen. Nor nintzen esan behar izan nion; baina era urrikgarri batez egin nuen, ondoezik nintzela pentsa zezan.

— A zu zaitugu seme maitea! —esan zuen atea ireki ahala—. Zerk zakartzit horren berandu?

Bere gelara sartu eta atearen beste aldera bultza egiten niolarik, esan nion ez nezakeela aldi luzeagoz St. Lazare-n iraun. Gaua garairik egokiena zela irten ahal izateko inork ikusi gabe, bai eta bere ontasunaren froga bikaina izango nuela atepak zabaltzen bazizkidan edo neuri utzi, nik neuk zabal nitzan.

Nire jentiltasun hark harritu egin zuen non-bait. Denbora hartu baitzuen ezer erantzun gabe pentsatzen. Nik ostera ezin nuen denborarik galdu. Horregatik ekin nion berriro esanez bere onginahi guztiak zeharo hunkitu nindutela baina askatasuna ontasunik desiratuena izanik —batez ere nigan bezala hura zuzentasunik gabe erauzi ziotenen artean—, gau hartan bertan bada erabaki nuela askatasun galdu hura nire egitea edozein eratan. Eta laguntza eskatzeko garrasika



hasiko zenaren beldur atorraren azpian gorderik neraman isilpeko arrazoi sakona ikustarazi nion.

— Pistola bat! —esan zuen—. Nola baina? Baina seme maitea bizia moztu nahi al didazu? Nik zureganako izan dudan begirunea eskertze-ko modua ote da hau?

— Ez beza Jainkoak nahi. —erantzun nion nik—. Zure jakinduria eta zuhurtziak ez ninduke inola ere premia horretan jarriko. Baina pentsa ezazu aske izan nahi dut eta zure erruz lortzen ez badut, zureak egin du.

— Baina nire seme kuttun horrek —ekin zion zurbil eta izu—. Zer egin dizut nik baina nire heriotza desira dezazun? —Ez, inola ere ez, erantzun nion artegatsu. Ez dut zu hiltzeko asmorik; bizi nahi baduzu ireki ezazu atea eta lagunik gotorrena izango naiz.

Mahai gainean zeuden giltzak hartu nituen eta niri jarraitzeko esan nion, ahal zuen zaratarik txikiena eginez. Erabaki beharra izan zuen. Aurrera egiten zuen neurrian zabaltzen zuen ate bakoitzeko hasperen zoliz errepikatzen zidan: — Ai seme halakoa! Ai! Nork sinetsiko zukeen!

— Ez ezazu zaratarik atera aita —berresaten nion aldian-aldian—. Halako batean kaleko ate handiaren aurrean dagoen hesi itxurako batetara iritsi ginen. Nire burua aske ikusten nuen, nagusiaren gibel nindoan esku batean kandela bestean pistola. Bera zabaltzen azkar ari zen artean, ondoko gela txiki batean lotan ari zen morroi batek sarraileen zarata entzun eta burua atera zuen atetik.

Aita nagusiak hura ni harrapatzeko gauza ikusi zuen itxuraz. Orduan zuhurtzearik gabe laguntzeko deitu zion. Mutil tzar indartsua zirudien. Gainean nuen konturatu orduko. Ez nuen zalantza izpirik izan: tiroa bularraren erditik sartu nion.

— Hara, zerren sorburu izan zaren aita jauna —esan nion harrotasunez nire gidariari—. Baina gertakari horrek ez diezazula hasi duzuna amaitzen eragotz. Eta hori esan eta azkeneko aterantz egin nion bultza. Ez zen hura zabaltzera ukatu. Azkenean lortu nuen lortu onik ateratzea. Lau urrats baino ez nuen egingo eta begien aurrean nuen Lescaut —agindurikoa betetzen—, bere bi lagunekin.

Urrutiratzen gindoazelarik, Lescautek ea berak entzun zuena pistola hotsa izan ote zen galdetu zidan.

— Zeure errua da —esan nion—. Zergatik ekarri didazu kargatuta? Hala ere ardura hura hartzeagatik eskerrak eman nizkion. Izan ere osterantzean St. Lazare-n nintzen luzarorako.

Gaua ostatu batean igaro genuen, non ia hiru hilabetetako gosea ase nahi izan nuen. Baina ezin nuen hala ere pozik egon. Manon neraman buru-bihotzetan maiteminez. Harengan pentsatze soilak gogor astintzen ninduen.

— Askatu egin behar dugu —esan nien nire hiru lagunei—. Zio horrek baino ez dit askatasun-irrika eman. Zuen trebeziaren laguntza eskatzen dut. Ni neu bizia bera ere jartzeko prest nago.

Zuhur eta azkarra ere izaten bazekien Lescautek baina arretaz ibili beharra adierazi zidan, zeren nire St. Lazare-tiko ihesak eta bertan gertatu zitzaidan ezbeharrak azantza handia zabalduko omen zuten goiz edo berandu, gainera polizia-buruak ni atxilotzea aginduko zuela, alegia eta St. Lazare-koa baino zerbait latzagorik jasan nahi ez banuen, hobe izango nuela ezkutuan

egon zenbait egunez, harik eta nire etsaien lehen oldarra bare zedin arte. Aholku burutsua iruditu zitzaidan, baina bera betetzeko neu ere izan egin behar. Nire grinek ez baitzuten geldotasun eta gertakuntza hura ulertzen. Beraz eguna lotan igaroko nuela baino ez nion agindu. Hertsirik egon nintzen haren gelan arratsera arte.

Aldi guzti hartan Manon jaregiteko proiektuak erabili nituen buruan. Banekien jakin bere kartzela nirea izan zena baino iragangaitzagoa zela. Han ez zuen indarrak edo gogorkeriak balio, amarruz jokatu behar zen; baina irudimenaren jainkosak berak ere ez zukeen jakingo nondik hasi. Auzi hartan bada lausoa zen nagusi, horregatik zer erabaki hartu atzeratzea erabaki nuen Ospitaleko barne araudia ezagutu arte.

Gauak askatasuna itzuli bezain agudo, nire bila etortzeko erregutu nion Lescauti.

Ataltzainetako batekin mintzatu ginen. Gizon jatorra begitandu zitzaigun. Atzerritartzat jo nuen nire burua, Ospitale Nagusia eta hango ordenaz miretsirik agertu nintzaion. Xehetasun ttipienez galdetu nion, eta zertzeladarik zertze-

lada administratzaileak aipatu erazi nizkion: beraien izen eta aiurrien gainean hitz egin ziezadan eskatzen niolarik. Gai hartaz eman zizkidan erantzunek nire buruarekin guztiz harro jarri ninduen ideia sortarazi zidaten. Denbora laburrean gorpuztu nuen ideia bestalde. Nire egitasmorako guztiz oinarrizko gauza bezala, galdetu nion ea gizaseme haiek seme-alabarik bazuten. Ezin zezakeela hori segurtasun osoz baieztatu, baina Tko M. jaunak —haietako nagusienetako batek— ezkongai zuela seme bat, zeina zenbait aldiz bere aitarekin Ospitalera etorria zen. Egiatzen hark trankildu egin ninduen. Ia berehala eten egin nuen elkarrizketa. Lescauten etxera itzulirik nire asmoen berri jakin erazi nion: —Pentsatu beharrean nago —adierazi nion, Tko M. jauna — semea alegia— aberats eta familia onekoa bere adineko gazteak bezala, plazerzalea izango dela. Ez dut emakumeen etsai bezala ikusten, ez eta hain lotsagarri maitasun-auzi batean bere laguntza ukatzeko bezainbesteko. Manonen askatasunaren alde jarri nahi dut. Gizon ondratu eta sentikorra bada, bere bihotz zabala erakutsiko digu. Zio horrekin ez badugu gureganatzen gutxienez

zerbait egiteko gauza izango da neska maitagarri baten mesedetan, haren faboreen eskaintza lortzeko esperantzatan besterik ez bada ere. Bihar bertan ikusiko dut, ezin dut gehiago atzeratu. Egitasmo hau adur onekoa izango al zait! Barrena lasai uzten dit behintzat.

Lescaut bera ere bat etorri zen nire usteek egiazkotasunik bazutela esatean. Bazegoela beraz bide hartatik zerbait lortzerik. Pentsamendu horrek gaua ez horren triste pasatzen lagundu zidan.

Biharamun goizean nire orduko txirotasunak uzten ninduen bezain dotore apaindu nintzen, eta kotxe alokatuan abiatu Tko M. jaunaren etxerantz. Ezezagun baten bisitak harritu egin zuen. Iritzi ona jaso nuen beraren itxura eta gizabideaz. Umil eta laino mintzatu nintzaion eta bere sentimenduen pizteko nire pasioa eta nire maitatzailearen merezimenduak aipatu nizkion, beren artean baizik aldera ez zitezkeen gauza bi bezala agertuz. Erantzun zidan Manon ez bazuen inoiz ikusi ere, bazuela haren entzutea, Mko G. zaharraren amoranteaz ari banintzen behintzat. Ez nuen zalantza tantarik hark bentura hartan

nik izan nuen esku hartzearen berri bazuenik; hori zela eta nire alde apurka-apurka jartzeko Manoni eta bioi gertatu zitzaiguna zehatz-mehatz kontatu nion.

— Ikusten duzu jauna —jarraitu nuen—, nire bizi eta bihotzaren interesak zure eskuetan dau dela engoitik. Bata bezain bestea dut maite. Ez dizut ezer isiltzen ongi baitakit zure emankortasunaren berri; halaber espero dut adin bertsoak garenez, gure joeretan ere bateratasunen bat izango dela.

Iduri zuen irekitasun eta zintzotasun erakusgarri hark arras hunkitu zuela. Bere ihardespena behintzat gizaseme mundutar sentikorrarena izan zen: horrelako izaerarik munduak ez baitu beti eskaintzen eta bai tamalez galtzera uzten. Esan zidan nire bisita estimatzen zuela oso. Nire adiskidetasunari berriz bere lorpenik hoberenetakotzat irizten, ahaleginduko zelarik bera ere bere aldetik merezimenduak biltzen, zerbitzurik sutsuenak eskainiz. Ez zidan Manon itzuliko zidanik agindu, bere itzala —zioenez— guztiz arrunta eta ez oso fidagarria zelako; baina nire maitea ikusteko nuen irrika ase ahal izango zuela bai

eta nire besoetara itzul zedin ahal zuena egingo. Egia esan bere itzalaren baitan zuen segurtasunik ezak gehiago ase ninduen nire apeta guztiak beteko zituenaren segurtasun osoa eskaini izan bazidan baino. Bere eskaintzen zuhurtzian oso poztu ninduten zintzotasun seinaleak aurkitu nituen. Hitz bakar batez adierazteko bitartekotza hark fruitu bikainik eman zezakeen.

Zer ez ote nuen nik beraren alde egingo Manon ikusteko promesa soilagatik! Pentsamendu haietaz zerbait kanporatu nion, nire izaera ez zela berez txarra frogatu nahi niolarik. Xeratsu besarkatu genuen elkar. Eta lagun bilakatu. Han gure bihotzen ontasunak baino ez zuen agintzen, gizon jator eta eskuzabal batek bere antzeko beste bat maita dezakeen arrazoi bakarraz bulztaturik.

Urrutirago eraman zuen baina bere onginahiaren froga; zeren nire benturen arabera, St. Lazare-tik irten ondoren ez nintzela oso oparo ibiliko eta bere diru-zorroa eskaini baitzidan, onar niezaion errepikatuz. Ez nion hartu, baina hauxe esan nion: —Horren jator eta adiskide azaldu eta gero, nire Manon maitea berrikus



dezadan lor badezazu zure morroi izango nauzu bizi guztirako. Izakirik maitagarriena itzul badiezadazu zain hauetan daramadan odol guztia zuregatik isur baneza ere ez nizuke aski ordainduko.

Noiz eta zein lekutan ikusiko genuen berriro elkar finkatu ondoren, banatu egin ginen. Bilera arratsalde hartan bertan jartzeko begirunea izan zuen. Kafetegi hartara laurak inguruan bildu zitzaidan eta gero batera Ospitalerako bidea hartu genuen. Belaunak dardara bizian neramatzan ataria zeharkatzerakoan.

Oi maitasunaren indarra! —nioen nire artean—. Nire bihotzaren jainkosa ikusi behar dut berriro, nire hainbat zotin eta kezka sorburu! Zeruko Erregea: emadazu bizi-hausporik aski berarenganaino heldu arte, eta gero nahi baduzu zurea bedi nire patua eta nire izate guztia. Ez dizut beste eskerrik eskatzen.

Tko M. jauna egoitza hartako zenbait ataltzainekin hitz egin zuen. Prest agertu ziren segituan behar zenari ekiteko. Manonen kokalekua erakutsi erazi zien. Harantz abiatu ginen ataltzainak giltza tzar bat eskuan zeramala. Manonen ate-

koa zen. Gidatzen gintuen morroi hari —zeinek gainera beraren kontu egiten baitzuen— zer nola pasatu zuen Manonek han zeraman denbora galdetu nion.

Aingeru kutsua hartzen ziola esan zigun. Ez zuela harengandik inoiz hitz zatarrik jaso. Heldu eta lehen sel asteak negarrez igaro zuela, baina bazeramala denboraldi bat zeinetan bere zoritxarra egonarri handiagoz hartzen baitzuen, goizetik arrastirira arte josten pasatzen zuela etengabe, irakurtzeari ekiten zion zenbait orduz izan ezik. Ea egoki gobernatzen zuten ere galdegin nion.

Premiazkoena behintzat ez zitzaiola falta izan ziurtatu zidan. Haren ate ondora hurbildu ginen. Bihotza taupada ezin gogorragoz ari zitzaidan. Orduan esan nion Tko M. jaunari: —Sar zaitez zu zeu bakarrik eta nire etorreraren berri emaiozu, beldur bainaiz ez ote den ni tupustean ikustean gehiegi hunkituko.

Atea zabaldu ziguten. Ni korridorean gelditu nintzen. Hala ere elkarrizketa entzun ahal izan nuen. Kontsolamendu poxi bat zekarkiola esaten ari zitzaion. Nire laguna zela eta gure zorionak

biziki axola ziola. Manonek orduan jakin-nahirik handienaz ea nire nondik norakoaren berri eman ziezaiokeen galdetu zion. Besteak agindu zion berriz berarengana eramango ninduela, berak gogo zuen bezain maitagarri eta fidel.

— Noiz? —galdetu zuen berak. —Gaur bertan —besteak—; zorion-une hori ez da berandutuko; oraintxe bertan desio baduzu ate honen ostetik agertuko zaizu.

Orduantxe ulertu zuen ate ondoan nengoela. Lasterka zetorkidala sumaturik sartu egin nintzen. Hiru hilabetetako absentziak maitemindu perfektuengan sortarazten duen antsiazko xamurtasunaz besarkatu ginen. Gure hasperenek, gure zizpuru etenek, batak zein besteak goxo-goxo ezpaineraturiko maite-ele geldoek ordu laurden batez Tko jauna txunditurik utzi zuten eszena osatu zuten.

— Bekaitz nauzu —esan zidan, jesartzeko esaten zigularik—. Ekintzarik loriotsuena baino anitz estimatuagoa nuke honelako maitatzaile eder eta grinatsua. Munduko erresumarik handiena ezetsiko nuke beraren maitasunaren jabe izateagatik.

Elkar ikuste desiratu haren enparauzkoa ezin zoragarri joan zen. Manon gajoak bere estutasunak kontatu zizkidan, nik nireak. Samin handiz egin genuen negar bere egoera eta nik utzi berri nuenaz mintzatuz. Tko jaunak kontsolatu nahi izan gintuen agintzari berriak egiten zizkigularik, alegia gure nahigabeak amaitzearen alde gogor jardungo zuela esanez. Gure lehenengo elkarrizketa hura gehiegi ez luzatzeko aholkatu zigun, beste berririk lortzeko erraztasun gehiago izan zezan. Oso gaitz izan zitzaigun aholku hari jarraitzea. Manonek ez ninduen joaten uzten. Hamai-ka aldiz eseri erazi ninduen nire aulkian! Arropa eta eskuetatik oratzen zidan: —Baina, zelako egoeran uzten nauzun! Nork berma diezadake berriro ikusiko zaitudanik? Tko jaunak nirekin batera sarri bisitatuko zuela agindu zion: —Leku honi —gehitu zuen hitz atseginez— ezin izango diogu engoitik Ospitalea deitu. Versailles behar du izan, bihotz guztien erregina bertan atxilotua dagoenetik.

Irteeran eskuzabal izan nintzen Manonen ardura zuen morroiarekin. Hura egoki zain zezan gura nuen. Mutil hark bere kideak baino bihozbe-

ra eta zintzoagoa zirudien. Gure elkarrizketaren lekuko izan genuen, eta ikuskizun hark biziki zirraratu zuen. Eskuan jarri nion urrezko luis batek oraindik ere nire alderago jarri zuen. Aparte deiturik honako hau belarriratu zidan: —Jauna, berorren zerbitzupuan hartu gura banau, edo hemen dudan enpleguaren galera-ordainez sari bidezkoa eman, uste dut ez zaidala Manon andereñoa aske uztea zail izango.

Ez nion nik proposamen hari muzin egin. Eta une hartan ezereen jabe ez banintzen ere, bere apetak espero zukeen baino askoz gehiago eskaini nion. Bere giza mailako gizon bati ordaintzea eginkizun erraza gertatuko zitzaidala pentsatu nuen: —Izan ziur laguna —esan nion—, prest naukazula nire esku dagoen edozer zure alde egiteko.

Jakin nahi izan nuen nolako bitartekoak erabili behar zituen.

— Gauean, bere gelako atea zabaltzea besterik ez dut egingen. Eta kalerantz gidatu. Han bera-  
ren zain egon beharko duzu.

Orduan galdetu nion ea korridore eta atariak zeharkatzerakoan ezagutuko zutenaren arrisku-

rik ez ote zegoen. Bazela bai aitortu zidan, baina zerbait lortuko bazuen arriskatu beharra zegoe-la. Mutil hura bere buruaz hain fio ikusirik ere, Tko jaunari deitu nion egitasmo haren berri emateko, eta nire irudiko haren arrakastan eztabai-dagarri ikusten nuen puntu bakarra azaldu nion. Nik baino zailtasun handiagoa aurkitzen zuen. Era hartan ihesa posible zela onartu zuen, baina: —Ezagutzen badute eta gainera harrapatu, bereak egin du ia betiko. Bestalde Parisetik bere-hala alde egin behar izango zenuke. Ez zenuke inguruan ezkutaleku segururik aurkituko. Zure eta beraren bila geroz eta gogorrago ekingo lio-kete. Izan ere gizon bakarrak aise aurkitzen du ihesbiderik, baina ia ezinezkoa da emakume polit batekin ezkutuan irautea.

Arrazonamendu hari guztiz pisuzkoa irizten banion ere, ezin izan zuen Manon aske ikusteko nuen itxaropena garaitu. Horixe bera adierazi nion Tko jaunari.

Maitasunari apur bat axolagabe eta ausart izatea barka ziezaiola eskatuz. Nire helburua hain zuzen, Parisetik alde egitea zela —gehitu nuen— gero, lehenago egina nuen bezala, ingu-

ruko herri batean gelditzeko. Bat etorri ginen morroia eta biok biharamunean bertan ekintza burutzeko. Eta hura ahalik eta errazen bideratzeko gizon-jantziak barrura pasatzea erabaki genuen. Ez zen oso erraza izango. Baina zerbait bururatuko zitzaidan. Tko jaunari bi gainjantzi arin bata bestearen gainean ekar zezala erregutu nion, enparauzkoa nire kontura joango zela. Biharamunean Ospitalean ginen berriro. Aldean neramatzan barrukoak, galtzerdiak etc.; guztiak Manonentzat ziren, eta maripulisaren gainetik patrika hanpatuak ikus ez zitezzen, berokia. Lipar batez igo ginen haren gelara. Tko jaunak bere gainjantzietako bat utzi zion, nik berriz nire maripulisa. Nik neuk nahikoa nuen berokia handik irteteko. Tamalez ahaztu egin nuen galtza baino ez zen falta izan. Ahanzte hark barre-algaran jarriko gintuzkeen baldin eta sortzen zigun estualdia guztiz larria izan ez bazen.

Horrelako zirtzileria batek dena pikutara bota zezakeenik pentsatzeak urduritu egin ninduen. Hala ere erabaki nuen ni neu galtzarik gabe irtetea, nirea Manoni utziz. Horrela luzea nuen berokiari orratz batzuk ezarriz atea zeharkatzeko

bidean jarri nintzen. Harrez gero egunak eman zuen hondarra pisua oso iruditu zitzaidan. Gaua iritsi bezain agudo, Ospitaleko atarira jo genuen, kotxea pixka bat beherago utziz. Ez ginen luzetsirik Manon bere gidariekin begiztatu genuen. Atetila zabaldu eta arin igo ziren biak. Besoekin nire maitea inguratu nuen.

Dardaraz sentitu nuen, hostoa zuhaitzean bailitzan. Kotxeroak norantz jo behar zuen galdegin zidan. —Hoa mundura azkenera —esan nion—, eraman nazak Manonengandik inoiz gehiago banatuko ez nauten lekura. Neurritz kanpoko ateraldi hark larritasun gogaikarria ekarri zidan ia-ia. Hitz haiek gogoeta egitera bultzatu zuten gizon hura. Eta ondoren zein kaletara nahi genuen eraman gintzan adierazi genionean, auzi ilun batean sartuko genuenaren beldurra azaldu zigun. Argi zeukala Manon izena zuen gizon gazte lirain hura Ospitaletik bahitu berri nuen neska bat zela, bera ez zihoala bada, niregatik bere buruari harrika egitera. Elementu haren ele zuriak helburu garbi baten bila zihoazen: bidaia garestiago ordain erazi nahi zidan. Hurbilegi ginen oraindik Ospitaletik. Zuhur jokatu beharra



genuen. —Isil hadi —esan nion—. Badaukak urrezko luis bat irabazterik eta. Hura entzun eta gero, Ospitaleari berari su ematen lagunduko zidakeen. Lescaut zegoen etxera heldu ginen. Berandu izanik, agur esan genion bidean Tko jaunari biharamunean elkar ikusiko genuenaren promesarekin. Morroia gurekin gelditu zen.

Hain neukan nire besoekin estekaturik, kotxe hartako toki bat besterik ez genuela okupatzen. Negarrez ari zen pozaren pozez, bere malkoen hezeak nire begitartea bustitzeraino. Baina kotxetik jaisterakoan Lescauten eme aurrean, ondorio latzak ekarri zituen liskarra izan genuen kotxeroarekin.

Damuturik nengoen jadanik, luis baten eskaintzagatik, ez bakarrik larregi iruditzen zitzaidalako, baizik eta —hau noski arrazoi gordinago nuen— zerez ordaintzerik ez neukalako. Lescauti deitu eta nolako atakan aurkitzen nintzen esan nion belarrira. Umore zakarreko izanik eta inola ere ez kotxero batekin harremanik izaten ohitua, ea txantxetan ari nintzen galdetu zidan:

— Urrezko luis bat! Makila salda ederra emango nioke nik alproja horri. Emeki-emeki trankiltzeko esan nion. Galduak ginen bestela. Niri makila eskutik ken eta kotxeroa jotzeko itxura egin zuen. Gizon hark —nonbait mosketari edo guardiaren baten atzaparretatik inoiz pasatua— ziztu bizian egin zuen ihes beldurrak aldean. Engainatu egin nuela, baina aurki izango nuela beraren berri entzun nion esaten. Ihes hark oso urduri jarri ninduen. Argi neukan komisariarengana joko zuela. Behingoan: —Galbidetan jartzen nauzu Lescaut —esan nion—. Ez naiz zure etxean ziur izanen. Alde egin beharra dugu. Eta Manoni nire besoa eskainiz, kale arriskutsu hartatik desagertu egin ginen. Lescaut gurekin genuen. Miresgarria benetan Probidentziak gertakariak kateatzen dituen era.

Bospasei minutu ere ez ginen ibiliko eta hara non neronek aurpegirik ikusi izan ez nion gizon ezko batek Lescaut ezagutu zuen. Beronen bila zebilen zalantzarik gabe etxe inguruan. Hara zekarren helburu gaiztoa hantxe bertan bideratu zuen. —Lescaut berbera da —esan zuen pistola-

tiroa jaurtikitzen ziola—. Gaur gauean aingeruak izango ditu afalkide.

Ez genuen gehiago ikusi. Lescaut zerraldo erori zen bizi-aztarnarik erakutsi gabe. Ihes egin beharraz konbentzitu nuen Marion, gorpu bati ezin baikenion inolako laguntzarik eskaini. Gainera guardia-talderen batek harrapatuko ninduenaren beldur nintzen, edozein momentutan ager baitzitezkeen. Aurrean genuen lehenengo zeharkaletik abiatu ginen morroia eta hirurok. Bere onetik joanda ikusten nuen. Eutsi egin behar izan nion, ez zen zutik egoteko gauza. Kalearen amaieran kotxe bat begiztatu genuen. Bertara igo ginen; baina kotxeroak nora eraman behar gintuen galdetu zigunean ezin izan nuen hitzik jaulki. Ez nuen aterpe segururik ez eta lagun fidagarririk. Nori eska bada laguntzarik? Ia dirurik gabe gainera, pistola erdia baino ez bainerman patrikan. Manon osteria ia konorterik gabe ondoan. Izuak eta nekeak hain zuten gogor astindu! Nik bestalde Lescauten erailketa nerabilen buruan ezin bazterturik, guardia-taldeak atxilotuko ninduenaren beldur. Zer egin, nora jo?

Chaillot-eko ostatuaz oroitu nintzen nire zorionerako. Han seguru egoteaz kanpo ordaindu beharraren presa handirik gabe bizi gintezkeen aldi batez.

— Eraman gaitzazu Chaillot-era —esan nion kotxeroari—. Ukatu egin zen, pistola bat ez ordaintzekotan. Beste oztopo bat orduan ere. Azkenean ados jarri ginen sei frankotan. Patrikan neraman diru guztia nuen.

Manon kotsolatzen jardun nuen aurrerabidean. Baina neuk ere bihotza etsipenak jota neraman. Nire burua hil izango nukeen nire besoetan biziari atxikitzen ninduen ontasun bakarra izan ez banu. Pentsamendu soil hark gera arazten ninduen: —Nirekin daukat behintzat —nioen nire artean—. Maite nau, nirea da. Alperrik esango du Tibergek baina han ez da zorion-lilura bat. Unibertso osoaren hondamendia gerta liteke eta ni ez nintzateke ezertaz ere jabetuko. Ez dut beste inolako gutziarik.

Sentimendu hura egiazko nuen. Hala ere munduko ondasunei hain jaramon gutxi egiten nien garai hartan ohartzen nintzen gutxienez haien zatiren bat behar izango nuela gainontze-

koari lasai muzin egin ahal izateko. Maitasuna ugaritasuna baino indartsuagoa da, altxor eta aberastasunak baino areago, baina beraien laguntza behar du, eta ez da maitale sentibera-rentzat gauza etsigarriagorik beraien kausaz eta bere gogoaren kontra arimarik arruntenen sas-karkeriara eramana izatea baino.

Hamaikak ziren Chaillot-era iritsi ginenean. Ia-ia etxeko moduan hartu gintuzten ostatuan. Ez zituen harritu Manon gizonezko jantziarekin ikusteak, ohituak baitaude Parisen eta bere inguruetan emakumeak nolanhiko itxuratan ikusten.

Zerbitza zezaten agindu nuen, nire ondasunen egoera ezin bikainago bailitzan. Manonek ez zekien ni diruz hain eskas nenbilenik. Kontu handia izan nuen berari hartaz deus ere ez esaten, biharamun goizean Parisera bakarrik joateko asmoa bainuen, ea eritasun antzeko gaitz erdeinagarri hari sendagairik aurkitzen nion. Afalorduan zurbil eta argal zegoela ohartu nintzen. Ospitalean ez nintzen horretaz konturatu nik aurkitu nuen gela hartan ez baitzen argirik sobe-ran. Guzti hura ea bere nebaren erailketak sortu

zion izualdiaren ondorioa ote zen itaundu nion. Ez behar hark txit aztoratu bazuen ere, esan zidan bere zurbiltasuna hiru hilabetez ikusi ez ninduelako zela.

— Bene-benetan maite al nauzu baina? —galdetu nion.

— Adierazteko gai nintzatekeen baino mila aldiz maiteago —berak arrapostu.

— Ez nauzu orduan inoiz gehiago utziko? —nik.

— Ez. Inoiz ere ez —berak.

Eta bere promesa zin eta laztanez bermatu zidan, hainbat non inoiz haiek ahantz zitzakeenik ezinezko iruditu baitzitzaidan. Beti pentsatu izan dut benetan ari zela, zeren osterantzean zein arrazoi izan zezakeen kontraesan hain nabarmenetan sartzeko? Baina sasoi hartan oraindik ere burua arinagoa nuen.

Edo agian hobeto adierazteko, ez zen ezer, ez baitzen bere buruaren jabe sentitzen begien aurrean oparotasunean igeri zebiltzan emakumeak ikusten zituenean, berak ostera bere burua premia gorrian, pobre sentitzen zuen bitartean.

Inoiz nire jatorri eta adurreko gizaseme bati gertatu ez zaion bentura estrainiorik handiena nozitzeko bezperan nintzen. Gainontzeko guztiak garaitu izan dituen froga baten aurrean hain zuzen. Aldarte hartan ezagutzen nuenez bihararumun goizean agudo atera nintzen Pariserantz. Beraren nebaren heriotza, biontzat behar genituen arropak eskuratzea, arrazoi sakonak nituen bestelako aitzakiarik bilatzen hasi gabe. Manoni eta ostalariari esan nien kotxe alokatua hartzeko xedeaz nindoala. Baina hura harropuzkeria nuen. Premiak beste erremediorik gabe bidea oinez egitera eraman baininduen, oso azkar gainera Erreginaren Ibilbideraino bertan gelditzeko asmoa nuelarik. Bakardade unetxo bat beharrezko nuen Pariseko eginbeharrak nolabait antolatzeko.

Belar gainean eseri nintzen. Gogoeta eta arrazonamenduzko hodei batek irentsi ninduen. Ttipituz-ttipituz zetozen hiru gai nagusi antze-man nituen. Orduko premia larri ugarik laguntza ezin azkarragoa eskatzen zuten. Etorkizunean aterpe hartan, eta etor zitezkeen premiei begira,

garaikoak bete ondoren zerbait bururatuko zitzaidala pentsatu nuen.

Nire zorroa betetzea nuen lehenengo jomuga. Tko jaunak beretik eskaini zidan eskuzabal-tasunez, baina igun handia ematen zidan berari eskaintza haren gogora eraztea. Zeinen barregarri ezezagun bati norbere miseriaren berri jakin eraztea, bere ondasunen partaide egin gaitzan erregutuz! Apalkeriak inarrositako arima ahul duintasunik gabeak baino ez lirateke gai horrelakorik burutzeko, edo agian baita lotsa hori gainditzeko bihotz guztiz zabala lukeen giristino umila. Ez nintzen ez ni ez gizon ahula ez eta giristino umila. Horregatik nire odolaren erdia eman izango nukeen desohore hari itzur egiteagatik.

«Tiberge, Tiberge —errepikatzen nuen nire artean—, Tiberge zintzoak ukatuko al dit ezer beretik? Ez. Nire lazeriak hunkitu egingo du, baina ez al nau era berean bere irakaspen moralekin erotuko? Beraren destaina, aholku, eta mehatxuak jasan beharko ditut. Garesti ordaindu beharko dut haren laguntza hainbat non nire odol-isuri handi bat emango bainuke aztorapen



eta damu kutsurik baino uzten ez didan horrela-ko egoera gogaikarria ez jasateagatik. Horrela bada, zernahi esperantza baztertu behar dut, ez baitzait beste salbazio biderik gelditzen. Bi irtenbide horiek baino ez ditut, baina berriz diot nire odolaren erdia aiseago emanen nuke beroietako edozein aukeratu baino lehen, are gehiago esanen nuke: zain hauetatik ibili dabilen odol guztia, bata ere ez erabiltzeagatik. Bai odol guztia — nioen nirekiko—, hausnarketa laburraren ondotik, pozago zalantzarik gabe nire burua arren duingabeko baten gutxiespena jasan baino lehen.» Baina auziak ez du soilik nire odolean mugarri. Ez. Manonen bizi-iraupena dago jokoan. Manonen maitasuna eta fideltasuna. Ba ote dut beroiekin aldera dezakedan tasunik? Aintza, zorion eta ondasun-jabe egin nau. Zerbaiten alde edo kontra bizia emanen nuke, baina gauza bat norbere bizia baino gehiago estimatzea ez da arrazoi Manon bezain estimagarria denik esateko.

Arrazonamendu hark ebazpen azkarra ekarri zidan. Nire bideari lotu nintzaion, Tibergeren etxerantz jotzeko asmoz eta bertatik Tko jauna-

rengana. Pariseko sarreran, kotxea hartu nuen nahiz eta ordaintzeko dirurik ez eraman. Eskatu behar nuen diru-laguntzaren kontura ari nintzen. Luxembourg alderdira eraman nintzan agindu nion kotxeroari. Handik mandatua bidali nion Tibergeri zain nindukala adieraziz. Laster agertu zen nire egonezina baretuz.

Itzulingururik gabe nire premien larritasuna aitortu nion. Itzuliak nizkion ehun pistola haiek ez ote nituen aski izanen itaundu zidan. Eta beste inolako hitzik erantsi gabe, haien bila abiatu zen une hartan bertan. Maitasunak eta benetakako adiskidetasunak ematerakoan erakutsi ohi duten atseginezko aurpegiaren ezaugarriak erakutsiz. Nire eskabidearen arrakastan zalantza errainurik ez baneuka ere, oso harritu ninduen hain prezio merkean lortu izana, hots nire damu ezagatik inolako agirakarik egin gabe. Baina oker nenbilen nire burua bere haserretatik salbu sentitzean; izan ere bere diru-kontaketa amaitu bezain laster elkarrekin ostera bat egiteko erregutu zidan. Ez nion Manon izendatu ere egin. Berak ez zekien hura aske zenik. Gauzak horrela bere jardun moralizatzaileak nire St. Lazare-tiko

ihesa baizik ez zuen aipagai izan. Beldur zen berarengandik jasoriko zuhurtasunezko erakutsiez baliatu orde ez ote nuen berriro ere bide lardaskatua aukeratu. Jarraitu zuen esanez, nire ihesaren biharamunean St. Lazare-ra ni ikustera iritsi zelarik, guztiz aho zabalik gelditu zela handik nola ihes egin nuen jakin zuenean. Nagusia-rekin mintzatu zela auzi hartaz. Eta gizon on hura oraindik ere bere izua pasatu gabe ikusi zuela.

Hala ere polizia-buruari nire ihesaren zertzeladak isiltzeko jenerositatea izan zuela; eragotzi egin zuela bada, ataltzainaren hilketa handik kanpora zabal zedin. Alde hartatik behintzat ez nuen zertan beldurrik izan behar. Baina zuhurtzia poxi bat sikiera banuen —gehitu zuen— zeruak nire arazoei eskaintzen zien adur onaz baliatu beharra nuela hasteko, nire aitari idatziz eta berarekin adiskidetuz. Azkenik bere aholkua behin behintzat jarraitu nahi banuen, Paris utzi eta familiaren magalera itzultzea gomendatzen zidala.

Amaitu arte entzun nuen beraren berbaldia. Bazen han gauza baikorrik. Pozarren jakin nuen

hasteko, St. Lazare aldetik ez nuela inolako bel-  
durrik izan behar. Berriro ere Parisko kaleak ibil-  
gune libre nituen. Bigarrenik Tibergek Manonen  
libertate eta niregana itzultzearen berririk ez iza-  
teak trankil utzi ninduen. Areago oraindik, nire  
lagunak Manoni buruz ezer ez aipatzeak hura  
nire bihotzean lehen bezain sakon sarturik ez  
nuela pentsatzen zuelako izan zitekeen agian,  
sujet hartaz lasaiago azaltzen bainintzen. Bera-  
ren aholkuari jarraituz etxera itzultzea ez, baina  
aitari idaztea behintzat bai erabaki nuen. Adiera-  
ziko nion bere nahiak eta nire eginbeharrak  
betetzeko gertu ninduela. Dirua bidaliko zidan  
esperantza banuen, nire akademiako azterketak  
aitzaki. Zeren oso zaila izango baitzitzaidan bera  
konbentzitzea eliza-estatura itzultzeko asmoa  
nuela adieraziz. Funtsean ez nintzen agindu nahi  
nion xedean egiaren muintetik urrun. Aitzitik  
banuen gogorik, onest eta zentzuzko zerbaiti  
atzemateko, asmo hori baina beti ere nire maite-  
bizitzarekin uztartzekotan. Nire maitearekin bizi  
nintekeen aldi berean ikasketak burutzen nitue-  
larik. Guztiz uztargarriztat jotzen nituen. Hain  
ninduten jomuga haiek asebate, ezen agindu

bainion Tibergeri egun hartan bertan aitari gutuna bidaliko niola. Esan eta egin. Gutun hartan xamur eta menekoi agertu nintzaion, hainbat non hura berrirakurtzean haren bihotza hunkitu eta zerbait lortuko nuela segur bainintzen.

Tiberge agurtu ondoren kotxea ordaintzeko adina diru baneuka ere, harro-harro abiatu nintzen oinez Tko jaunaren etxerantz. Nire askatasunaren dastatze hartan atsegin handia hartzen nuen. Lagun agurtu berriak adierazi bezala ez nuen jadanik inolako beldurrik izan behar. Hala ere bat-batean gogoratu nintzen haren bermatasuna St. Lazare-ko ormetan zuela mugarri, eta hartaz kanpo Ospitaleko auzia ere nire bizkar neramala. Lescauten erailketa kontatu gabe, zeinetan nahasturik bainengoen, lekuko bezala baino ez bazen ere. Oroitzapen hark txit aztortu ninduelarik lehenengo ikusi nuen bidetik aldendu nintzen eta bertatik kotxe bati deitu. Zuzen-zuzen jo nuen Tko jaunaren egoitzara. Nire izua ikusirik barreari ekin zion. Neuk ere nire burua irrigarritzat jo nuen, esan zidanean ez zetorkidala Ospitaletik eta Lescauten auzitik inolako arriskurik. Esan zidan, Manonen bahiketa

zela eta, bada ezpada, Ospitalera jo zuela goizean bere kontra susmorik ba ote zuten jakitera. Manonengatik galdetu omen zuen gertatu zenaz ezer ez baleki bezala. Gu biok salatzetik oso urrun zeudela, behingoan kontatu baitzioten harriturik zeudela nola hain polita zen Marion hark morroi batekin egin zezakeen ihes. Berak bere aldetik llabur erantzun omen zien guzti hura ez zela harrigarria, askatasunagatik edozer egiten dela adieraziz. Hariari jarraituz, Lescauten etxera jo omen zuen nire maite kuttunarekin han egongo nintzen esperantzarekin. Baina etxeja-beak —kotxe-egilea berau— erantzun omen zion ez gintuela bata ere ikusi. Ez zela edozein modutan harritzeko gauza, gu han ez agertzea, Lescauten bila bagindoazen behintzat, orduantxe bertan hil egin baitzuten. Gertakari hartaz ez omen zen gizon hura mutu gelditu, hilketaren zergatik eta nolakoaz zabal mintzatu baitzen. Bi ordu lehenago guardia-lagun bat etorri omen zitzaion jokoan egiteko asmoz. Lescautek hainbat diru omen zuen irabazi, non lehiakidea ordu beteren buruan larruturik poltsikoan ehun ezku-tu gutxiago zeukala aurkitu baitzen. Zorigaiztoko

hark sosik gabe aurkitzen zelarik, galdu zuen diru-kopuruaren erdia maileguz itzul ziezaiola erregutu zion besteari. Auzi haren inguruan sortu ziren gorabeherak lagun bien arteko liskar handia sortarazi omen zuten. Lescautek ez omen zuen auzia ezpataz ebatzi nahi izan, besteak berriz zin egin omen zion alde egiterakoan burua txikituko ziola, mehatxua gau hartan bete zuelarik. Une hartan gure etorkizunak oso kezkatu zuela aitortzeko lautasuna izan zuen Tko jaunak. Halaber jator agertu zen bere zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko prest zegoela esan zigunean. Gure ezkutalekuaren kokapena zalantza fisik gabe adierazi nion. Gurekin afaltzera etortzeko baimena eskatu zigun.

Manonentzako zenbait jantzi eta aldagarri erosi besterik ez neukanez, orduantxe bertan irten gintezkeela esan nion, aurretik nirekin zenbait dendatara sartzea gogozko bazuen. Nik ez dakit egin nion proposamen hura bere eskuza-baltasuna bultzatzeko erabiltzen nuela uste izan zuen ala bere berezkotik irten zen; gauza da berehala irteteko prest agertuz, bere etxea hornitzen zuten merkatariengana eraman ninduela.

Bertan nik aurrez pentsaturiko baino askoz garestiago ziren ehunak erostera behartu ninduen. Ordaintzeko garaia heldu zenean berriz, saltzaileei nigandik ez zezatela deus ere onar agindu zuen. Eta hain zuen bere emankortasun hura fintasun handiz burutu ezen iruditu baitzitzaidan hartaz ahalkerik gabe balia nintekeela. Chaillot-erako bideari lotu gintzaizkion. Irten ginen baino lasaiago itzultzen nintzen.

Griex-ko zaldunak narrazio honen haritik ordubete baino gehiago eman zuelarik, atsedendalditxo bat bar zezala erregutu nion, gurekin afaltzera geldituz. Gure arretak argi utzi zion jakin-min handiz jardun genuela entzuten. Segurtatu zigun halaber bere historiaren jarraipenean oraindik anitz interesgarriagorik aurkituko genuela.

Eta afari-legea amaitu bezain laster, honelatsu berrekin zion:



# BIGARREN ATALA

Nire presentziak eta Tko jaunaren fintasunak Manonen legokeen tristuraren azken aztarrenak ezabatu zituen. —Ahantz ditzagun nire bihotzeko horrek iragan izuak —esan nion heldu-berri nintzelarik—, eta berrekin diezaiozun inoiz baino zoriontsuago bilakatuko gaituen bizitza berriari. Esanak esan maitasuna maisu ona dugu. Patuak ez bailiguke hark goza arazten dizkigun plazeren bezainbesteko pena sortaraziko.

Afaria alaitasun ederrean ospatu genuen. Manon ondoan eta beste ehun pistola haiek Parisko aberatsik handiena bere altxor metatuekin baino harro eta pozago sentitzen nintzen. Izan ere aberastasuna asebetetzen dituen desiren arabera hartu behar da kontutan. Nik denak beteak nituen. Etorkizunak berak ere ez ninduen lar kezkatzen. Ia segurtzat jotzen nuen gure aita ez zela ukatuko niri Parisen lasai bizi ahal izateko ondasun adina eskuratzen. Nire 20. urtean nengoen, beraz amaren ondaretik zegokidan zatia eskatzeko eskubidea nuen. Ez nion Manoni

ezkutatu nire altxor guztia ehun pistolatan gerezten zela. Nahikoa nuen adur hobearen esperotan egoteko, nire ahaleginez edo jokoaren baliabideez urritasunik ez nuela ezagutuko uste bainuen. Hori horrela, lehenengo asteetan nire egoeraz gozatzea baino ez nuen buruan. Ohorearen indarrak eta poliziak oraindik ere sortarazten zidan ardurak, egunetik egunera gibel erazi ninduten Transilvania hoteleko bazkideekin nuen harremana berrekitetik. Hori zela eta bilera xumeagotan jokatu nuen non zorte onak jukutriarik egiteko premiarik ez baitzidan utzi. Ordu batzuk hirian igaro ohi nuen. Afalordurako Chaillet-en nintzen berriro, maiz Tko jaunaren konpainian. Geroz eta adiskide minago genuen berau. Manonek bestalde topatu zuen sendagairik asperraldiaren aurkako. Udaberriak inguru hartara erakarri ohi zuen gazte jendearen ezagutza egin zuen. Paseatzea eta emakumeari ohizko zaizkion zereginak zituen jardungai. Berek araturiko jokoaren bidez kotxearen zenbatekoa ordaintzen zuten. Boulogne-ko basoa zuten egurats-leku. Eta nik arratsaldean itzultzen nintze-

nean inoiz baino ederrago, pozago eta grinatsua-  
go aurkitzen nuen.

Hala ere zenbait hodei agertu ziren gure zerura, gure zorionarentzako mehatxu-iduri. Baina arin desagertu ziren. Manonek bere izakea alaiaz oso amaiera barregarria eman zion gertakari hari, hainbatekoa non harrez gero oraindik ere oroitzapen ezin eztiago baitzait Manonen xamur eta gozotasunaren lekuko. Egun batez gure morroi bakarrak aparte deiturik sekretu garrantzitsu bat jakin erazi nahi zidala esan zidan urduri oso. Lasai hitz egiteko agindu nion.

Itzulinguru batzuen ondotik ulertu nion zaldun atzerritar bat Manonekin maitemindurik zegoela. Odol asaldapena sentitu nuen zain guztien barrena.

— Eta berak maite al du —moztu nion jakin-minez zuhurtziak eskatuko zukeen baino era trauskilagoz—. Nire bizitasunak beldurtu egin zuen nonbait. Kezkaturik edo, bere begiak ez ziola horrenbeste ikusten utzi, baina bazela zenbait egun nabaritu omen zuen aipatu atzerritarra oso maiz agertzen Boulogne-ko basoan.

Berak orduan nor zen gizaseme hura jakin nahi eta beraren zerbitzari zenbaiti galdetu omen zien ugazabaren izenaz. Italiar printze bezala gurtzen omen zuten eta beraiek ere horrelako galai bati zegokion bentura sumatzen omen zioten. Ez zuela bestelako argitasunik lortu ahal izan gehitu zidan dardara betean, zeren orduantxe bertan printzea basotik irten zelarik berarengana urreratuz bere izenaz galde egin omen zion laino-laino. Erantzun ondoren, igarri zuelarik gure zerbitzuan ari zela, zorionak eman omen zizkion munduko pertsonarik xarmangarrienaren agindupean ari zelako.

Egonezinez kontaeraren jarraipena espero nuen. Baina hark herabeti aitzakiak ipiniz amaitutzat jo zuen hura, agian nire neurritz kanpoko asaldapenagatik.

Zabal mintza zedila nahi izan nuen baina alperrik. Ez zekiela ezer gehiago berretsi zidan. Gainera kontatua bezperan gertatua zenez ez zuela harrez gero printzearen zerbitzaririk ikusi. Goraipatu egin nuen beraren jokabidea eta tran- kil zedin eskusari bat eskaini nion. Gero neu ere trankildurik atzerritarraren gorabeherak zain

zitzala agindu nion, Manonengan inolako mesfidantzarik azaltzen ez niolarik. Baina azken finean bere beldurrak zalantza latzak utzi zizkidan. Manonek beharturik egiaren alde bat isildu ote zidan? Hala ere gogoeta egin ondoren ahaztu egin nituen nire susmoak. Eta damu izan nuen halako ahulezia froga eman nuelako; izan ere ezin ezer lepora Manoni gizonengandik maitatua izateagatik. Gainera itxura guztiak zeuden atzerritarraren gurarien berririk ez zuela pentsatzeko. Nolako bizitza eramango nuen bestela nire bihotza hain azkar eta aise jeloskor bilakatzen banuen?

Parisera itzuli nintzen biharamunean. Nire ondarearen pilatze azkarra baino ez nuen gogotan. Horretarako geroz eta ausartago jokatu nuen Chaillot-etik alde egiteko egoeran izateko zerbait kezka garririk sumatzen banuen. Gau hartan ez zidan ezerk atsedena eragotzi. Atzerritarra berriro ere Boulogne-ko Basora etorria omen zen, eta nire konfidentearengana urreratuz bere maitasuna aipatu omen zion, bere hitzetan baina Manonekiko inolako loturarik antzematen ez zitzaiolarik. Hainbat xehetasuni buruz galdetu

omen zion. Azkenean bere apeten sarera erakarri nahirik promesa handiak luzatu omen zizkion; aldean zeraman gutuna Manoni eman ziezaion urrezko luis batzuk eskainiz. Baina besteak ez omen zion onartu.

Beste bi egun iraungi ziren inolako auzirik gabe. Hirugarrenak ostera ekaitza bildu zuen. Paristik berandu xamar itzuli nintzelarik jakin nuen Manon bere pasiadan banatu egin zela une batez bere lagunengandik. Eta atzetik hurbil zetorkion atzerritarrari berak egin zion keinuari jarraiki etorri eta gutun bat eman ziola, zeina zaldun hark pozezko zeinuak eginez jaso baitzuen. Poz hura gutunari musu emanaz adierazteko astia baino ez omen zuen izan, Manon oso arin desagertu baitzen. Baina egunaren azken hatsetan poztasun handia agertu zidan. Etxera itzuli zenetik ez zuen umore eder hura galdu. Hitz bakoitzak errai guztiak eragiten zizkidan. — Seguru al zaude —esan nion goibeldurik nire sehiari—, zure begiek traditu ez zaituztenik? Jainkoa jarri zuen bere fede onaren lekuko. Ez dakit nire bihotzeko aztorapen haiek noraino eramanen ninduketen baldin eta sartzen entzun

zidan Manonek nire aitzinera etorri eta ezinegon itxuran nire geldotasuna leporatu izan ez balit. Ez zuen nire ihardespenik espero izan eta musuz ase ninduen.

Bakarrik geratu ginenean hain berandu itzul-  
tzeko hartua nuen azturaz kexu azaldu zitzaidan biziki. Nire mututasunak hizketan jarraitzeko aukera ematen zionez, esan zidan bazela hiru aste berarekin egun osoa pasatu ez nuela. Ezin zezakeela bada, absentzia hain luzerik nozi. Eta noizbehinka egun bat beretzat nahi zuenez, biharamunetik hasita goizetik arratsera bere ondoan gura ninduela.

— Hementxe izango nauzu. Ez zalantzarik izan —erantzun nion apur bat zakarki.

Berak ostera ez zion jaramon handirik egin nire arrangurari, aitzitik alaitasun berezia erakutsiz, eguna nola joan zitzaionari buruz hamaika aipamen irrigarri egin zidan.

— Neska harrigarria —nioen nirekiko—, zer ote darraio aurre-solas horri? Gure lehenengo banaketa etorri zitzaidan gogora. Hala ere bere poz-laztanetan kanpo itxurekin bat zetorren benetako oinarria antzeman nuen.

Ez zitzaidan zail gertatu, afarian zehar isilarazi ezin izan nuen nire tristura jokoan izaniko dirugalera bati leporatzea. Abantaila handikoa iritzi nion Chaillot-etik biharamunean alde ez egitearen ideia Manonek berak proposatu izateari. Horrela denbora irabazten bainuen nire gogoetarako. Ni bertan izateak edonolako zurrumuruak isilarazten zituen. Eta ustekabeak ez bazituen nire ikerketak atzeratzen behintzat, erabakirik neukan, biharamunean gure Pariserako aldaketa egiteko, nire inguruan printzerik izango ez nuen auzune batetara. Nahiz eta nire erabaki hark gau lasaiago bat ekarri, ez zidan infidelitate berri baten beldur mingarria ezabatu.

Iratzarri orduko erran zidan Manonek, egunez etxean egon behar banuen ere, ez ninduela narraz itxuran ikusi nahi. Berak propio orraztuko zizkidala txima haiek. Ile ederreko nintzen garai hartan. Maiz aritzen zen jolasa zuen. Baina egun hartan inoiz ez bezalako gogo handiz hartu zuen lan hura. Inoiz bere guraria asebetetzeko, apain-mahaian jesarririk berari iruditzen zitzaizkion ukitu guztiak hartzera behartzen ninduen. Apainketa hartan beregana begira jartzen ninduen,



eta bere bi eskuak nire sorbaldetan ipiniz, antsia zerion kuriositateaz begiratzen. Ondoren bere adostasuna musu zenbaitez adierazirik, ohizko egoerara itzularazten ninduen bere lanean jarraitzeko. Hartan honetan, zozokeria hark bazkal orduan izan zuen amaiera. Lantxo hartan izan zuen gozamena hain iruditu zitzaidan benetakoa, bere alaitasuna hain berezkoa, ezen etengabeko agerpen haiek traizio beltz baten erreze-loarekin uztartu ezinik nire bihotz barrena zabalteko gogoia etorri baitzitzaidan behin baino gehiagotan, geroz eta astunago nuen zama hura arintzeko. Nik baina aurrean nuen bihotz hura lehenago zabal zedin espero nuen, eta esperantza horretan garaipenaren ametsak bereganatzen ninduen.

Bere apain-mahaira itzuli ginen. Nire adatsa apaintzeari ekin zion berriro ere.

Bere gutiziei amore ematen ari nintzen unean jakin erazi zioten Xko printzea berarekin hitz egin nahi zuela. Izen hura entzuteak zeharo sutu ninduen.

— Zer da hau baina? —aldarrikatu nuen urrutiratzen nintzaiolarik—. Nor duzu? Zein printze? Ez zion nire itaunari erantzun.

Aurpegia aldatu gabe esan zion morroiari: — Esan igotzeko. —Orduan nire aldera buelta emanenez hauxe adierazi zidan: —Nire maite kuttuna. Zeu zaitut nire hats eta arnas —jarraitu zuen doinu xamur batez—; izan zaitez bihozbera. Utzi une bat. Unetxo bat baino ez. Eta mila aldiz biderkatuko dizut nire maitasuna. Eta bizi guztian eskertuko.

Sumindurak eta harridurak mihia trabatzen zidaten. Bera erreguka niri, ni osteria haiek errefusatzeko esamoldeak bilatzen. Baina gela-aitzineko atea irekitzen sumatu zuelarik, sorbalda-rantz luzatzen ziren nire ileei esku batez helduz eta besteaz ispilua, indar handia eginez gelako ateraino herrestan eraman ninduen, eta hura belaunaz zabaldurik, zaratak gela erdian geldiarazirik zirudien arrotz hari harridura ez gutxi sortu izango zion ikuskizuna eskaini zion.

Ongi apainduriko gizona zen, ez oso lerdena bestalde. Eszena hartan oso desegoki ikusten bazuen ere bere burua, gurtu egin gintuen

nabarmenki. Manonek ahoa irekitzeko astirik eman gabe bere ispilua erakutsi zion esanez:

— Ikus berorrek jauna. Begira ongi eta epai. Maitasuna eskatzen dit. Hona hemen maite dudan gizona, zeini bizi osoan maitatuko dudala zin egin diodan. Berorrek aldera beza. Nire bihotzaren lehiakide izan nahi badu beraren aurrean esan beza arren zertan oinarritzen duen bere arrazoia; zeren berorren zerbitzari txit apal honen iritziz, Italiako printze guztiek ez baitute eskuan dudan bilo hauetako bakar baten beste balio. Hark aurretik agian prestaturik zeukan hitz erauntsi ero hari jarraitzen zion bitartean, nik alferrikako ahaleginak egiten nituen nire burua askatzeko. Eta hain itzal handiko gizasemeaz erruki, irain txiki hura nolabait kitatzeko gizalegez mintzatu nahi izan nintzaion. Baina gizon hura azkar itzuli zen bere aztorapenetik nik nahiko trauskiltzat jo nuen ondoko erantzunak nire hasierako xedea eten egin zuelarik:

— Andereño, andereño —jaulki zuen irribarre behartu batez—; begiak ireki ditut bai eta garbi ikusi dut ez zarela irudikatu izan zaitudan bezain hasiberria.

Hura esan eta berari begiratu gabe alde egin zuen marmarrean, zioela alegia, frantziar emakumeak ez zirela italiarrak baino hobeak. Ez nion nik ez egoera hartan geure emakumeei buruzko iritzia alda zezan eskatuko.

Manon bere aldetik nire ileak utzita, besaulki batean etzan zen, gela bera dardaratzerainoko barre algara ozenak jaurtikiz. Ez dut ukatuko barne erraietaraino hunkitu ninduela maitasunak berak eraginik zirudien sakrifizio hark.

Edozein modutan nire desadostasuna agertu nion iseka gehiegizkoa iruditu zitzaidalako. Berak adierazi zidanez nire lehiakidea zenbait egunez Boulogneko basoan une oro atzetik izan omen zuen, bere sentimenduak zeinuka adierazten zizkiolarik, azkenean erabaki zuelarik nonbait deklarazio garbia egitea izen eta titulu guztiak barne, zio horretarako Manon eta bere lagunak zerbitzupuan ziharduen kotxeroaren bitartez helaraziko zion gutunaz. Bertan mendiaz bestaldean ondare bikaina eta gurtza betierekoa eskaintzen omen zion. Halaber —jarraitu zuen Manonek— berau, Chaillot-era itzulia zela niri bentura haren berri emateko asmoz, baina ger-

taera hartatik barregai anitz atera genezakeela pentsaturik ezin izan ziola bere irudimenari hesirik jarri. Guzti horrengatik balakuzko erantzuna eman omen zion printze italiarrari bere etxean bisitatzeko aukera eman ez, bere bigarren dibertimendua berriz ni neu ere inongo susmorik gabe, bere planean sartzea izan zela. Nik nire aldetik ez nion esan beste bide batetatik iritsi zitzaidana. Eta maitasun garailearen lilura eztiak dena baieztatzera bultzatu ninduen.

Ohartua naiz nire biziaren ildo guztietan barrena, Zeruak nire zoriona sendoenik aurkitzen zen garaian zigorrik handienak ezarri izan dizkidala. Tko jaunaren adiskidetasunak eta Manonen xarmak hain ninduten erabat asebetetzen inork ez zidala sinestaraziko zoritxar berri bat zetorkidanik. Hala ere gorpuzten ari zen bat hain ikaragarria ezen Pacy-n ikusi ninduzun paraderora eraman ninduen eta urratsik urrats egoera hain negargarrietara non nire kontraera egiazkoa denik zeuri ere sinesgaitza egingo zaizun.

Tko jauna geurean afaltzen ari zen gau batean, ostatu aurrean gelditu zen kotxe baten

zarata entzun genuen. Jakin-minak nor izan zitekeen ordu haietan galdetzera eramán gintuen. Mko G. gaztea zela esan ziguten, hau da gure etsairik gogorrenaren semea, hain zuzen ni St. Lazare-n eta Manon Ospitalean atxilotu gintuen agure lizun berberarena. Bere izenak irekitan jarri zidan odola.

— Zeruak bidaltzen dit —esan nion Tko jaunari—, bere aitaren itsustasuna berarengan zigor dezadan. Ez dit ez, ihes egingo, geure ezpaten zorrotza neurtu baino lehen.

Baina Tko jauna ongi ezagutu ez ezik haren lagun hoberenatariko izanik, etorriari berriari buruz bestelako iritzia izan nezan saiatu zen. Haren esanetan gizon gazte atsegina zen. Ez zukeela bestalde bere aitaren portaerarekin zer ikusirik, eta berarekin harremanetan hasiz gero arin eskaini izango niola nire oniritzia era berean berarena desiratzen nuelarik. Haren alde beste edozenbat iritzi on eman ondoren, gizaseme harengana joan eta guregana esertzera etor zedin proposatzeko baimena eskatu zidan, nahi bazuen afaria gurekin amai zezakeelarik. Gure etsaiaren semeari Manonen egoitza erakustek

zekarkeen arriskuaz, adierazi zigun bere ohore eta fedea lekuko, hark gu ezagutu bezain azkar ez genuela inoiz defendatzaile sutsuagorik izango.

Bermatasun haiek entzunda, ez nuen inolako eragozpenik ipini. Tko jaunak aurrez gu nor ginen azaldu eta gero urreratu zigun. Ibileratik bertatik itxura ona utzi zigun. Besarkatu egin ninduen. Manon, neroni, eta zegokigun dena goraipatu zituen. Ondoren erakutsi zuen jateko gogoaz goi mailan jarri zuen gure afaria. Mahaia jaso ondoren gure berriketak seriotasun handiagoa hartu zuen. Begiak jaitsirik, bere aitak gureganako izan zuen gehiegikeriaz mintzatu zitzai-gun. Barkatzeko eskatu zigun: —Ez nauzue auzi horretan luzatuko, ez dut berriro ahalkea baino sortzen ez didan oroitzapena gogoratu nahi.

Bere jardunari hasieratik bertatik egiatasuna baldin bazerion, ondorengoan areago erakutsi zigun. Ordu erdiz besterik ez ginen gure solasean ari izango konturatzen hasi nintzenerako Manonen bertuteak izugarri zirraratzen zutela.

Begirada eta modu geroz eta xamurragoak erakusten zituen. Ez zuen ez bere berbaldian

horrelakorik ezer isuri, baina ai alajaina! Bane-  
kien nik ongi jakin ere maitasun kontutan bide  
horretatik jarraituz, jelsia alde batetara utziz,  
zer datorren bereizteko.

Gauaren aldi bat gurekin pasatu zuen bere  
poza agertuz ezagutu gintuelako. Ondoren bere  
zerbitzuak eskaini zizkigularik, gu ikustera etor-  
tzeko baimena eskatu ondoren utzi egin gintuen.  
Goizaldean bere kotxean jesarlekua hartu zuen  
Tko jaunarekin joan zen.

Ez nintzen inondik ere, arestian esan bezala  
jeloskorra berez. Inoiz baino sineskorrago nin-  
tzaien Manonen zinei. Izaki gurgarri hura nire ari-  
maren jabe zen erabat, ez nuen beraz beraren-  
ganako onspena eta maitasuna darion senti-  
mendurik baizik. Mko G. jauna guztiz txunditurik  
utzi zuelako inolako suminik agertu gabe, aitzitik  
pozarren azalduz bere xarmek sortzen zuten  
eraginagatik, jende orok maitagarritzat jotzen  
zuen neska harengandik maitatua nintzelako.

Ez nion berari nire susmoak jakin erazteari  
beharrezko irizten. Zenbait egun igaro genuen  
bere jantziak egoki arazten, eta ea norbaitek  
ezagutzeko beldurrik gabe antzokira joan gintez-



keen eztabaidatzen. Tko jauna astebururako etorri zitzaigularik, hartaz aholku eskatu genion. Ongi konturatu zen Manon kontent uzteko baietz esan behar zuela. Iluntze hartan bertan berarekin joango ginela erabaki genuen. Hala ere erabaki hura ezin izan zen aurrera eraman, zeren alde batetara eraman ninduelarik, honako hau esan zidan: —Estualdi gogorrea jarri naute azkenik ikusi zintudanetik. Horregatik naukazu hain zuzen hemen. Mko G. jaunak zure neska maite du. Horixe bera aitortu dit. Bere lagun mina nauzu, edozertan zerbitzatzeko prest, baina harena bezain zurea ere banaiz. Bere asmoak ez zaizkit zuzenak iruditzen horregatik ez ditzaket onar. Isilean gorde izango nukeen beraren sekretua ohizko erabideei lotu izan balitzaie. Baina ez. Ezagutzen du Manonen aiurria. Eta jakin bide du —nik ez dakit nondik—, hark oparotasuna eta plazerak maite dituela, eta jadanik ondare sendo baten jabe denez, aitortu dit, hasteko opari eder batekin nahi duela tentatu hamar mila libratako pentsioa eskainiz. Beste edozein egoeratan oso zail izango zitzaidakeen bera salatzea, baina zuzentasuna adiskidetasu-

nari erantsi zaio zure mesedetan. Are gehiago beraren maite-grinaren arrazoi zuhurgabea neu izan naizelarik, hona neuk ekarri bainuen. Ni nauzu bada sortu ditudan gaitzek ondorio okerrik izan dezaten baino lehen erantzule bakarra. Eskerrak eman nizkion Tko jaunari laguntza estimagaitz harengatik. Modu berean nire aldetik ere konfiantza erakutsi ezin ederragoz, Manonen izaera Mko G. jaunari iruditzen zitzaion bezalako zela aitortu nion: alegia hark ez zezakeen pobrezia jasan. —Hala ere —esan nion—, arazoa gehiago edo gutxiagoko neurritan dabilen artean, ez dut uste beste norbaitengatik baztertuko nauenik. Ezer falta ez dakion lor dezaket. Nire ondasuna egunez egun handiagotuz joango dela espero dudalako. Gauza bakar bati baino ez diot beldurrik, hots Mko G. jaunak gure aterpearen kokapena ezagutzen duenez ez ote den horretaz baliatuko amarru txarren bat prestatzeko.

Tko jaunak alde horretatik beldurrik ez izateko esan zidan. Segurtatu baitzidan amodioak Mko G. jauna ero bihur zezakeela, baina ez zuela inola ere horrelako itsukeriarik burutzeko gauza

ikusten. Gainera honelako koldarkeriaren bat egiten bazuen, bera —hitz egiten ari zitzaidan berbera— izango zela zigortuko zuen aurrena sortaraziko zuen kaltea bere aldetik behintzat konpontzera behartuz.

— Biziki eskertu behar dizkizut zure ahalegiak —ekin nion nire aldetik—, baina ez ote litzateke ordurako, edozer delarik ere, kaltea egina eta sendagaia osterako kolokan? Horregatik ustedut ekinbiderik zuhurrena gertakizunei aurre hartzea izan behar duela, hau da: Chaillot utzi eta beste egoitza bat bilatzea.

— Bai —esan zuen Tko jaunak—, baina aski zaila izango zaizu behar bezain azkar alde egitea; izan ere Mko G. jauna hemen izatekoa da eguerdian. Atzo esan zidana da. Horregatik hain zuzen etorri natzaizu horren goiz, zuri beraren xedeen berri ematera. Une batetik bestera ager daiteke.

Aholku larri hark auzi hari begiratu serioa-goia egoztera bultzatu ninduen. Mko G.ren bisita ekidin ezina iruditzen zitzaidanez alde batetik, ez eta ere hark Manonekin hitz egin zezan itzuri bestetik, nik neuk erabaki nuen nire maiteari

lehiakide berriaren asmoen jakin eraztea. Nire ustea zen, berak aitortuko zizkion proposamenen berri banuela jakingo zuenez eta gainera nire belarrien aurrean esan beharko, aski kemen izango zuela Manonek guztiak errefusatzeko.

Nire burutazio haiek Tko jaunari aipatu nizkion. Berari arazoa guztiz zaila iruditzen zitzaion. —Neu ere horretan nago —adierazi nion—; baina beste edozein maitalek eskain dezakeen bezainbateko konfiantza ez ote dut neronek ere nirearengan? Eskaintzaren handikeriak baino ez luke itsutuko. Esana dizut bestalde berak ez duela interesa ezagutzen. Laket du oparotasuna, baina maite ere maite nau, eta ez dut uste Ospitalean bahitu duen gizonaren semea hobetsiko duenik.

Laburbilduz nik nireari eusten nion eta Marion eta biok bakarrik geratu ginelarik argi eta garbi adierazi nion jakin berri nuena.

Nik berarengatik nuen iritzi ona eskertu ondoren Mko G.ren eskaintzak era berezi batez hartuko zituela esan zidan, halako moldez non berriro horrelakorik egiteko gogoia kenduko baitzion.

— Ez —erantzun nion—. Ez zaigu hura zakarkeriez sumintzea komeni. Kalte egin diezaguke. Baina hik badakin alproja halakoa —gehitu nuen irribarrez—, nolaz zokora daitezkeen amorante ezatsegin eta gogaikarriak.

Gogoeta laburraren ondotik honela berrekin zion: —Nire burua miretsi nahi nuke bururatu zaidan ideia guztiz izugarri honen aurrean:

Mko G. jauna gure etsairik doilorrenaren semea duzu. Eror bedi bada gure mendekua aitarengan, ez semearengan. Eta nola? Haren poltsan zurrupatur. Entzun egingo diot, bere bezuzak onartuko eta gero... trufa eta irri!

— Egitasmo polita duzu —esan nion—, baina ez al zara nire haur gajo hori Ospitalera zuzen-zuzen eramán zintuen bide berbera zapaltzen ari? Ekinbide haren arriskuaz luze eta zabal mintzatu nintzaion. Berak osterá nire ardura guztiei, auzia neurri egokiak hartzera mugatzen zela erantzuten zidan.

Izenda iezadazue arren bere maite bihotze-koaren apetei amore eman ez dien maitatzaile bat baino ez eta orduantxe aitortuko dizuet oker aritu nintzela hain arin etsi nuelako. Erabakirik

geratu zen bada, Mko G. jauna atzipetu egingo genuela. Baina adur gaiztoak ni neu atzipetua izatea nahi izan zuen.

Hamaikak aldean haren kotxea begiztatu genuen. Gurekin bazkaltzera biltzeko hartzen zuen libertatea zela eta hamaika ele zuri ezpaineratu zuen. Ez zen Tko jauna ikusi arren batere harritu, beronek bera ere bezperan etorriko zela adierazi baitzion, baina zenbait lanen gorabehera zela eta kotxe berean ez etortzeko aitzakia jarri. Gutariko bakoitzak saldukeria bazeraman ere bihotzean itsatsirik, adiskide eta konfiantza itxuran jesarri ginen mahaian. Oso erraz izan zuen Mko G. jaunak bere sentimenduak Manoni aitortzea. Ez bainintzen berariaz zenbait minutuz alperrik aldendu. Ez zitzaion nonbait gaizki iruditu. Bueltatu nintzenean ohartu nintzen ez zutela gogor egiteagatik inola ere kokildu. Gizon hark umore ezin bikainagoa ageri zuen. Neuk ere itxurak egin nituen. Hura bere barnetik irri nire xalotasunaren kontura, ni berriz berarenagatik. Bazkaloste osoan antzezpen polita egin genion elkarri.

Alde egin aurretik Manonekin elkarrizketa une berezia ahalbidetu nion, eta horrela irten aurretik gure zabaltasun eta harrera ona laudatu zituen.

Hura Tko jaunarekin kotxera sartu bezain agudo, Manonek besoak zabalik lasterka niregana etorriz besarkatu egin ninduen barre-argara betean. Nire lehiakidearen ele eta eskaintzak hitzez hitz errepikatu zizkidan. Ondoko honetan laburbiltzen ziren: Hark adoratu ez ezik, berarekin bere berrogei mila libratako errenta erdibainatu nahi zuen, gehi bere aitaren heriotzaren ondoren etor zekioketena. Bere bihotz-ondasunen erregina bakarra egingo omen zuen. Eta bere oparien berme bezala gertu omen zegoen kotxe bat, jauregi apailatu bat, neskame bat, hiru morroi eta sukaldari bat, guzti horien oparia egiteko.

— Hona hemen —erran nion Manoni—, bere aita baina askoz eskuzabalago den semea.

— Hitz egin dezagun benetan —gehitu nuen—; ez al zaizu eskaintza hori tentagarri iruditzen?

— Niri? —erantzun zidan —Racineren bertso haiek bere eginez: «Niri? Nola nintzateke baina horren zantar eta Ospitalea gogoratzen didan gorrotagarrizko begitartea jasan?»

— Ez —erantzun nion nik—, parodiari jarraituz:

«Ospitaleak zugean lorratz sakona utzi? aski sinesgaitz zait madame hori niri».

Baina zeinen erakargarriak diren jauregia, kotxea, morroiak... Maitasunak ez du amu horren indartsurik. Berriro ere aitortu zidan nirea nuela bere bihotza betiko, eta ez zuela berorretan beste inolako lorratzik onartuko.

— Bere promesak —esan zidan—, maitasun lorratz baino, areago zaizkit mendekuzko ezten.

Jakin nahi izan nuen ea jauregia eta kotxea onartuko zizkion. Ihardetsi zidan haren dirua besterik ez zuela gura. Baina nola lortu bata bestea gabe? Mko G. jaunaren xedeen berri jakitea erabaki genuen Manoni gutun bat agindu baitzion. Biharamunean hain zuzen librea gabeko sehi baten bidez helarazi zion, zeinek abilki leku korrik gabe hitz egiteko bidea egin baitzuen. Itxarroteko esan zion Manonek eta ondoren gutuna



erakustera hurbildu zitzaidan. Batera ireki genuen. Ohizko hitz dotoreez kanpo, nire lehiakidearen promesen xehetasunak zetozen. Ez zion ez bere emankortasunari mugarik ipintzen. Hitz ematen zion hamar mila franko eskuratuko zizkiola jauregiaren jabe egiten zenean, bai eta aipatu kopurutik Manonek eralgi zezakeena osatu egingo zuela beti ere diru hura esku artean izan zezan. Ez zuen bestalde hastapen eguna gehiegi atzeratzen. Prestaketarako bi egun baino ez zizkion eskatzen. Gainera bigarren eguneko arratsaldean non zain izango zuen —kale eta jauregiaren izenak— aipatzen zizkion, beti ere nigandik ihes egitea lortzen bazuen. Auzi honetan baizik ez zion bere kezkatik lasai zezan erregutzen, gainerakoan seguru aurkitzen zela zirudien, baina nigandik ihes egiteko zailtasunik aurkitzen bazuen, topatuko zuela berak ihesa nola erraztu.

Mko G. bere aita baino azeriago genuen. Ehiza kartutxoak ahitu baino lehen esku artean nahi zuen. Manonek eraman behar zuen jokabideaz aritu ginen. Oraindik ere burutapen hura uxatu nahi izan nion arrisku guztiak azaleraziz.

Baina alperrik. Ez zion ezertxok ere bere erabakia aldatuko. Mko G.ri mezu labur batean adierazi egunean Parisera biltzea ez zitzaiola nekeza izango jakin erazi zion. Zain egon zitekeela beraz. Gure aldetik erabaki genuen ni berehala aterako nintzela Parisen beste hegaleko herrixkaren batean etxea alokatzera, aldean gure ekipaia urria eramanez. Bera berriz bihar-munean bere elkar ikustearen egunean goiz joango zela Parisera. Mko G.ren opariak jaso eta gero, antzokira eraman zezan eskatuko ziola behin eta berriro. Eramateko gauza zen diru guttia hartuko zuela enparauzkoa berarekin lagun nahi zuen nire morroiak zamatuko zuela. Ospitaletik askatu zuen morroi bera zen gurekin oso portaera fidela zuena bestalde. Nik berriz kotxe alokatu bat St André des Arcs kalearen sarreran kokatu behar nuen, eta hantxe bertan utzi zaziak inguruan eta antzokiko aterantz iluna lagun urreratuko. Manonek bere aldetik estakururen bat asmatuko zuen bere palkutik irten eta nirekin arin biltzeko.

Gainerakoa aise burutuko genuen. Istant batean nire kotxera iritsi eta Parisetik ilkiko

ginen St. Antoine-ko auzategitik barrena, huraxe baitzen gure egoitza berrirako bidea.

Egitasmo hura —bitxitzat jo badaiteke ere—, aski ongi bururatua iruditu zitzaigun. Baina baze-  
rion tamalez halako axolagabekeria ero bat. Izan ere nork pentsa zezakeen arrakasta ezin bikai-  
nagoa lortzen bagenuen ere, jarraian etorri behar zuten ondorioetatik libratuko ginenik? Hala ere gure baitan konfiantzarik izukaitzena azaldu genuen. Manon, Marcel izena zuen gure sehiarekin atera zen. Bihotz-minez ikusi nuen urrutiratzen. Hauxe esan nion laztantzerakoan:

— Manon ez al nauzu tronpatzen? Fidel izan-  
go al zaitut? Nire zalantzengatik maitekiro pena-  
tuz bere zin guztiak bermatu zizkidan berriro ere. Hirurak aldean Parisen izatea espero zuen. Berarekin atera nintzen. Nik baina arratsalde hartan St. Michel zubiko Feré kafean egingo nuen gogait. Hantxe egon nintzen gaua etorri zen arte. Une hartan gure planaren arabera aurrez pentsatu bezala St. André des Arcs-en kalearen sarreran kokatua nuen kotxe alokatua hartzera atera nintzen. Oso harritu ninduen han bertan nire zain egon behar zuen Marcel ez ikus-

teak. Ordu bete eman nuen hari itxaroten lakaio talde handi baten erdian, begiak erne ibiltari guztiei begira. Zazpiak izango ziren gure planarekin zer ikusirik zuen inor han agertzen ez zelarik, sarrera erostea erabaki nuela. Beherakoa erosi nuen ea Manon eta Mko G. begiztatzen nituen palkuetan. Han ez ziren ez bata ez bestea. Atera itzuliz beste ordu laurden bat gehiago «erre» nuen kezka eta ezinegonez. Inor ez zela agertzen egiaztaturik kotxera itzuli nintzen zer egin erabaki ezinik. Kotxeroak sumatu ninduelarik, hurbildu egin zitzaidan era misterioitsu batez esanez, bazela ordubete andereño polit bat zain nuela kotxean. Nitaz ari zela garbi konturatu zela, neskato hark nire giza itxura agertu zionerako. Itzuli egin behar nuela esan zionean neskak erantzun omen zion trankil itxarongo zidala agertu arte.

Manon izango zela pentsatu nuen berehala. Urreratu egin nintzen. Baina masail polit hura ez zen berarena. Ezezagun nuen neska hark Grioux-ko zaldunarekin hitz egiteko ohorea ote zuen galdetu zidan. Horixe nuela izena erantzun nion. —Eskutitz bat eman behar dizut —esan

zidan—, hona dakarkidan sujetaz informatuko zaitu bai eta zein bidetatik egin naizen zure ize-naren jabe.

Eskutitza aldameneko taberna batean irakurtzeko astia eman ziezadan eskatu nion. Jarraitu nahi izan zidan era berean gela bat erreserbatzeko aholkatzen zidalarik. —Norena da eskutitza? —galdetu nion igotzen ari ginela—. Irakurketak emango zidala argi erantzun zidan. Manonen eskua ezagutu nuen. Hona hemen ia hitzez hitz zer esaten zidan: Mko G.k gizalege eta oparotasun izugarritz hartu omen zuen. Opariz mukuruka utzi zuela. Erreginaren bizimodua eskainiko omen zion. Haatik lasaitu nahi ninduen esaten zidalarik oparotasun hartan ere ez ninduela ahanzten, baina ezin izan zuelarik gau hartan Mko G. jauna antzokira eraman zezan konbentzitu, beste egun batetarako atzeratzen zuela ni ikusteko gozamina. Baina antzematen zuelarik zeinen samin handia sortaraziko zidan berri hark saiatuko zela mezu haren eramailea Parisko neskarik politenetako bat izan zedin. Eta jarraian sinadura zetorren: «Zure maite fidela MANON LESCAUT».

Doilor eta isekaz betea iritzi izan nion esku-  
titz hari, hainbat non aldi batez sumin-oinazeak  
astindurik geratu ondoren, ahaleginak egin  
nituen nire maite eskertzarreko eta zin-hausle  
hura sekulako ahanzteko. Aurrean nuen neskari  
begiratu nion. Oso polita zen. Une hartan desira-  
tu nuen ni nerau ere nire aldetik zin-hausle eta  
infidel bilakatzeko bezain polita izan zedin. Baina  
damuz, ez nituen berarengan bestearen begi  
goxo eta bigun haiek, ibilera zerutiar hura, mai-  
tasunezko ñabardura haiek, ez nuen bada neska  
harengan aurkitu, naturak hain oparo Manon  
eskergaiztoarengan ernarazi zuen lilurazko  
altxor agortezin hura.

— Ez, ez —esan nion nire begiak alboratzen  
nizkiolarik—, bidali zaituen eskertzarrekoak  
ondotxo daki alferrikako ibilbideari lotu zaituela.  
Itzul berarengana eta esan honen partez, goza  
dezala bere krimenarekin eta damurik gabe ahal  
badu. Ez nau berriro ikusiko. Aldi berean bera  
bezain xarmangarri ez, baina zalantzarik gabe  
bera bezain alproja eta fede txarreko litezkeen  
emakume guztiei uko egiten diet.

la-ia Manon nire begi bistatik uxatzeko zorian egon nintzen. Baina bihotza zartatzen zidan jalu-sia izugarria lasaitasun apal eta triste bihurtu zelarik geroz eta hurbilago sentitu nintzen nire sendabidetik, ez bainuen horrelakotan jadanik inarrosi ohi ninduen oldar bortizik nabaritzen. A baina! Maitasunak engainatzen ninduen, Mko Gk eta Manonek une hartan seguruenik engainatzen ninduten bezainbeste.

Eskutitza ekarri zidan neska hark, harmailetan behera ekitear ikusi ninduelarik itaun zidan zer nahi nuen bada, Mko G. jaunari eta berarekin zegoen andereari adieraz ziezaien. Galdekizun hark gelara eraman ninduen berriro. Orduan horrelako grina gogorrik sentitu ez duenari sinesgaitz egiten zaion aldaketa batek aztoraturik, bat batean nire ustezko lasaitasun hartatik haserrezko su ikaragarri batetara eramana sentitu nintzen: —Zoaz —esan nion—, eta adieraz iezaiozu Mko G. traidoreari eta bere amorante maltzurari eskutitz madarikatu horrek utzi nauen etsipena. Baina esaiozu halaber ez direla nitaz luzaro trufatuko; nire esku bi hauetaz saskatuko ditudala. Aulki batetara amildu nintzen;

kapela alde batetara, makila bestera erori zitzaizkidan. Begietatik malko isuri mingotsak herresta geldoan hasi. Amorru-aldarte hark oina-ze biziari utzi zion leku. Negar baino ez nuen egiten, zotin eta hasperenak jota. —Hurbil zakizkit haur hori, hurbil arren —esan nion neskatxa hari—, hurbil, zeu baitzaitut ni kontsolatzeko bidalia. Esadazu amorru eta etsipenaren kontra kontsolapenik ezagutzen duzun, norbere burua hiltzeko gogoaren kontra, bizitzerik merezi ez duten bi donge horiek hil ondoren. Bai hurbil zakizkit —esan nuen nireganantz zalantza eta beldurrezko urratsak egiten ikusi nuenean—, zatoz bai nire malkoak lehortzera, zatoz nire bihotzari bakea itzultzera. Zatoz maite nauzula esatera, nire infidelak ez bestek maite nautela entzuten ohitu nadin. Polita zara eta agian maitatu ahal izango zaitut.

Oraindik haur bat baizik ez zen hamasei-hamazazpi urtetako haur gajo hark, bere antzekoek baino ahalkeago zirudiena, txit harriturik iduri zuen eszena bitxi haren aurrean. Haatik urreratu egin zitzaidan laztantzeko asmoz. Baina berehala errefusatu nuen eskua jarritz. —Zer



gura nauzu? —esan nion—. Andrazkoa zara, gorrotatu eta engoitik jasanezina izango zaidan sexu batetako partaidea. Zure begitartearen fintasunean salaketaren baten mehatxua erakusten didazu. Utz nazazu bakarrik. Zoaz.

Gurtu egin ninduen ezer esan gabe eta bira emanik irteten hasi zen. Zarata egin nion gelditzeko: —Baina erakutsiezadazu sikiera —jarraitu nuen, zergatik eta nola bidali zaituzten hona. Nola jakin duzun nire izena eta aurki nintzakezun lekua.

Aspaldidanik ezagutzen zuela Mko G. jauna aitortu zidan. Honek bidali zuela sehia hain zuzen bere bila arratsaldeko bostean. Hari jarraituz etxe handi batetara heldu zirela non gizaseme hura kartetako jokoan ari baitzen emakume eder batekin. Beraiek biek eman ziotela eskutitz hura niri ekartzeko mandatuaz. St. André-ko kale-buruan kotxe batetan aurkituko ninduela adierazten ziotelarik azkenik. Ea ez ote zioten beste ezer esan galdegin nion. Masailak gorritu egin zitzaizkion aitortu zidanean esan ziotela laguntzat hartuko nuenaren ustea zutela.

— Engainatu egin zaituzte —esan nion—, engainatu haur errugabea! Zu emakumea zara eta gizon bat behar duzu. Baina aberatsa eta zoriontsua, eta hemen ez duzu horrelakorik aurkituko. Itzul, itzul Mko G.rengana. Hark bai. Hark denetarik dauka emakume lirainek maite dezaten. Badauka jauregirik, eta zernahi opari. Nigan ostera maitasuna eta fideltasuna besterik eskain ez dezakeen inozo honengan emakumeek nire lazeria mespretxatzen dute, nire xalotasuna jolasgai dutelarik.

Hamaika hitz zein triste nola gogor erantsi nuen jarraian, dardaratzen ninduten grina haiek zitaldu edo baretzen ziren arabera. Haatik oina-zearen ikarak akitu banindu bezala, nire barnea baretuz joan zen gogarteari leku eginez.

Adur gaiztoko azken gertakari hura ildo bereko beste batzuekin erkatu nuen, eta egia esan ez nuen beste haietan baino etsitzenago izateko ziorik topatzen. Ezagutzen nuen Manon. Zergatik beraz, horrenbeste dolu aurretik nabari erraza nuen zoritxar haren aitzinean? Zergatik ez hobeto sendagairik bilatzen hasi? Garaiz nengoen oraindik. Ez nuen gutxienez ahaleginik saihestu

behar, ez banuen nire burua erruduntzat jo nahi nire zabarkeriak oinazeen zitaltzea ekarri eta gero. Horregatik bada bide guztiak aztertu behar-reen nengoen itxaropen-atearen bila.

Manon Mko Gri besoetatik bortxaz erauztea arrakasta arrastorik gabeko hondamendia eka-rriko zidan baliabide ezinezkoa nuen. Baina iru-ditzen zitzaidan berarekin hitzik, laburrenak iza-nik ere, lortzen banituen, haren bihotzaren toki-txo bat nire alde izango nuela; izan ere bai ongi ezagutzen nituela haren alderdirik sentiberenak! Hain nintzen segur maite ninduela! Bitxikeria hura bera, neskato polit hura ni kontsolatzeko bidaltzea alegia, apustu egingo nukeen beraren asmakizuna zela eta nire oinaze guztiengatik erruki. Maltzurkeriarik handienaz baliatu beharra zegoen bera ikusi ahal izateko.

Zidor ugariren lasterbidea aztertu nuen, bata eta bestea, baina azkenean Tko jauna izan nuen gogoan. Izan ere gizaseme hark beti adiskideta-sun handiz zerbitzatu izan ninduen, ez nezakeen beraz haren egiatasun eta fideltasunaren zalan-tzarik izan. Berehala joango nintzaion eta Mko G.ri dei ziezaion erregutuko auzi garrantzitsu

baten gainean hitz egiteko aitzakia zela bitarte. Ordu erdia nahikoa izango nuen Manonekin elekatzeko. Beronen gelara sartzea espero nuen Ez zitzaidan gaitz begitantzen Mko Gren absentzia profitatuz. Erabaki hark trankilago jarri ninduelarik, oraindik nire ondoan neukan neska gazte hari franko ordaindu nion, eta bidali zutenengana itzultzeko burutapenik izan ez zezan, helbidea eskatu nion, gaua berarekin pasatzera joango nintzela aginduz. Nire kotxe alokatuan sarturik Tko jaunaren etxera ziztu bizian eramana izan nintzen. Patuak nik hura han aurkitzea nahi izan zuen, bidean etxean aurkituko ez nuenaren kezka asaldatu baininduen. Hitz gutxitan adierazi ahal izan nion nire nekaldi eta eskatzen nion faboreen berri.

Mko Gk Manon seduzitu izanak arras harritu zuen. Hainbat non nik neuk ere nire buruari harrika eginez atsekabe hartan erruaren zatia nuela ez zekielarik, bere lagun guztiak bilduko zituela —beso eta ezpata— nire maitearen askatzeko agindu baitzidan. Ulertarazi nion azantza gehiegi kaltegarri izan zitekeela Manon eta biontzat:

— Gorde dezagun gure odola ezinbestean behar dugunerako. Bide eztiagoa baina ez horregatik arrakasta gutxiagokoa darabilt buruan. Nik aginduko nion guztia betetzeko —inolako salbuespenik gabe— prest agertu zen. Baina berresan niolarik bere betebeharra Mko Gri mezua bidalaraztea zela hura pare bat orduz etxetik kanpo erabiliz, nirekin batera atera zen nire nahia betetzera.

Baliabiderik egokienaren bila jardun genuen, nola alegia hain denbora luzez distraitu genezakeen gizon hura. Nire aholkua zen hasteko mezu llabur bat bidal ziezaiola taberna batetarik zeinetan atzerapenik izan ez zezakeen auzi bati buruz bertara eta berehala etortzeko erregutuko zion. —Beraren irteera zainduko dut —gehitu nuen—, eta lasai asko mera sartuko naiz, Manonek eta Marcelek —nire sehiak— bakarrik ezagutzen bainaute. Zuk berriz, Mko Grekin bildurik egongo zarenez, esan diezaiokezu berarengana zaramatzan arazoak dirua duela izena. Zeurea jokoan galdu duzula. Eta gero zure hitz soila lekuko jarririk jokatzeko jarraitu duzularik patuak zorigaitz bertsua eskaini dizula. Denbora hartu

beharko du bere diru-kutxa eskuratzen. Anar-tean denbora aski izango dut nire aldetik nire asmoa aurrera eramateko.

Tko jaunak zuzen-zuzen jarraitu zion egitamu hari. Taberna batetan utzi nuen non oso azkar eskutitza idatzi baitzuen. Ni ostera Manonen etxetik zenbait urratsetara geratuko nintzen. Mezularia heltzen ikusi nuen bai eta lipar bat gero, Mko G. bere morroietako batekin irteten ikusi. Kalean gora urrutiratzeko astia eman ondoren nire infidelaren aterantz aurreratu nintzen. Suminak erreta banindoan ere, elizan joko nukeen begirune bertsuaz deitu nuen. Zorionez Marcelek zabaldu zidan atea. Isiltzeko zeinu egin nion. Gainontzeko morroiengan inolako mesfidantzarik espero ez nuen arren, ahots apalez galdetu nion ea Manonen gelara eraman nintzakeen inork ikusi gabe. Eskailera nagusitik igo-tzen banintzen emaro-emaro ez omen nuen arazorik izango.

— Zoaz beraz arin —esan nion—, eta ni han nagoen bitartean inor sar dadin eragotzi ezazu.

Oztoporik gabe nintzen Manonen gelan. Ira-kurtzen ziharduen. Orduantxe gizaki harrigarri

haren izaera miresteko astia izan nuen. Ni ikus-  
tean, herabe eta izaturik agertu beharrean,  
gugandik urrun uste dugun pertsona agertzean  
bat batean menderatu ezin ditugularik azaltzen  
zaizkigun harridurazko zeinu batzuk baino ez  
zituen nabarmendu.

— Oi zeu zaitut nire gogokoa —esan zidan  
ohizko berotasunaz besarkatzera hurbildu zitzai-  
dalarik. Jainko maitea, bai ausarta zarela! Nork  
pentsa! Zu toki honetan, gaur eta orain! Askatu  
egin nintzen bere besoetatik. Samurkeria haiei  
erantzun ordez, destainez bizpahiru urrats egin  
nituen atzerantz berarengandik urrutiratzeko  
asmoz. Mugimendu hark apur bat noraezean utzi  
zuen. Zegoen egoeran irmo jarraitu zen, bere  
begiak nireetara jaurtikiz, bere begitarteak kolo-  
re-aldaketa nabarmentzen zuelarik. Egia aitor-  
tzeko, pozarren nengoen nire barrenean emaku-  
me hura berrikusten nuelako, hain pozik ezen  
hainbat arrazoiren jabe izan arren sumindurik  
egoteko, ahoa irekitzeko adorerik ez bainuen  
izan berari nire haserrea erakusteko. Eta hala  
ere bere laidoaren eraginez, bihotza odoletan  
nuen aspaldi. Nire amorrazioa zitaltzeko, nirekin

izan zituen jokabide ustel guzti haiek gogoratu nahi izan nituen nire begiei zerien gorria inolako maitasun izpirik ez zuen suak piztu zezan gura nuelarik. Isilaldiak nire dardara nabari erazi zion, orduan bera ere ikara betean sumatu nuen, agian bere beldurraren lekuko. Ezin izan nion egoera hari eutsi: —Baina Manon —esan nion tonu xamurrez—; Manon nire infidel eta zinhauslea! Nondik hasiko ote naiz arranguratsen? Zurbil eta dardaraz ikusten zaitut, zure dolurik ttikienak honen sentibera nau bilakatzen non beldur bainaiz ez ote zaituen nire haserreak lar saminduko. Haatik Manon, ezpaineratu beharrean naukazu zure traizioak bihotza zulatu egin didala. Maitatzailea hil nahi denean baizik sartzen diren sastadak dituzu. Hirugarrena duzu Manon. Ongi zenbatuak ditut. Ezin izango nituzke inola ere ahantzi. Zuri dagokizu orain, zeure ordua iritsi da, zein bideri lotuko zatzaizkion erabakitzea. Nire bihotz larri honek ezin baitu honenbeste froga doilor jasan. Suntsituz doala sentitzen dut. Oinazeak aurki zartatuko baitu. Etsi nauzu —gehitu nuen aulki batetan jesarriz—, ozta-ozta nago zutik eta hitz egiteko gauza.



Ez zidan deus ere ihardetsi. Baina ni eseri bezain agudo, belauniko jarri zen eta bere burua nire belaunetan kikildurik aurpegia nire eskuekin estaltzen zuen. Une hartan beraien barrena haren malkoen hezea sentitu nuen. Jainko errukiorra! Zer nolako zirrarak astintzen ninduen! Ai Manon, Manon —ekin nion hasperen leunez—, zeinen berandu datorkizun negarra, niri herioa jadanik ekarria didazularik! Ezin zaitezke sentitzeko gauza ez zaren tristuraren jabe izan! Zure gaitzik handiena nire presentzia duzu, beti izan baitzaie zure plazerei oztopo. Ireki begi horiek, begira nor naizen. Ez dituzu malko eder horiek traditu eta honen doilorki utzi duzun zorigaizto honengatik alperrik isuri behar.

Berak berriz, nire besoak musukatzen zituen egoera aldatu gabe. —Manon, aldakor, eskertxar eta fedegabeko Manon —jarraitu nuen—, non dituzu baina promesa eta zinak? Maitale mila aldiz buruarin eta doilorra, zer bilakatu ote da baina gaur bertan zin egiten zenidan maitasun hura? Zuzentasunaren Jainkoa! —erantsi nuen—, horrela iraintzen ote zaitu infidel batek horren bero dei egin eta gero? Zin-hauslea ote da

hemen saritua? Iraupenak eta fideltasunak etsi-pena eta utzikeria dute esker bakarra.

Ele haiek ekarri zuten gogoeta mingotsagatik malkoak isuri nituen nire gogoaren kontra. Nire ahots tonuaren aldaketa hartaz Manon zen ohar-tu eta halako batean bere isiltasuna hautsirik: — Horren mindurik eta kordokaturik utzi izan zaitudanez errudun behar dut izan, baina zigor nazala Jainkoak pentsamendu hori erabili badut, edo berariaz egin.

Desenkusa hura hain hutsal eta fede onik gabea iruditu zitzaidan non haserreak oldarturik honelatsu aldarrikatu nuen:

— Zurikeria galanta! Inoiz baino garbiago dakusat limuria eta dongea baino ez zarena. Ezagutu berri dut zure izaera maltzurra. Adio izaki koldar hori! —jarraitu nuen zutik jarriz—, mila aldiz nahiago heriotza aurrerantzean zurekin inolako harremanik izan baino. Zeha nazala Zeruak, begiradarik ttipienaz ohoratzen bazaitut inoiz! Gera zaitetz zure amorante berriarekin, maita bera, gorrota ni, bazter ohorea, zentzua, barre dagoit guzti horri, dena berdin dit.

Hain zuen nire sugar hark izutu non ni eserita egon nintzen aulki ondoan belaunikaturik, begira izan bainuen —ikara eta arnasestu. Pausu batzuk egin nituen burua atzera begira, begiak berarengan finko utzirik. Baina gizatasunak agintzen duen sentimendu oro galdua behar nuen haren xarma guztien aurrean entzungorrena egiteko. Urrun nintzen ni hain basati izatetik. Horregatik bat batean guztiz beste aldarte bat erakutsiz, berarengana itzuli nintzen, hobeto esateko, beraren besoetara amildu beste pentsamendurik gabe. Besoetan hartu eta nahi beste muxu eztiz laztandu nuen. Nire suminaldiatik barkatzeko eskatu nion. Zakarra nintzela aitortu behar nuela, ez nuela bada bera bezain eder zen emakumearen maitasuna merezi. Jesartzeko esan nion, eta orduan ni neu belaunikaturik entzun ziezadan erregutu nion. Une hartan maitemindu jasankor eta grinatsuari burura etor dakizkioken begirune eta gozotasunezko hitzik biribilenak laburbildu nizkion aitzaki legez. Eta barkamenezko hitzak erregutu.

Bere besoak nire lepora ekarriz, berak bai zuela nire onespeneren beharra aitortu zidan,

sortarazi zizkidan oinazeak ahantz nitzan. Beldur zela halaber bere burua justifikatzeko aitortu nahi zidana onartuko ez niolako. Eta arrazoi handiz. —Nik? —moztu nion behingoan—, ez dizut inola ere zure burua zuri dezazun eskatzen. Egin duzun guztia onartzen dizut.

Ni ez naiz inor zure jarreraren arrazoiak eskatzeko. Pozik, pozarren, nire Manon kuttunak bere bihotzaren beroa ez badit saihesten! Baina —jarraitu nuen nire patuaren etorkizuna gogoratu gabe—, Manon ahalguztiduna, zeure gurarien arabera nire poz-minak moldatzen dituzun horrek, nire hildura eta doluek ase zaituzten ondoren, utziko al didazu nire tristura eta oina-zeei buruz hitz egiten? Zugandik jakingo al dut zer bilakatuko naizen laster, bai eta nire heriotza-zigor aldaezina sinatu behar duzun nire lehiakidearekin gaua pasatuz?

Ongi hausnartu zuen bere erantzuna. —Nire zaldun laztana —esan zidan modu trankil batez—, hastapenetik horren argi hitz egin baze-nit aztoratze premiarik ez zenukeen izango, ez eta nik eszena horren latza jasan behar. Samina jalusiatik datorkizunez naizen guzti hau eskaini-

ko nizukeen sendagai eta munduaren azken lurralderaino jarraitu izango. Baina iruditu izan zait Mko Gren aurrean idatzi nizun eskutitza bai eta bidalitako neska izan zaizkizula dolugarri. Nire eskutitzari irrigarri eta neskari berriz zuri uko egin eta Mko Gri atxikiko nintzaionaren froga argia iritziko zenielako. Pentsamendu honek noraezean utzi nau behingoan, zeren errugabea izanik ere, hartaz pentsatzean ongi nekusan kanpo-itxurak behintzat ez nituela inondik ere nire alde. Haatik —jarraitu zuen berak—, nire epaile nahi zaitut, gertaeraren egia argitzen dizudan ondoren.

Kontatu zidan gero zer jazo zitzaion gu geunden leku berean zegoen Mko G. aurkitu eta gero. Munduko printzesarik handiena bailitzan hartu zuen. Bai, egia zen. Egoki eta dotore apailaturik zeuden etxeko atal guztiak erakutsi zizkion. Bere kabinetean hamar mila libra eman zizkion, haiei zenbait bitxi erantsiz, ba omen ziren beraien artean Manonek beste behin beraren aitaren-gandik opari bezala jaso zituen lepoko eta perladun eskuturrekoak. Jarraian oraindik ikusi gabe zeukan egongela batetara eramanez; bertan

ez omen zen jaki finik falta. Berarentzat propio hartu zituen nerabeak zerbitzatzeko jarri zituen, haiei Manon engoitik beren etxeko anderetzat izan zezaten agindu zielarik. Azkenik kotxea, zaldiak eta enparauzko opariak erakutsi zizkion. Gero jokoan egitea proposatu zion afal ordua iritsi arte. —Aitortu behar dizut —jarraitu zuen—, handitasun hark txunditu egin ninduela. Eta hain zuzen nire gogoeta hortik doa: ez al zaigu penagarri ondasun guzti honi bat batean uko egin beharra, hamar mila franko eta bitxiekin konformaturik; ez al dirudi gu biontzat egina, ez al gintezkeen Mko Gren ondarearen kontura lasai bizi? Antzokira jo ordez, zutaz itauntzea gomutatu zitzaidan.

Jakin nahi nuen zer nolako ahalbideak izango genituen nire egitasmoa aurrera eramatekotan. Jarrera oso irekian ikusi nuen. Zer iritzi nuen zutaz galdetu zidan eta zu uzteagatik damurik ote nuen. Zuk nirekin jator jokatu zenuelarik, ezin zintudala gorrotatu, erantzun nion. Orduan berak merezimendu handiko gizona zinela esan ondoren zure ezagutza zintzoa egiteko prest agertu zen. Ezagutu nahi zuen ea zer nolatan

hartuko zenuen zuk nire alde egitea, batez ere bere besoetara joana nintzela jakinik. —Gure maitasuna —ihardetsi nion—, aspaldi batean du bere sorburu, beraz emaro-emaro iraungiz doan garra da. Halaber ez zinela diru-aldetik oso oparo bizi, horregatik ez zenuela nire galera atsekabe handitzat hartuko. Are gehiago, agian eramangaitz zitzaizun zama astunetik libratuko zintuela. Gainera ordudanik aurrera zure jokabidea baketsua izango zela ziur nengoenez —gehitu nion—, esana nizula alegia inolako erreparorik gabe, Parisera nentorrela zenbait arazo zuzentzera. Zuk zeure aldetik adostasun osoa azaldu zenuelarik elkarrekin izan ginenean, bai eta ez zintudala oso kezkatu aurkitu agur esan behar izan nizun une hartan.

Esan zidan: «Uste izango banu nirekin bizitzera etortzeko aldarte onean dagoela, lehenengo nintzateke nire onginahia eta egoitza bera ere eskaintzeko.» Nire bermea eman nion esanez zure izaera ezaguturik ez nuela oneski erantzungo zenuenaren zalantza mendreenik; batez ere adierazi nion, zure arazoetan laguntzeko, aski bazterturik baitituzu, zure familiarekin

harreman onik ez duzunetik. Hitza moztu zidan esateko bere esku litzatekeen edozertan laguntzeko gertu aurkitzen zela, gaineratuz beste amodioren baten apetarik bazenu amorante polit bat lortuko zidala, hain zuzen nirekin uztartzeko utzi zuen berbera. Bere susmoak uxa zitzan txalogarria iruditu zitzaidan ideia hura. Nik nire aldetik nire egitasmoaren baliotasuna geroz eta sendoagoa ikusten nuen. Zuri gaztigitzeko bidea topatu nahi nuen soil-soilik, beldur bainintzen ez ote zinen gehiegi larrituko gure elkar ikustera agertzen ez nintzelako. Kari horretan zuri amorante berria arratsaldean bertan bidaltzea proposatu nion. Amarru horren bitartez bakarrik utziko ninduen esperantza nuen zuri mezua idazteko. Irribarretsu hartu zuen nire proposamena. Bere otseina deiturik bere aurreko amorantea berehala aurki zezala agindu zion. Uste zuen Chaillot-en egongo zinela, eta beraz bertarantz abiatzeko adierazi zion neskari. Baina jakin erazi nion nire aldetik gu geu banatu ginean antzokian berrikusiko genuela elkar agindu nizula. Baina arrazoiren bat bide ezinezko bazi-tzaidan bertaratzea St. André kale-hegalean



kotxe batetan itxarongo zenidala. Hobe izango zela bada, amorante berria aipatu lekura bidaltzea, gau osoa gogaiturik pasa ez zenezan behintzat. Istant hartan esan nion bi hitz idatzi behar nizkizula aldaketa guzti haren berri izan zenezan, bestela nahastu samar geratuko baitzinen. Baieztatu egin zuen. Baina beraren aurrean idatzi beharrean aurkitu nintzen ezin izan nizun arazoa zabalegi argitu.

— Horra —gehitu zuen Manonek—, nola jazo diren gauzak. Ez dizut nire jarrera edo erabilitako asmorik isiltzen. Neskatoa etorria zelarik, polita iruditu zitzaidan, Eta nola ez nuen zalantza errainurik nire absentziak min gaitza sortuko zizunik zinez eta benetan une goxo batzuk pasazten lagunduko zizula desio nuen, zeren zugar nahi nukeen fideltasuna bihotzekoa baita. Pozik bidaliko nizukeen Marcel bestalde, baina ezin izan nuen lipar batez ere nire ondoan izan, hura adierazi nahi nizunaz jabetzeko.

Bere kontaera amaitu zuen azkenik esanez nolako herstura hartu zuen Mko Gk Tko jaunak bidali zion mezua hartu zuenean.

— Ni bakarrik utzi ala ez zalantza handia izan du. Eta gehitu zuen: — Laster itzuliko dela adierazi dit. Horregatik oso larritzen nau zu hemen egoteak, zure etorrerak harritu nauen bezainbeste.

Hitz-aspertu hura entzuteko ez nuen ez egonarririk falta izan. Bazen bertan nireganako irizpide anker eta latzik. Izan ere, hain zuen infidelitatea bere baitan erro sakonik, asmorik ere ez zuela agertzen hura saihesteko. Ez zuen bada, berak pentsatuko Mko Gk gaua neskaso bailitzan pasatzen utziko zionik! Zeren norekin pasatu behar zuen gaua berarekin baino ez bazen? Bai aitopen samina maiteminduarentzat! Haatik onartu beharrean nengoen neu nintzela, beraren bekatuaren errudunetako bat, Mko Gren berarenganako sentimenduak ezagutarazi nizkiolako, ahantzi gabe neronek agertu nuen abegi ona bentura hartan itsu-itsuan murgiltzeko. Bestalde nire izaeraren berezkotasunagatik bere kontaeraren xalotasunak hunkitu egin ninduen. Izan ere zeinen ongi eta xehe kontatzen zizkidan zertzelada guztiak, gehien mintzen nindutenak beraiek ere! Eta nire artean nioen

«Bekatu dagi, baina makurkeriarik gabe. Kas-  
karin eta axolagabea da, baina zuzen eta egiaza-  
le».

Erantsi horri maitasunak begiak hertsirik  
bere akats guztien gainetik hegaldatzen nindue-  
la. Gainera nire itxaropena zen gau hartan bertan  
nire lehiakideari bahitzea. Haatik galdetu  
nion: —Eta gaua norekin igaroko zenukeen?  
Nahigabeturik luzatu nion itaun hark asaldatu  
egin zuen: «Baina», eta «Bai»-ak eten eta tarte-  
katuak baino ez nituen entzun. Errukitu egin nin-  
duen bere doluak, eta beraren eleak etenik,  
orduan bertan nirekin etorriko zenaren esperan-  
tza nuela aitortu nion.

— Bai, benetan nahi dut —erantzun zidan—,  
baina esan: ez al duzu nire egin-gogoa onartzen?

— A baina ez al zaizu aski gaur arte egin  
duzuna onar diezazudan? —ihardetsi nion—. Ez  
al ditugu bada hamar mila frankook besterik  
ezean eramango? —berak—. Niri eman dizkit,  
nireak dira.

Den-dena lagatzeko eta lehenbailehen alde  
egitea aholkatzen nion, zeren ordu erdi baino ez  
baneraman ere berarekin Mko Gren itzuleraren

beldur bainintzen. Alabaina hain temati jarri zitzaidan esku hutsik ez genuela alde egin behar esaten, neuk ere zerbaitetan amore eman nahi izan niolarik, berak ere bere aldetik hainbat gauzari uko egiten zionez.

Abiatzear geundela, kaleko ate-hotsa entzun nuen. Ziur nintzen Mko G. izango zela. Eta pentsamendu soilak sortarazi zidan ezinegonak bul-tzaturik esan nion Manoni gizon hila izango zela begien aurrean azaltzen bazitzaidan. Egia esan, gertakari guzti haien mukuruan ez nintzen oraindik nire zentzuen jabe. Ezin ninduen bada bere ikuste soilak aztoratu gabe utzi. Baina Marcel atarian jasotako mezu bat zekarrelarik agertu zenean hantxe joan zen nire aztorapen guztia.

Tko jaunarena zen. Bertan Mko G. bere etxera joan zitzaiola diru bila profitatuz, burutapen irrigarri baten ideia helarazten zidala adierazten zidan, haren absentziaz baliatuz.

Esaten zidan nire lehiakideari egin niezaiokeen mendekurik biribilena beraren afaria jan eta gau bera nire maitearekin solastatzea, hark beretzat gorderik zeukan ohean bertan.

Eginkizun aski erraza iruditzen zitzaiola, baldin eta hiruzpalau gizon mutiri eta leial lortzen banituen hura kolean harrapatu eta biharamunera arte gorderik izango luketenak. Berak bere aldetik beste ordu batez gehiago gutxienez lekoratuko zuela, itzultzen zenerako prest izango zituen arrazoiak mariez. Manoni erakutsi nion mezu hura, bai eta zein amarrez baliatu nintzen berarengana iristeko. Tko jaunaren irudimena eta nirea laudagarriak iruditu zitzaizkion. Barrealgara ederrean jardun genuen. Baina aipatu azken ideia hura erotzat jotzen nuela esan nionean, txit harritu ninduen, berak ostera hura egingarritzat jotzea. Alper-alperrik itaundu nion ea non arraio topa nezakeen Mko G. bahitu eta gotorki gordeko zuen gizonik. Baina hark saiatu egin behar genuela gutxienez erantzun zidan, Tko jaunak ordubete gehiago bermatzen zigulako. Kontrajarri nizkion eragozpenen aurrean tirano bat nintzela eta ez niola atseginik eman ihardetsi zidan. Ideia guztiz erakargarria irizten nion: —Haren mahai-tresnak erabiliko dituzu —berresaten zidan—, haren izaretan barrena labainduko, eta bihar goiztiriarekin batera dirua eta amo-

rantea ebatsiko dizkiozu. Zeinen mendeku bikaina ezagutu behar duten aita-seeek!

Amore eman nion haren gurariari, nire barneak besterik agintzen zidan arren, urreratzen ikusten bai nituen atsekabearen lausoak. Gauzak horrela garai batetan Lescauten bitartez ezagutu nituen bizpahiru zaintze-guardia topatzeko xedearekin atera nintzen kalera. Mko G. bahitu zezaten aginduko nien. Baina bat baino ez nuen aurkitu. Hala eta guztiz ere gizon saiatua iritzi nion, auzia nondik zihoan jakin bezain laster arrakasta segurtatu baitzidan. Hamar pistola besterik ez zidan eskatu bere meneko izango zituen hiru soldaduei ordaintzeko. —Otoi —esan nion—, ez ezazu denborarik gal.

Ordu laurdenean bilduak zituen. Bere etxean itxaron nion. Denak bildurik zeudela, Mko Gk nahi eta ez Manonekin biltzera joateko zeharkatu behar zuen kale hegal batetara gidatu nituen. Ez ziezaiotela minik eman gomendatu nien, baina hori bai goizeko zazpiak arte hertsiki gorde zezatela, nik segurtasun osoa izan nezan ez zuela ihes egingo. Asmoa omen zuen bere etxera eramateko eta arropak erantzi erazi ondoren

bere ohean sarrarazteko, berak eta beste hirurek gaua edanean eta jokoan pasatzen zuten bitartean. Beraiekin egon nintzen harik eta Mko G. agertzen ikusi nuen arte. Urrutiratu egin nintzen istant hartan pittin bat leku ilun batetara gertakari hain bereziaren lekuko izateko. Zaintze-guardia haietako bat aurrera atera zitzaion pistola eskuan, gizalegez argitzen ziolarik ez zekarrela bera hiltzeko ez eta lapurtzeko asmorik baina aurre egiten bazuen berari ez jarraitzeko edo garrasirik txikiena jaurtiki, aurki sentituko zuela berotasuna lokietan gora. Mko Gk erasotzaileak hiru gizonen laguntza zuela ikusirik, eta pistolaren izu, ez zuen behaztoparik ipini. Ardia bailitzan zeramatela begiztatu nuen. Berehala itzuli nintzen Manonengana. Sehiek susmo txarrik har ez zezaten, esan nion Mko G. jaunak ezin izango zuela afaltzera etorri. Bere gogoaren kontra arazo zenbaiten ebazten gelditu behar izan zuela eta eskusatzeko erregutuz bere ordezkari afal nezala Manonekin eskatu zidala. Zer esanik ez ohore handikotzat jotzen nuela andere hain ederrarekin afaltzea.

Manonek trebeki jarraitu zion nire hariari. Mahaian eseri eta sehiek zerbitzatzen ziguten artean jarrera guztiz zuhurra izan genuen. Azkenean beren lanak bete eta gero alde egin zute-nean geure biziko gaurik zoragarriena igaro genuen.

Isilpean kotxe bat alokatu zezala agindu nion biharamun goizean atean gertu izan zedin. Gauerdi inguruan Manon uzten nuelako itxura egin nuen, baina poli-poliki Marcelen laguntzaz berritzuli egin nintzen Mko Gren ohea ondo betetzera, lehentxeago haren mahaia okupatu nuen bezalaxe.

Baina bien bitartean gure adu gaiztoak galbidera eraman nahi gintuen. Plazeraren liluran ginen baina ezpata tzarra buru gainean eusten zion haria noiz etengo zain. Hala ere gure hondamendiaren gorabeherak hobeto ulertzeko haren arrazoiak argitu behar dira.

Guardiek bahitu zuten unean lakaio batekin zihoan Mko G. Mutil hau bere ugazabari gertatutakoa ikusirik, ihesi egin zuen, lehenengo eta behin bere nagusiari laguntzeko Mko G. zaharriari gaztigatzera jo zuelarik. Albiste latz hark txit



asaldatu zuen agurea. Bere seme bakarra zuen. Ez zuen bestalde adina handia izan arren bizitasunik falta. Hasteko, lakaioaren bidez bere semeak zer egin zuen arratsaldean jakin nahi izan zuen. Norbaitekin liskarrik izan zuen, zein eta inoren auzitan nahastu ote zen, edo eta etxe susmagarri horietakoren bat bisitatu ote zuen. Nerabeak bere ugazaba azkenetan izan zitekeela adierazi zion. Eta bere nagusiari sorosteko ezer ez zuela ezkutatu behar konturaturik, haren Manonenganako maitasunaren berri eman zion, ahantzi gabe zer nolako emariak eskaini zizkion. Nola etxean egon zen arratsaldean bederatziak arte, bere irteera eta itzulerako zoritxarra. Nahikoa izan zitzaion agureari susmatu ahal izateko bere semearen arazoa gona-arazoa zela. Gaueko hamar t'erdia baziren ere ez zuen zalantza fisik erakutsi eta polizia-buruarengana jotzeko. Erregutu zion agindu bereziak eman ziezazkiela guardia-talde guztiei. Bera berriz haietariko baten laguntza harturik bere semea bahitu zuten kale bertara atera zen. Susmagarri zitzaizkion txoko guztiak arakatu zituen, baina arrastorik aurkitu ez menez, azkenean beraren amorantea-

ren etxera jo zuen, agian bertara itzuliko zela pentsatu baitzuen.

Ohean sartzear nengoen iritsi zenean. Gelako atea itxita egonik ez nuen inolako hotsik nabaritu kalekotik. Baina han sartu zen bi arkulari lagun. Barruraino. Hala ere bere semearen albis-terik ez zuelarik, beraren amorantea galdekatzear iruditu zitzaion argitasunen bat bilatzeko. Logelara igo zen beti ere arkulariak ondoan. Prest ginen esan bezala ohera sartzeko. Atea zabaldu eta...

— Jainko urrikalkorra! —esan nion Manoni—, Mko G. zaharra da! Ezpataren bila jauzi egiten dut baina tamalez gerrikoan trabatzen zait. Arkulariak nire mugimendua ikusirik urreratu eta arin kentzen didate. Gizonak ez dezake alkandorra hutsean kontrako indar handirik egin. Nire burua defendatzeko tresnarik gabe uzten naute. Mko G. zaharra nahiz eta ikuskizunak apur bat zurturik utzi zuen, azkar ezagutu ninduen. Aise ezagutu zuen Manon: —Baina —esan zigun serio antzean—, Grioux-ko zalduna eta Manon Lescaut ote ditut begi hauen aitzinean?

Nik baina lotsak eta barruko harraren amorrazioak astindurik ez nion deus ihardetsi. Bere burutik pentsu desberdin ugari ibili zirela iruditu zitzaidan. Eta bat batean garraren zain dagoen suzeria bezala, bere haserrea erakutsiz ondoko hau aldarrikatu zuen:

— Ai zorigaiztokoa, seguru nagok nire semea hil duala. Laido hark biziki hunkitu ninduen. — Agure gaizkilea —erantzun nion burua harro—; zure familiakoren bat hil behar izan banu, zeu zinatekeen aurrena. Orduan hauxe agindu zien arkulariei:

— Eutsi egiozue gogor. Nire semearen berri eman behar baitit. Urka erazi egingo dut bihar bertan berarekin zer egin duen ez badit berehala esaten. —Ni urkatu? —erantzun nion—. Donge halakoa! Zeu eta zeure ariakoak bidali behar lirateke urkamendira. Jakin ezazu zuri baino odol garbi eta nobleago daridala niri. Bai —erantsi nion—, badakit zer gertatu zaion zure semeari. Eta irainetan jarraitzen baduzu, egunsentia orduko urka araziko dut. Eta zu zeu gero beraren ondotik.

Ez nintzen zuhur ibili semea non zegoen banekiela aitortu nionean; baina hara nora nire erneguaren gehiegikeriak eramán ninduen. Une hartan atean zain zituen bospasei arkulari deitu eta etxeko morroi guztien ardura bar zezaten agindu zien. —Hona beraz zaldun jauna —hartu zuen hitza era isekariz—, zuk ba omen dakizu non den semea eta gainera urkatu egingo omen duzu; ez al da horrela? Lasai, hori ere zuzenduko dugu. Berehalakoan sentitu nuen nire hanka-sartzea. Orduan ohe gainean negarrez ari zen Manonengana urreratu eta lausenguzko hitz zuri ustelak eskaini zizkion hark aita-semearengan omen zuen eraginaz, eta zein ondo baliatzen zen berorretaz.

Agure lizun aseegin hura bere kasa Manonen gerri-bueltak bilatzen hasi zen. —Ez ezazu uki! —egin nion oiñu; munduan litzatekeen gauzarik sakratuenak ere ez zintuzke nire atzaparretatik libratuko.

Orduan bera atera egin zen arkulariak gelan utziz, guri arropak arin jantzi erazteko agintzen zielarik. Ez nekien zer nolako burutapenik zerabilen gure aurka. Behar bada askatasuna lortu

izango genukeen semea non zegoen esan izan bagenio.

Gogoeta horixe nerabilen janzten ari nintze-la; alegia ez ote zatekeen huraxe jokabiderik egokiena izango. Baina guztiz beste aldarte batez itzuli zen. Arkulariek harrapatu zituzten Manonen morroiak galdekatzera joan zen. Ez zuen ezer atera Manonek beraren semearengandik bere zerbitzura hartu zituenengandik. Baina Marcel gure agindupean izan genuela jakin zue-nean, hitz egin erazi zion mehatxu bidez beldur-tzen zuelarik.

Mutil fidela baina arras arrunta eta trauskila zen. Ospitalean Manon askatzeagatik burutu zueneko oroitzapenak gehi Mko Gk sortarazten zion izuak zirrara handia sortu zuten bere izaera xumearengan halako moldez non urkamendira edo tortura-gurpilera eramango zutela irudikatu baitzuen. Zernahi aitortuko ziola agindu zion bizia errespetatzen bazion.

Mko Gri hitz haietatik begitandu zitzaion gure trikimailuetan bazela zerbait larri eta makur, berak hasiera batetan irudika ez zezakeen modukoa. Orduan bizia barkatu ez ezik, sari

bikainik eskaini zion bere aitorpenagatik. Giza-gaixo hark gure planaren zati bat kontatu zion. Guk ez baikenuen —Manonek eta biok—, gure solasa isiltzen bera noiznahi sartzen zelarik zer-bait egitera. Egia da, Parisen egin genituen aldaketan berririk ez zuela, baina Chaillot-etik irten ondoren jakinaren gainean zegoen, zertaz ari ginen eta berak burutu behar zuen eginkizunaz. Aitortu egin zion bada, gure asmoa beraren semeari iruzur egitea zela. Alabaina Manonek hamar mila franko jaso edo jasotzear behar zuela, zeintzuk gure asmoen arabera, ez zitzaizkien inoiz Mko Gren etxeko oinordekoei itzuliko. Aitorpen hura entzun eta gero, agurea gure logelara igo zen. Zakarki eta hitzik esan gabe kabine-tera sarturik aski erraz aurkitu zituen diru eta bitxiok. Gero aurpegia sutan, guregana begiratu lapurreta garbitzat jotzen zituen gauzak erakutsiz, zantarkeriarik laidagarrienak aurpegiratu zizkigun. Manoni hurbil hurbiletik lepokoa eta eskuturrekoak erakutsiz, honela esan zion irri iraingarri harekin:

— Ezagutzen al dituzu? Ez duzu ez, ikusten dituzu lehen aldia. Ez alafede! Laket zitzaizkizun

nire ederra. Ziur nago. A haur gajoak! Atseginak dituzu bata zein bestea, baina apur bat amarrutsuak! Bihotza lehertzeaz nuen amorrazioz irainhitz haiek entzuten. Zer ez ote nukeen une hartan emanen aske izateagatik! Jainkoak berak badaki! Zer ez! Baina nire barne-oldarrari nola edo hala eutsirik, honelaxe esan nion nire haserrearen baretzea baino ez zen zuhurtziaz:

— Eman jauna, ele laidagarri horiei amaiera. Zertan ari gara? Zer nahi gaituzu?

— Begira zaldun agurgarri hori —erantzun zidan—, hemendik Châtellet-erako bidea egiten ari gara. Bihar argi izango dugu eta gure arazok ere hobeto ikusiko. Eta espero dut nire semea non den jakiteko mesedea eskainiko didazula. Gogoeta handirik gabe azkar ulertu nuen zeinen ondorio ikaragarria etor zekigukeen Châtellet-en behin atxilotuak izanez gero. Gorputza dardara betean aurreikusi nahi izan nituen arrisku guztiak. Nire berezko harrotasuna baztertu behar banuen ere adur gaiztoak ekarri zidanaren aurrean amore eman behar nuela sinetsirik nengoen; hots nire etsairik ankerrena lausengatuz. Modu onean lipar batez entzuteko erregutu nion.

— Gur dagiot justiziari —esan nion—. Aitortu beharrean nago gaztaroak akats larriak sortarazi dizkidala. Arrazoi duzu zinez zure sumin sentitua azaltzeko. Baina maitasunaren indarra eza gutzen baduzu, gizon gazte nahigabetu batek bere maitea bahitzen diotenean sufritzen duena epai bazeneza, mendeku ttiki baten ordainari agian barkagarri iritziko zenioke, edo gutxienez aski zigortua ikusiko nindukezu jaso berri dudan lotsagatik. Ez dut kartzela edo tortura premiarik zuri non aurkitzen den zure semea adierazteko. Leku seguruan dago. Ez dut inoiz berari min eman edo iraintzeko asmorik izan. Gertu naukazu gaua, lasai asko non pasatzen ari den esateko, askatasuna emateko eskerrona agertzen badiguzu.

Nire eskariak hunkitu beharrean, piztia zahar hark bizkarra eman zidan barrez. Hitz batzuk isuri zituen ahopean gure nondik norakoaren berri hastapenetik bazekiela nabari eraziz.

Bere semeari zegokion aldetik erail ez nuenez aise aurkituko zuela erantzun zidan zakarki. —Eraman itzazue Châtellet txikira— esan zien arkulariei—, eta izan arreta zaldunarekin. Ele-



mentu maltzurra da. Lehen ere egina du hegan St. Lazare-tik. Atera zenean pentsa ezazu zein egoeratan utzi ninduen.

«Oi Jainko ahaltsua! —esan nuen—. Bidali nahi dizkidazun zigor guztiak umilki hartuko ditut, baina alproja batek ni horrela zapal naza-keela ikusteak etsiturik uzten nau.» Arkulariak luze irizten hasiak ziren. Kotxea zuten kanpoan. Eskua luzatu nion Manoni jaisteko. «Zatoz nire erregina bihotzekoa, zatoz gure adur gaiztoak garamatzen mundu gupidagabera. Izango ahal du Goiko Zeruak guri egun zoriontsuagorik eskaintzeko betarik!»

Kotxe berean abiatu ginen. nire besoan babe-sean neraman Manon. Mko Gren etorreratik ez nion hitzik ere entzun. Baina nirekin biok baka-rikin ginela, hamaikatxo ele goxo jaulki zitzaion bere buruari nire zoritxarraren gauzatzea lepora-tzen ziola. Erantzun nion ez nuela inoiz ere nire patua gaitzetsiko berak maitatuko ninduen bitar-tean.

— Ez nauzu ni erruki beharrean —jarraitu nuen—, zenbait hilabetetako giltzapeak ez nau bat ere izutzen, gainera nahiago dut inondik ere

Châtelet St. Lazare baino. Baina zu nire maitea, horren izaki xarmagarria, zer bilakatuko ote zara? Zeruko Goitasuna! Nola hartzen duzu horren gogor zure egintzen artean osoena? Zergatik ez ote gara gu biok gure lazeriari legozkiokeen tasunen jabe? Badugu adimenik, fintasunik, sentiberak gara. Ai baina! Zeinen gaizki erabiltzen ditugun! Aitzitik gure patua merezi duten hainbat eta hainbat giristino kaxkar adur onaren itzalpean bizi dira.

Hausnarketa haiek mindurik uzten ninduten. Baina ezer gutxi etorkizunaz ekarri behar zizkigunekin alderatuz. Izan ere Manonen patuak beldurtzen ninduen. Egona zen Ospitalean, eta nahiz eta ate onetik irtena izan, banekien jakin, horrelakoetan berrerorketak guztiz arriskutsuak izaten direla.

Nire beldurra azaldu nahi nion baina min handiegia egingo ote nionagatik ez nintzen ausartzen. Izu-ikara zetorkidan berarengatik ez nintzelarik ausartzen esaten zer nolako arriskutan eror zitekeen. Orduan besarkatu egiten nuen zizpuruka. Nire maitasuna segurtatu nahi nion

behintzat adierazteko sentimendu bakarra izanik.

«Marion —esan nion—, zinez eta benetan mintza zaitez: Beti maitatuko al nauzu?» Eran-tzun zidan nire zalantzak berak ere tristatu egi-ten zuela. «Bai, ez dut horren zalantza mendree-nik, eta bermatasun horrekin gure etsai guztiak desafiatzen ditut. Châtelet-etik irteteko, nire familiaz baliatuko naiz, eta odol husturik behar-ko dut, bertatik aske ez bazaitut ateratzen.» Pre-sondegira iritsi ginen. Leku desberdinetan bana-tu gintuzten. Kolpe hura ez zitzaidan astunegia iruditu, aurretik gertatuko zela bai bainekien. Ataltzainari Manon artamendatzeko eskatu nion, jatorri handiko gizasemea nintzela esanez eta ordainsari oparoa eskainiz. Banatu aurretik laz-tandu egin nuen nire maite betierekoa. Ez zedila lar nahigabetu, ni neu munduan ninduen bitar-tean ez zezala alegia inolako beldurrik izan. Ez nintzen dirurik gabe. Hartarik kopuru bat berarentzat izan zen. Enparauaz ataltzainari ordain-du nion aurrez hilabeterako pentsiorik onena berarentzat eta biontzat.

Nire diruak ondorio ona izan zuen. Gela txukun jantzia eman zidaten, Manoni ere antzerakoren bat segurtatu zidatenez.

Garbi zegoen nire auzian ez zegoela inolako lege hausterik, eta gure lapurtze-asmoa Marcelen aitorenak frogatu izan balu ere ongi nekien jakin, borondate hutsa ez dela zigorgarri. Aitari idaztea erabaki nuen bera Parisera etor zedin erregutuz. Lotsa gutxiago nuen —lehenago adierazi dudan bezala—, Châtelet-en St. Lazare-n egoteagatik baino. Bestalde aitatasunari zor zaion begirunea nire baitan gorderik baneraman ere, adinak eta esperientziak gutxitua zuten neurri handitan nire herabetasuna. Idatzi egin nion bada, eta gutuna eragozpenik gabe irten zen Châtelet-etik. Baina lan hura saihets neza-keen jakin izan banu aita biharamunean Parisen izango zela.

Zortzi egun aurretik izkiriatu niona jaso zuen. Pozarren hartu omen zuen. Baina nire konbertitza atsegin handiz hartu bazuen ere, ez zituen nire promesak itsu-itsuan sinetsi.

Erabaki zuen horregatik, berak propio bere begiz, nire aldaketaren berme izatea, bai eta

bere jarrera nire damuaren egiatasunaren arabera finkatzea. Biharamunean heldu zen nire presondegira. Bere lehen ikustaldian Tibererengana jo zuen zeini bere erantzuna zuzen ziezaion erregutu bainion. Hark ezin izan zion nire bizileku eta orduko egoeraz deus esan. Nire St. Sulpicetik ihes egin ondorengo benturarik nagusienak bakarrik jakin erazi zizkion. Tibergek gure azken elkarrizketan nire onbiderako ildoratu nizkion helburuez iritzi ona eman zion. Manonengandik guztiz libre uste ninduela gehitu zion, baina harriturik zegoela azken zortzi egunetan nire albisterik ez zuelako izan. Baina aita ez nuen lerdoa. Azkar antzeman zuen Tibergek deitoratzen zuen nire mutualdiaren barruan bazela nire lagunak sumatzen ez zuen zerbait estrañiorik. Eta hain gogotsu ekin zion nire lorratzen bilatzeari, non iritsi eta bi egun gero Châtelet-en nindutela jakin baitzuen. Hain azkarra izan zitekeenik iola ere espero ez nuen haren ikustaldia izan baino lehen baina, polizia-buruarena izan nuen. Hobeto adieraziz, azken honen galdeketa nozitu nuen. Ez ziren haatik salaketa haiek ez gogorak ez eta ezainak. Nire jokabide txarra leporatzen

zidan, halaber zuhurtasunik gabe aritu nintzela Mko G. gizaseme boteretsua etsai bilakatu nuelako. Egia aitortzeko, nire auzian zentzugabeke-ria eta arinkeria maltzurkeriari gailentzen zitzaizkiola, baina banentorkiola bigarren aldiz bere esparrura. St. Lazare-n harturiko bizpahiru hila-beretako ikasbideen ondoren, zuhurrago jardun izango nukeela uste izan zuela. Epaille hain zuzenaren aurrean izateak arras poztu ninduelarik, adeitsu eta begirunez mintzatu nintzaion, kontent uzten nuela iruditzen zitzaidalarik. Erantzun zidan ez nuela nahigabeak nire burua ito zezan utzi behar. Prest zegoela bestalde nire alde jar-tzeko, nire jatorria eta gaztetasuna aintzakotzat harturik. Manon gomendatzeko ausartzia izan nuen, beraren xamurtasuna eta berezko ontasu-na gorai patuz. Haren ihardespenari irria isuri zitzaion esaten zidalarik ez zuela hura oraindik ikusi baina pertsona arriskutsutzat jotzen zutela. Adierazpen hark nire erraietako maite-grina bizi-tu egin zuen oso, jarraian nire maite nahigabe-tuaren aldeko mila ele eder ezpaineratzen nitue-larik. Nire gelara itzul nintzaion agindu zuen. — Maitasuna, maitasuna —aldarrikatzen zuen epai-

le zuzen hark ni irteten ari nintzela—; ez ote haiz inoiz zuhurtziarekin adiskidetuko?

Banenbilen ni nire burutapen goibel haiek gora eta behera, eta polizia-buruarekin izan nuen elkarrizketaz hausnarketa egiten, non eta nire gelako atea zabaltzen entzun bainuen.

Aita nuen. Bisita hura zenbait egun beranduago iritsi behar zela espero banuen ere, beraz nahikoa gertaturik izan arren, alabaina haren ikusteak hain gogor asaldatu ninduen, non une hartan zorua ireki izan balitzait, hantxe bertan amilduko bainintzatekeen. Besarkatzera urrerratu nintzaion txit zirraraturik. Eseri egin zen oraindik inork hitzik ahoratu gabe. Nik zutik jarraitzen nuenez, begiak behera kapela kenduta honela esan zidan seriotasun osoz:

— Jesarri zaitez gizona, jesarri. Zure libertinaia eta amarrukeria bide, zure kokalekua aurkitu ahal izan dut. Meritu handia zurea! Ezin zeure burua ezkutuan gorderik egon! Hortxe bertan dukezu ospea daramazun bidetik. La Grève-n izan dezakezu aurki helmuga, mundu guztiaren mirespenerako erakutsia izateko loria lortuko duzularik.

Ez nuen ahorik ireki. Honelatsu jarraitu zuen:

— Bai atsekabe latza aita honentzat semea horren biziki maitatu ondoren, ezer ere baztertu izan ez duelarik gizaseme ondratua bilaka dadin eta azkenean desohoratu egiten duen dongea aurkitzen duenean! Patua okertzen zaigunean badugu kontsolamendurik denborak dena eza-batuz baitarama bidenabar oinazea gutxituz doalarik. Baina zein sendabide legoke egunez egun gehituz doan gaitzarentzat, alegia ohorea-ren sentimendua galdu duen seme aztura gaiz-tokoarentzat?

Ez al duk ezer esan behar eskertzarreko horrek? —gehitu zuen; ikus jaunok beronen idu-rizko onestasuna, beronen apaltasun itxuratia! Nork ez zukeen horrela ikusita bere leinuko gizo-nik ondratuentzat joko?

Onbeharrezko hitz haien zati bat merezi nuela baietsirik ere, gehiegi nabarmendu zituela iruditu zitzaidan. Nire pentsamendua egiatasu-nez azaltzeari zilegi iritzi izan nion:

— Segurtatzen diot jauna, hemen berorren aurrean agertzen dudan apaltasuna ez dela mola ere axalekoa. Aita begirune osoz —batez



ere sumindurik dagoenean— errespetatzen duen jatorri oneko semearen berezko jarrera da. Ez dut inondik ere gure ariako gizonik zintzoena naizenik aitortuko. Berorren destainak merezi ditut, baina era berean onginahiz har nazala erregutzen diot. Ez gizonik zantarrena bezala. Ez dut izen horren gogorrik merezi. Maitasuna da, berorrek ongi dakienez, nire gaitz guztien sorburu. Galbidezko pasioa! Baina ez al du berorrek beraren indarra ezagutzen? Nire zainei darien odol berdina den berorrenak ez al du inoiz horrelako grinarik sentitu? Maitasunak xamur, grina-tsu, fidelegia bilakatu nau; agian maitatzaile guztiz adoragarriaren nahikundeei maizegi eman izan diet amore. Horra nire bekatu guztiak. Ba ote beroietan berorren desohorea sortuko lukeenik? Otoi aita nirea —gehitu nuen umilki—, izan beza erruki poxi bat beti begirunea eta maitasuna izan dion semearekin, berorrek bestela uste arren, ohorea eta eginbidea baztertu izan ez duen honekin, uste dezakeen baino mila aldiz errukigarriagoa dena.

Hitz haien harian malko batzuk erakutsi nizkion. Aita baten bihotza naturaren egintzarik

beteena da, beraren baitan errege, nolabait esateko, bertako hari guztien erabiltzaile. Nereak gainera, gizaseme argi eta adeitsua nuena nire damu-hitzei eman nien jiteaz hunkiturik, ezin izan zuen bere emozioa estaltzerik izan:

— Hator nire zoritxarreko zalduna —esan zidan—, hator nire besoetara. Hitaz erruki beharra sentitzen diat.

Besarkatu egin nuen. Haren besarkada her-tsiak bihotzean zer zerabilkion antzeman zidan. —Baina zer bitarteko erabili behar dugu zu hemendik ateratzeko? —Eta jarraian nire ordura arteko auzi guztiak kontatzeko eskatu zidan hutsunerik gabe. Ez zen ezer arazoak arazo nire portaeran erabat desohora nintzakeenik. Leinu ezagun hainbateko gazte jendearekin erkatuz esaterako. Bestalde bizi garen mende honetan nor aztora norbaitek amorantea badu? Eta zer esan jokoan adur onaren bila trebetasun pixka bat erakuts badezazu? Horregatik bada, nire biziaren gorabeherak hitzez hitz kontatu nizkion aitari. Aitortzen nion erru bakoitzeko, adibide ospetsuren bat luzatzen nion nire ahalkearen apaltzeko.

— Ni maitale batekin bizi naiz —aitortzen nion—; ezkontza-legeak bete gabe, baina X...ko dukeak bi mantentzen ditu Paris osoaren begien aurrean. Xko jaunak berriz, badu hamar urte beste batekin solastatzen dena, beroni emazteari inoiz izan zaion baino fidelago zaiolarik. Frantziako jende ondratuen bi herenek amanteak izatea gauza handitzat dute. Trikimailuak erabili ditut jokoan bai, baina Xko markesak eta Yko konteak ez dute beste errentarik. Uko printzea eta Zko dukea antzeko iruzurti talde baten buru dira.

Bi Mko G. horien diru-zorroaz baliatzeko erabili ditudan asmoei buruz aise frogatu ahal izango nukeen ez nuela eredu faltarik.

Baina banuen ohorerik aski, nire burua ez, eta ostera adibidetzat jar nitzakeen beste guztiak salatzeko. Horrela bada, nire ahuldade hura barka ziezadan eskatu nion, inarrosi ninduten bi pasio haietan: mendekua eta maitasuna.

Galdetu zidan ea eman niezaiokeen argibiderik nire askatasuna lortzeko pausurik laburrenez, beti ere berak eskandalua ekidin ahal izanik.

Erantzun nion polizia-buruak oso ongi hartu ninduela:

— Zailtasunen bat aurkitzen badu, ziur izan Mko G. bi jaunengandik baino ezin daitekeela etor. Horregatik behar bada bisitatu egin behar-ko lituzke berorrek. Bisitatuko zituela agindu zidan. Ez nion Manonen alde ezer aipatu. Ez gogorik ezagatik, beldur nintzelako baizik ez ote zuen horrelako proposamenak asaldatu eta biontzako xede gaiztorik sortaraziko.

Gaur bertan oraindik ere ez dakit beldur hori ez ote den nire gaitz handienen iturburu izan, aitaren jarreraren norabidea iradokitzen ez ezik, nire maitatzaile zorigaiztokoaren aldeko ahal egina galarazi baitit. Beraren errukia bilatu behar izango nukeen berriro, batez ere Mko G. zaharrak eman ziezazkiokeen irizpideak nolabait orekatzeko. Nik al dakit baina! Behar bada nire adu gaiztoak ahalegin guzti haiek ere gaintituko zituzkeen, baina orduan sikiera hura eta nire etsaien ankerkeria baino ez nituen nire zoritxar-rraren iturritzat joko. Aita, niri agur egin ondoren, Mko G. jauna bisitatzera joan zen. Zaintze-guardiak oneski aske utzi zuten bere semearekin

aurkitu zuen. Ez dut inoiz jakin izan haien berbal-diaren xehetasunik. Baina nahikoa erraza gertatzen zait guztiaren bilakaera jakitea, sortarazi zituen ondorio izugarriak kontutan izanik. Elkarrekin abiatu ziren aita biok polizia-buruarengana zeini mesede bi eskatu zioten: bata ni berehala askatzea Châtelet-etik, bestea ostera Manon bizi guztirako atxilotu zezala edo bestela Ameriketara bidal. Garai hartan hain zuzen jende zarpail anitz Mississipi alderantz ontziratzeari ekin zioten. Poliza-buruak hitz eman zien Manon lehengo ontzian bidaliko zuela harantz. Mko G. eta gure aita elkarrekin etorri zitzaizkidan nire libertatearen berri ematera.

Mko Gk kortesiazko hitzak erabiliz iragana ahortzi nahi izan zuen.

Eta horrelako aita izateagatik zorionak emanaz aurrerantzean beronen erakutsi eta etsenpluak jarraitzeko aholkatu zidan. Aitak berriz gizaseme haren familiari egin omen nizkion irainengatik nire damua ager niezaiola agindu zidan eskerrak emanaz berarekin batera nire askatasunaren alde saiatu zelako. Elkarrekin ateraginen nire maitatzaileaz berbarik ezpaineratu

gabe. Ez nintzen beraien aurrean hari buruz kartzelariei hitz egiten ausartu. Izan ere zein ezdeus izango ziratekeen orduan nire gomendio hitsak! Agindu ankerra nire askatasunarekin batera iritsi zen. Ordu bete gero Manon Ospitalera eramana izan zen beste zenbait emakume errukarrirekin biltzeko, haiek ere etorkizun berbera zutelarik.

Aitak ostatutzat hartu zuen etxera jarraitzeko behartu ninduelarik arratsaldeko seiak ingurura arte ez nuen aukerarik izan haren begietatik desagertu eta Châtelet-era berritzultzeko; Manoni ahorako zerbait eraman, eta bera ataltzainari artamendatu; horiexek nituen helburu. Argi bai-neukan bera ikusteko baimena ez zidatela erraz emango. Bestalde ez nintzen oraindik nola aska nezakeen pentsatzen hasi.

Ataltzainagatik itaun nuen. Nire eskuzabalatasun eta jendetasunak pozarren utzia zuten, hainbat non niri laguntza emateko prest, Manonen adur gaiztoaz hitz egin zidan hari atsekabe handikoa irizten ziolarik, bai baitzekien gogor hunkituko ninduela. Ez nuen autu hura inola ere uler-tzen. Une batzuk igaro eta oraindik ere ez genuen elkar aditzen. Azkenean ohartu zelarik

argibide beharra nuela eman zidan bai. Bai eman ere! Harrez gero norbaiti esan edo aitatu ere egiten izua sortzen dit. Ez da inoiz ezagutu horrelako ondorio azkar eta latzagorik sortu izan duen sorminik. Bihotz taupadaren minberak hain ninduen gogor astindu ezen berehala konortea galdu nuelarik, betiko biziaren kateetatik aske sentitu bainintzen. Buruan neuzkan oraindik pentsu honen hondarrak nire onera etorri nintzenean. Gelako bazter guztietara zabaldu nituen nire begiak bai eta neronengana ere.

«Oraindik ere bizidunen artean irauteko zorixarra al dut»? Galdegin nion nire buruari. Egia da edonork etsipen eta izialdura une hartan bere oinazeetatik aske sentitzeko izan ohi dugun berezko joerari jarraituz soil-soilik ez nukeela alegia heriotza baino gauza eztingarriagorik aurkituko. Erlijoak berak ere, zer desberdinik eskain ziezadakeen biziaren mugaz haraindian zorabiatzen ninduten dardara anker haiek baino? Baina maitasunak eragindako miraria lagun, Zeruari eskerrak emateko aski kemenik aurkitu izan nuen, zentzuna eta arrazoia itzuli zidalako. Nire heriotzak nire katramilak konpon zitzakeen soil-

soilik, baina Manonek nire bizia behar zuen, aska, sorots, mendeka nezan. Zio horri atsedetik gabe lotuko nintzaiola zin egin nuen.

Ataltzainak nire lagunik onenak emango zida-keen bezainbesteko laguntza eskerga eskaini zidan. Eskerrik bihotzekoenak erakutsi nizkion. —Ai baina! —esan nion, nire atsekabeak zure errukia hunkitzen du. Jende orok baztertu egiten nau. Aita bera jazarlerik gotorrenetakoa dut. Inor ez da nitaz erruki. Zuk zeuk bakarrik, gogortasun eta zantarkeriaren egoitzan zauden horrek agertzen duzu miserableenganako errukirik.

Kalera ez irteteko aholkatu zidan zorabio hura baretzen ez zitzaidan bitartean.

— Utz nazazu arren —erantzun nion kalera bidean—; zuk uste baino lasterrago ikusiko dugu elkar berriro. Gorde iezadazu leotzik eskasena. Emanen dut arrazoirik aski bertan hertsu naza-ten!

Eta hain zuzen nire lehen burutapena Mko G. biak eta polizia-burua garbitzea izan zen eta jarraian arma eskuan Ospitalera joko nuen nire auzian lagun izan nitzakeen guztiekin. Aita bera ere ez nuen ahanzten, nire mendekuaren burdin



sarean ez nuelarik bazter uzten, zeren eta atal-tzainak aitortu zidanez, berak eta Mko G. biek nire hondamendia bultzatu baitzuten.

Baina kalean zehar ostera bat egin nuelarik, odola freskatu ahala aldarte txarretik irteten hasi nintzen, nire suminak pentsamendu zentzuzkoagoi leku uzten zielarik emeki-emeki. Nire etsaien erailketak ez ziokeen Manoni mesede handirik ekarriko. Gainera berari laguntzeko baliabide guztiak galtzeko arriskuan ipiniko nindukeen. Bestalde zertarako erailketa koldar bat nire bizkarrera zama? Baina zein beste mendeku-bide aukera nezakeen? Kemen eta jeinu guztiak jarri nituen lanean lehenengo eta behin Marion askatzeko gainontzekoa helburu garrantzitsu haren arrakasta ondorenerako utziz. Urri nenbilen diruz. Oinarri ezinbestekoa alafede edozeri ekin hain lehen. Alabaina hiru pertsona baizik ez nituen ikusten hura niri eskuratzeko moduan. Tko jauna, aita eta Tiberge. Azken bi hauengandik ez zirudien antza gauza asko lot nezakeenik. Lehenengoari zegokionez berriz, ahalkea ematen zidan behin eta berriro tema berdinarekin berarengana jotzeak.

Ai baina, etsipenean ez du ahalkeak lekurik. Orduan bertan St. Sulpice-ko apaizgaitegirantz abiatu nintzen, arretarik jarri gabe ezagut ez nintzaten. Tibergegatik galdetu nuen. Haren lehen hitzetatik garbi atera nuen nire azken benturen albisterik ez zuela oraindik. Egiaztapen hark alegia, bera errukiaren bitartez biguntzeko nire lehen asmoa aldarazi egin zidan. Aita berrikustea sortu zidan zirraraz mintzatu nintzaion. Ondoren dirua uzteko eskatu nion Paristik alde egin aurretik ezkutuan gorde nahi nituen zenbait zor ordaintzeko aitzakiarekin. Berehala bere poltsa eskaini zidan. Bertan aurkitu nituen sei ehun frankotatik bostehun poltsikoratu nituen. Ordain agiria eskaini nion; eskuzabalegia zen horrelakorik onartzeko. Handik Tko jaunarengana itzuli nintzen.

Ahoan korapilorik gabe hitz egin nion. Nire ezbehar eta oinazeak agertu nizkion; haien xehetasunik ñimiñoenak ere ezagutzen zituen, Mko G. gaztearen abenturak jarraitzeko hartu zuen arduragatik. Nerea entzun eta nahigabean lagun izango nuela esan zidan. Baina Manon jaregiteko bitartekoez aholku eskatu nionean,

begitarte goibelez erantzun zidan ez zuela mal-  
karririk gabeko irtenbiderik ikusten, Zeruaren  
esku miresgarria lagun izan ezik, itxaropenik tti-  
kiena ere baztertu beharrean nengoela. Ospita-  
lera joana zela bestalde Manon bisitatzera, eta  
berak ere ez zuela neska ikusteko baimenik  
lortu. Polizia-buruaren aginduak estu eta zorrot-  
tzak zirela eta zoritxarraren mukuruan Manon  
barneratu zuten emakume-talde hura handik bi  
egunetara ontziratuko zela. Haren eleek hain  
ninduten aztoratu non ordubetez jarraitu izan  
balu ere bere jardunean ez nuen ahorik irekiko  
ezer esateko. Jarraitu zuen esaten ez zitzaidala  
Châtelet-era ikustera etorri, nire zerbitzuan erra-  
zago aritzeko, horrela nirekin harremanik ez  
zuela pentsatuko baitzuten. Ni bertatik zenbait  
ordu irten eta gero oraindik ere ez zekiela tama-  
lez norantz jo nuen. Azkar ikusi nahi izan nindue-  
la Manonen etorkizuna alda zezakeen aholku  
bakarra emateko. Aholku arriskutsua bestalde,  
zeinetan erregutzen zidan berak inolako esku  
hartzerik ez zuela izan esan nezan beti eta noiz-  
nahi. Honatx zertan mamitzen zen: Manon Pari-  
setik irten ondoren harekin zihoazen guardiak

erasotzeko prest egongo ziren zenbait mutil mutin aukeratu behar nituen. Ez zidan nire urritasunaz hitz egin niezaion denborarik eman: — Horra —esan zidan bere diru-zorroa erakusten zidalarik—, horra baliagarri izan dakizkizukeen ehun pistola. Adur ona aldeko jartzen zaizunean itzuliko dizkidazu. Bere ospearen zaindu beharrak galarazten omen zion bera ere Manon askatzeko ahaleginetan aritzea. Bestela bere beso-  
ezpatak zalu izango nituela lagun.

Emankortasun gehiegizko hark negar-zotinetan jarri ninduen. Nire saminak uzten zidan bizi-tasunik handiena erabili nuen berari nire esker-rona agertzeko. Galdetu nion ea polizia-buruari erregutuz ez ote genezakeen ezer lortu. Hori ere pentsatua egon arren, baliabide ilauntzat jotzen zuela. Izan ere horrelako mesedeak arrazoitua behar zuen izan, eta berak ez zuen arrazoirik aski ikusten, hain pertsona gotor eta ahalguzti-dunak bere bitartekotza egin zezan. Bide hartarik zerbait lortzekotan Mko G. eta nire aitaren irizpideak alda erazi beharko nituzkeela beren bitartekotza egin zezaten polizia-buruari epaia ezezta zezan eskatuz. Berak bere aldetik Mko G.

gaztea gureganatzeko ahaleginak burutuko zituela, nahiz eta gazte hura gure auzia zela eta bere orduko jokabideak sortaraziko zizkion susmoengatik bereganako apur bat hotziturik nabaritzen bazuen ere. Niri zegokidanez, esan zidan aitaren bihotza leuntzeko deus ere ez isiltzeko beraren aurrean izango nintzenean.

Ez nuen ez eginkizun erraza. Eta ez diot hori bera nire barrutira erakartzen izango nituen zailtasunei begira bakarrik. Ez. Bazen berarekin biltzeko beldurra sortzen zidan beste arrazoi bat. Izan ere aitaren aginduen kontra bere etxetik ihesi atera bainintzen, erabaki sendoa hartua nuelarik bertara ez itzultzeko Manonen etorkizun hitsa ezagutu ahal izan nuenetik. Arrazoi osoz beldur nintzen ez ote ninduen nire gogoaren kontra larre motzean lotuko, areago oraindik jaioterrira eramango. Anaiarik zaharrenak erabilia zuen behin jokaera hura. Ni jadanik gizondua nengoela egia bazen ere adinak ezer gutxi zezakeen indarraren aurrean. Hala ere arriskutik aterako ninduen irtenbidea topatu nuen.

Toki publiko batetara deituko nuen, neronek goitizena erabiliz. Erabaki horri lotu nintzaion

bada berehala. Tko jauna Mko Grengana jo zuen eta nik Luxembourg-era. Bertatik mezua helarazi nion aitari bere zerbitzari leial bat zain zuela esanez. Beldur nintzen ez ote zen etorriko gaua sartzeaz baitzegoen. Aurki azaldu zen baina bere nerabea lagun. Bidezidor batetarik abiatzeko erregutu nion bakarrik izan gintezen. Gure oinek ehun urrats aurreratu bazuten ere isiltasuna genuen nagusi. Haren ustea zalantzarik gabe hainbat itzulinguruk zerbait pisuzkoa ezkututzen zutela izango zen. Nire hitza espero zuen. Nik bien bitartean nirea biribiltzen niharduen.

Halako batean ekin nion nireari:

— Jauna —esan nion dardaraz—, aita on bat da berori. Mesedea baino ez dit egin, makina bat erru barkatu. Izan bedi Zerua lekuko, berorren-ganako semerik zintzoenak dituzkeen sentimendu berdinak ditudala. Baina iruditzen zait berorren hertsitasunak...

— Zein hertsitasunez ari zara? —Moztu zidan berak—. Uste baitzuen nonbait bera urduriago jartzeko ari nintzela astiro hitz egiten.

— Ai jauna —ihardetsi nion—, nire iritzia da ezin hertsia goa jokatzeko ari dela berori Manon

zoritarrekoarekin, Mko G. jaunaren esamesei jarraituz. Gizaseme horren gorrotoak kolore ezin beltzagoz itxuratu dio, hartaz irudi ezin negargarriagoa osatu duelarik. Baina zinez diot, izan litekeen gizakirik jator eta goxoena da.

Zeinen penagarria Goikoak ez iradokitzea berorri bera lipar batez sikiera ikusteko aiherra! Niri bezain xarmangarria irudituko zitzaiokeenik ez dut zalantzarik. Beraren alde jarriko zatekeen Mko Gren amarrukeriak gorrotatuko zituzkeen, eta bion erruki izango. Bai bigunduko ere, ez baita entzungorra.

Su eta gar ikusten ninduelarik nire jarduna eten nahi zuen gehiegi luza ez nendin. Norantz bideratu nahi nituen hitz haiek jakin nahi zuen.

— Bizia eskatu nahi diot —erantzun nion—, une batez ere ez baitut iraungo Manon Ameriketarantz ontziratua izan eta gero.

— Ez, ez —erantzun zidan era gotor batez—, nahiago zaitut hila, ezen ez zuhurtzia eta ohorerik gabe.

— Orduan ez gaitezen urrutirago joan —esan nion besotik oratzen niolarik—. Ken jasangaitz eta gorrotagarri zaidan bizi hau, zeren amiltzen

nauen etsipenaren osin ilunean heriotza mesedegarri izango baitzait. Horra aita baten opari duina!

— Merezi duzuna emango dizut —berak—; bere semearen borrero izateko hain luze espero izango ez zuketen hainbat eta hainbat guraso dut gogoan. Ni onegia izateak galdu zaitu.

Bere belaunetara makurtu nintzen: —Hartarik alerik badu oraindik —esan nion besarkatzen nuen bitartean—, ez beza entzungor egin nire negarraren aurrean. Pentsa semea naizela. Oroit amarekin. Zeinen gozo maite zuen! Besoetatik erauztea onartuko al zukeen berorrek? Heriotza emateraino defendatuko zukeen. Eta besteok, ez al deritzo guk ere badugula bihotzik? Eztitasuna eta oinazea ezagutu ondoren ba al da inor basatirik?

— Ez jarrai zure amaz hitz egiten —hasi zen bera ahots sutuaz.

Oroitzapen horrekin haserre ezin handiago sortzen didazu. Zure jukutriek hilobira eramana zuketen honez gero bizi izan balitz. Erabat nardatzen nauen eta nire jarrera inola ere aldaraziko ez duen berriketa hau amai dezagun. Itzultze-



ra noa etxera. Nirekin etor zaitezzen agintzen dizut.

Haren aginduari zerion tonu lehor bezain hotzak bihotz aldaezin baten aurrean nengoela ulertarazi zidan. Nire lorratzak urrundu egin ziren orduan bere eskuez harrapatzera etorriko zitzaidanaren beldurrez.

— Ez beza otoi nire etsipena biderka —esan nion—, desobeditzera bortxatzen naularik. Ezinezkoa zait berorri jarraitzea. Hartu nauen gogortasunaren ondotik ezinezko halaber bizirik jarraitzea. Horra bada nire betiereko agurra. Aurki helduko zaion nire heriotzaren albistea —gehitu nuen hots ezin goibelagoz—, aita bati on zaizkion sentimenduak itzuliko dizkio.

Buelta eman eta alde egitera nindoala ikusirik, honelatsu aurpegiratu zidan ira bizian: —Agur, hoa hire galbidera seme eskertzarreko eta hezigaitza.

— Agur —erantzun nion nik neu ere suturik—, aita basati eta nortasun gabea.

Luxembourg-etik irten ondoren kalez kale zabukatu nintzen Tko jaunaren etxeraino. Ibiliz nindoala esku eta begi jasotzen nituen Zeru

Gorenari dei eginez: «Oi Jaun boteretsua —nioen nirekiko—, gizakiok bezain bihozgabea al zara? Zure laguntza baino ez dut».

Tko jauna ez zen oraindik bere etxera itzulia. Aurki zen berriro bertan. Bere ahaleginak nireak bezain ilaunak gertatu ziren. Ezagun zuen bere aurpegian. Mko G. gaztea bere aita bezain haserre ez bazen ere Manon eta bion kontra, ez omen zuen gure alde deus ere egin nahi izan. Bere burua zuritzeko berak ere agure mendekos hari zion beldurra aipatu omen zion, aurretik agiraka gogorra jasan omen zuen harengandik, Manonekin izan zituen uztartze-asmoak leporatu zizkiolarik. Ez zidaten beraz bortxaren bidea besterik uzten, Tko jaunak azaldu zidan bideari jarraituz. Zio horretara mugitu nituen nire esperantzak: —Oso bada ezpadakoak ditut —esan nion—, baina niretzat haietarik sendo eta kontsolagarriena ekintzan hila izatea da.

Bere pentsamendurik hoberenez lagun zieza-dan erregutuz egin nion agur. Nik nire aldetik nire kuraia eta erabakigarritasuna kutsatu nahi nizkiekeen laguntzaileak aurkitu nahi nituen. Burura etorri zitzaidan lehena Mko G. bahitzeko

erabili nuen guardia bera izan zen. Gaua beraren etxean pasatzeko xedea neraman ez bainuen adorerik gela bat alokatzeko. Bakarrik aurkitu nuen. Poz handia hartu zuen Châtelet-etik kanpo ikusten ninduelako. Bere zerbitzuak eskaini zizkidan jentiltasunez. Nolakoak nahi nituen argitu nion.

Baina bazen bera aski zuhurra haiek burutzeko zer nolako zailtasunak izan zitezkeen nabaritzeko. Alabaina ez zidan bere laguntza ukatu, prest agertu zelarik zailtasun haiek gainditzeko. Gauaren aldi bat nire plana gorpuzten pasatu genuen. Hiru zaintze-guardiaren izenak eman zizkidan, hirurak ere azkeneko gertaeran erabili zituen mutil ezin gogorragoak. Tko jaunak berriz Manon eraman behar zuten arkulariez hitz egin zidan. Sei baizik ez ziren. Bost gizon ausart eta erabakigarri aski izango ziren bere burua oneski defendatzeko gauza ez eta koldarkeriaren bitartez arriskutik itzur egiteko prest leudekeen alproja haiek ihesbidean jartzeko. Orduan diruz oparo nenbilenez, zaintze-guardia lagun hark gure erasoaren arrakasta lortzeko ez nezala zer-nahi gauza baztertu aholkatu zidan: —Zaldiak,

pistolak eta nork bere mosketoia behar ditugu. Neure kontura hartuko dut bihar antolakizuna. Halaber hiru kale-jantzi behar izango ditugu gure soldaduentzat, errejimenduko uniformearekin ez bailirateke honelako auzi batean sartzen ausartuko.

Tko jaunak eman zizkidan ehun pistolak eskuan jarri nizkion. Biharamunean denak akituak zituen. Banan-banan pasatu nien errebista. Agintzari handiak eginez animatu nahi izan nituen. Eta hasteko edonolako mesfidantza baztertzeko, hamarna pistola eman nion bakoitzari. Ekintza eguna heldua zelarik, haietariko bat Ospitalera bidali nuen goizean goiz arkulariak noiz aterako ziren beren harrapakinarekin bere begiz finka zezan. Ardura hura urduriegi nintzelako hartu banuen ere, gauza da ezinbestekoa gertatu zela.

Haien norabideaz nituen albisteak oker zeuden, zeren emakume saldo negargarri hura La Rochelle-n ontziratu behar zutela uste izanik, denbora alperrik galduko bainuen Orleans-ko bidean haren zain egon banintz. Haatik gaztigatua izan nintzen guardia haren bidez Normandia-

ko errepideari lotzen zitzaizkiola, bai eta Manon Havre de Grâce-ko portutik ontziratuko zutela Ameriketarantz.

St. Honoré portalerantz abiatu ginen ezin azkarrago, kale desberdinetan zehar aurrera egiteko ardura harturik. Auzategiaren amaieran berbatu ginen. Zaldia indarrez ikusten genituenez laster begiztatu genituen zuk Pacy-n duela sei urte ikusi ahal zenituen sei guardia eta halamoduzko zalgurdi bi haiek. Ikuskizun hark neraman kemena eta zentzua bera ere galtzear jarri zizkidan. —Oi patua, patu doilor halakoa —aldarrikatu nuen—; emadak sikiera hemen bertan heriotza edo garaipena!

Gelditu egin ginen gure eraso nola aurrera eramanez pentsatzen. Ez genituen arkulariak laurhun urrats baino urrutiago izango. Behaztopa genitzakeen zelaitxo bat zeharkatuz, zeinen inguruan errepideak buelta ematen baitzuen. Zaintze-guardiak uste izan zuen saihesbide hura hartuz, zuzen-zuzen beraiengana jauzi gintezkeela. Baietz erantzun niolarik, neronek ezproinatatu nuen aurrenik nire zaldia. Baina patuak berriro ere nire eskari guztiak arbuiatu egin

zituen. Arkulariak bost zaldi haiek gainera zetoziela konturaturik arin ohartu ziren hura eraso bat zela. Baioneta eta fusilak eskura, gertu zeuden aurre egiteko.

Jarrera hark zaintze-guardia eta biok kementsu haien oldartzera abiarazi bagintuen ere, adorerik gabe utzi zituen gure beste hiru erasokide beldurti haiek. Aurretik elkar hartuta baleude bezala, gelditu eta nik ulertu ezin izan nituen hitzak jaulkiz, ziztu bizian Pariseranzko norabidea hartu zuten.

— Alajainkoa, zer egin dezakegu? Bi baino ez gara. —Esan zidan nire lagunak—, iduri baitzuen ihes koldar hark ni bezain aztoratua utzi zuela. Asaldapenak eta harridurak ahotsik gabe utzi ninduten. Gelditu egin nintzen. Ez nekien nire lehenengo mendekua abandonatzen gintuzten ergel haien jarraigo eta zigorraz hasi behar ote nuen...

Ihesi zihoazenei begiratu, beste aldeko arku-lariak zaindu... bitan zatituko nintzatekeen ahal izan banu, nire amorruren jomuga alde bietara amildu eta hantxe bertan suntsituko nituzkeen. Zaintze-guardiak nire begi-joanak ikusiz zalan-

tzakor nabaritu ninduelarik bere aholkuei jaramon egiteko erregutu zidan: —Bi besterik ez garelarik erokeria handia litzateke gu bezain ongi armaturik eta irmo diruditen gizon horiek erasotzea. Parisera itzuli beharra dago, eta laguntzaile adoretuagoak bilatzen hasi. Arkulariek ezin izango dute bide handirik egin zalgurdi horren astunekin. Bihar bertan harrapatu ditza-kegu gehiegi nekatu gabe.

Bere eleek gogoeta eragin zidaten. Baina begiratzen nuen toki edozeinetara begiratzen nuelarik ere, etsipen-lorrazik baino agertzen ez zitzaidanez, erabaki benetan etsipengarria aukeratu nuen. Nire lagunari bere ahalegina eskertu ondoren, ez nintzen ez arkulariak erasotzen hasi, aitzitik apaltasun handiz beren taldean onar nintzatela erregutzera joatea erabaki nuen. Horrela Manonekin Havre de Grâcera iritsi eta berarekin itsasoz bestaldera pasatuko nintzen.

— Denek jarrai edo traditu egiten naute — esan nion gizon hari—. Ez dut inoren konfiantzarik. Gizonen eta patuaren aldetik ezin dut ezer espero. Zoritxarrek ito beharrean naukate. Men-

pera nazatela bada! Hertsiak ditut begiak. Ez dut inolako esperantzarik amesten.

Sari beza Zeruak zure bihotz zabala! Agur, lagun diezaiodan orain nire adur gaiztoari nire hondamendia gauzatzen, neroni bertara lasterka urreratuz!

Nire lagunak eginahalak egin zituen Parisera itzul nendin berarekin erregutuz. Baina alperrik. Nire erabakia atzeraezina zela adieraziz handik alde egiteko erregutu nion, arkulariek pentsa ez zezaten gure asmoa beraiek erasotzea zela.

Bakar-bakarrik urrats geldoz hain kikildua neraman nonbait aurpegia arin ohartu zirela ez nintzaiela inola ere arriskutsua. Alabaina beren burua defendatzeko prest jarraitzen zuten.

— Lasai zaitezte jaunok —esan nien berbertan nengoela—. Ez natorkizue gerra-usainean, mesede-eske baizik.

Bere bideari jarraitzeko erregutu nien mesfidantzarik gabe. Laster aitortu nien beraiengandik nahi nuen mesedea. Bere artean hitz egin zuten zer nolako erantzuna eman. Taldeburua beste guztien izenean mintzatu zen. Gatibu haiek oso estu eta gupidarik gabe zaintzeko



agindu zorrotzak hartu zituztela erantzun zidan. Haatik gizakume jatorraren itxura hartzen nindutelarik, berak eta bere kideek beren eginkizuna apur bat lasaitu egingo zutela. Baina ulertu beharrean nengoela guzti hark trukean zerbait eskatzen zuela. Hamabost pistola geratzen zitzaizkidan. Nire sosak zenbatean zeuden adierazi zuen maltzurkeriarik gabe.

— Ongi da —erantzun zidan—. Ez gaituzu zikoitz izango. Gura duzun neskekin egoteagatik ezkutu bat baino ez dizugu kobratuko; horixe duzu Pariseko ohizko prezioa.

Ez nien noski Manon aipatu ere egin, nire maite-grina ezagutu ez zezaten nahi nuelako. Horregatik eta hasiera batean nirea, izaki haien ondora denbora-pasa apur baten bila zetorren gizon gaztearen apeta iruditu zitzaien. Baina nire harenganako maitasuna sumatu zutenean beren eskabideak jaso egin zituzten, hainbat non Nantes-ko irteerako sosik gabe gelditu bainintzen, bertan hain zuzen igaro genuelarik gaua Pacy-ra iritsi aurretik.

Zer nolako gai tristea erabili ote nuen Manonekin ibilbide hartan galde dezakezu. Bai eta

nire zirrarez ikusi nuenean zaintzaileek bere orgara urreratzeko askatasuna ematen zidatela.

— Ai Jauna, hitzek ez dute tamalez bihotzaren zirrara-erdia besterik jasotzen! Baina otoi, irudika nire maite gajoa gorputzaren erditik estekatua, lasto eskukada batzuen gainean jesarria, burua gurdiaren hegal batetan, herbal, begitar-tea zurbil, betazaletatik isuri zihoakion negar malkoen arrastoa agerian, begiak itxirik bazeramatzan ere, erasotuak uste izan ziren bere jago-leek egin zuten zaratak ere beraien irekitzea lortu ez zuelarik. Arropa zikin eta narrai, bere esku eztiak haizearen erauntsien menpe. Hots, unibertsora idolatria ekartzeko jaioa zitekeen irudi xarmangarri hark egoera eta utzikeria adierazi ezinean zirudien. Zaldi gainean ni gurdiaren ondoan, begira jardun nintzaion aldi batez. Hain ezdeus sentitzen nuen nire burua, zenbait unetan jausteko arriskuan izan nintzela. Nire hasperenek, nire zotin usuek niri begira ipini zuten. Ezagutu egin ninduelarik gurditik jauzi eta niregana etorri nahi izan zuen, baina kateak oztopatzen zuenez, bere ohizko egoerara itzuli zen berriro. Istant batez gelditzeko eskatu nien arku-

lariei. Beren zikoizkeriagatik baino ez zuten onartu. Zalditik jaitsi eta beraren ondoan eseri nintzen. Makal eta zurbil aurkitu nuen. Ez zen gauza izan aldi luze batean eskuak higitu edo hizketan hasteko ere. Bien bitartean nire malkoak esku leun haiek bustitzen aritu ziren eta hitzik adierazi ezinik geundelarik inoiz ezagutu izan den egoerarik tristeenean ginen. Gure erranak ere ez ziren alaiagoak izan, elkarri berriro hitz egiteko gai izan ginenean Manon hitz gutxiko zebilen. Bazirudien ahalkeak eta oinazeak ahokordak aldarazi zizkiotela, ahotsa ahul eta dardaraz betea ateratzen baitzitzaion. Eskerrak eman zizkidan ahortzi ez nuelako, bai eta nekar-kion pozagatik —esan zidan zizpuruka— berriro ikusten ninduelarik elkarri azken agurra egiteko. Baina segurtatu niolarik inork ez ninduela berarengandik banatuko, prest baininduen munduaren azken muturreraino joateko bera zaindu, zerbitzatu, maitatu eta nire adur zorigaiztokoa berarenarekin betiereko bat egiteko, neska gajo hark bere sentipen xamur eta minduak erakutsi zituen, halako moldez non beraren biziaren beldur izan bainintzen, hain zuen handia bere emo-

zioa. Esanen nukeen bere arimaren mugimendu oro begietan biltzen zuela, gero ni baitan islatzen zituelarik.

Inoiz ahoa zabaldu orduko hitzak amaitzeko kemenik gabe geratzen zen. Alabaina noizbehinka bere nireganako maite-frogak kanporatzen zituen. Eta bere gehiegikeriaren dolu xamurrak, aski zoriontsu izan zitekeenaren zalantzaz nigan grina hain perfektua sortu izan zuelako, bai eta berari jarraitzeko xedeak baztertzeko arrenak, berarengandik espero ez nezakeen eta beste nonbait merezi nuen zoriona aurki nezan.

Egoera hura nozitu arren, zeinen zoriontsu nintzen beraren begirada eta saminaren egiatasuna sentiturik! Gainerako gizonek estimatzen duten guztia galdua nuen egia esateko, baina Manonen bihotzaren jabe nintzen. Ez nuen beste ezer amesten. Zer axola niri Ameriketan, Europan edo zernahi lekutan bizitzeak, nire maitearen ondoan zoriontsu izanik? Ez al da bada unibertsoa bera maitemindu fidel biren lurralde? Ez al dute elkarrengan aita eta ama, senide eta lagunak, ondasuna eta zoriona aurkitzen? Bazen kezkatzen ninduen gauza bat. Marion txirotasu-

naren leizean ikustea alegia. Nire burua berarekin batera eremu zabalean eta basatien artean irudikatzen nuen jadanik. Ziur nago —nioen nire artean—, gure aita eta Mko G. bezain gizaseme ankerrik ez dela bertan aurkituko. Baketan bizitzeko gaituzte behintzat. Haietaz diotena egia bada naturaren legeei lotzen zaizkie. Haiengan ez dateke Mko Gk duen zekenkeria ez eta gure aitaren ohoreari buruzko irizpide bitxiak zeinengatik etsai bilakatu bainatzaio. Beraiek bezain apal bizi nahi duten maitale bi hauek lasai utziko dituzte. Trankil nengoen alde horretatik. Ez nuen baina ideia liluragarriak egiten bizitzaren beharren gainean. Aspaldidanik jakinaren gainean nengoen ezinbesteko premiak bazeudela, batez ere bizitza eroso eta oparoan ekandurik dagoen neska bupera batengan. Ernegaturik aurkitzen nintzen bestalde nire zorroa hain alperrik xahutu nuelako, batez ere geratzen zitzaidan diru poxi hura arkularien jukutriak ebatsiko zidala pentsatuz. Nire aburua zen diru-kopuru txiki batek Ameriketako lazeria saihesteko ez ezik, nire kontura lantegi iraunkor bati eusteko balio zezan-

keela, lurralde haietan dirua urri omen zebilen eta.

Burutapen hark Tibergeri idazteko xedea sortarazi zidan, hura beti bere adiskidetasunaren laguntza emateko prest izaten bainuen.

Igaro genuen lehenengo herritik idatzi nion. Havre de Grâce-ra iristean zein premia larrian izango nintzen esaten nion, isildu gabe Manon laguntzera nindoanik. Ez nion beste inolako arrazoirik eskaintzen. Ehun pistola eskatzen nion: «Helaraz iezazkidazu mesedez, —idazten nion—, posta-buruaren bitartez. Pentsa ezazu zure bihotza hunkitzen dudan azkeneko aldia izango dela, nire maitale nahigabetua betiko bahitzen baitidate. Ezin dezaket joaten utzi beraren zoritxarraren zama astuna eta nire damu izugarria arindu dezakeen zerbait egin gabe.»

Arkulariak bestalde nire pasioaren suaz ohar-turik jasanezinak bilakatu zitzaizkigun. Baimen ñimiño bakoitzeko etengabe bikoizten zidaten prezioa. Azkar asko ezer gabe utzi ninduten. Maitasunak baina bihotz-zabal izatera bultzatzen ninduen. Manonen ondoan egunsentia eta arratsa denak ahanzten nituen. Arkulariek ordurako

ez zidaten denbora orduz ordu neurtzen, egunez egun baizik. Esan dezaket laburbilduz, zorroa hustu zidatenetik harrokeria pairaezinaz tratatzen nindutela, sei alproja haien kasketaldi eta basatikeriaren menpe aurkitzen nintzelarik. Zu zeu jauna izan zinen Pacy-n guzti horren lekuko. Zu aurkitzea patuak eskaini zidan atsedene zoriontsua izan zen. Nire arrangurak sumaturik, zure errukia izan nuen eragile bakar zure bihotz nardoaren baitan. Horren eskuzabal eskaini zidan laguntza Havre-ra heltzea ahalbidetu zidan. Eta arkulariek emandako hitza nik espero baino hobeto bete zuten.

Havre-ra iritsi eta postara jo nuen. Tibergek ez zuen oraindik erantzuteko denborarik izan. Gutuna jaso nezakeen egun zehatza jakin nahi nuen. Ez omen zen bi egun gero baino lehenago iritsiko.

Eta gertatu zen nire adur gaiztoaren bitartekoaz nonbait, gure ontzia posta espero nuen egunean bertan ateratzen zela. Ezin nire etsialdia adieraz. «Zer arraio —nioen nirekiko—, zoritxarrak berak ere beste inor baino gogorrago astindubehar al nau?»

— Utikan nire zaldun maitagarria! —erantzun zidan Manonek—. Baina... bizi honen higuingariak merezi ote du eskaintzen diogun arretarik? Dei diezaiogun heriotzari hemen bertan Havre-n! Eraman bitza berak gure miseriak. Lurralde ezezagunera eramán behar al ditugu herrestan? Eremu izugarria behar du izan zigortzeko bainaramate. Hil ditzagun geure buruak —errepikatzen zidan—, edo bestela hil nazazu. Eta zoaz gero beste amorante zoriontsuago baten besoe-tara.

— Ez, ez —erantzun nion—; zori estimaezina dut zure ondoan zure zoritxarraren partaide izatearekin.

Baina bere eleek ikaratu egin ninduten. Gaitz tzar haiek akiturik utzia zutela iruditu zitzaidan. Lasai itxura egiten saiatu nintzen heriotzazko eta etsipenezko burutapen haiek bazter zitzan. Etorkizunean jarrera berdina izatea erabaki nuen. Eta hurrengo egunetan egiaztatu nuen ez dagoela emakume bati kuraia sortaraz diezaio-keen gauza hobeagorik maite duen gizonaren ausartzia baino.



Tibergerengandiko diru-laguntza galdutzat jotzen nuenez, saldu egin nuen zaldia. Diru harekin eta zerorrek emandakotik oraindik zerbait aldean neukalarik, hamazazpi pistola osatu nituen. Haietatik zazpi Manonentzako lagungarri batzuk erosten erabili nituen, enparauzko harrak berriz ondo-ondo gorde nituen gure Ameriketako itxaropenen ondare-oinarri bezala. Ez nuen inolako arazorik izan itsasontzian hartua izateko. Garai hartan koloniarak bere borondatez zihoan gazte jendea pozik izaten zen onartua. Bidaia eta janaria doan eman zidaten. Parisera-ko posta biharamunean irteten zenez gutun bat utzi nuen Tibergerentzat. Oso sentibera zen, arras hunkituko zuela pentsatu nuen, zeren adiskide nahigabetuaren alde xera eta bihotz zabal-tasun izugarria izan ohi denean bakarrik har baitaiteke hark hartu zuen erabakia.

Gure belaontzia astintzen zuen haizea aldeko genuen beti ere. Kapitainarengandik kamaina lortu nuen Manon eta biontzat bakarrik. Beste ontzikide zarpail haiek baino hobeto hartu gintuen. Lehenengo egunetik nire kontura hartu eta berarengandik begirunea jasotzeko nire nahiga-

been atal bat ezagutarazi nion. Ez dut uste nire burua erruduntzat jo behar dudanik Manonekin ezkondurik nengoela esan niolako. Sinetsi zidanaren itxura egin zidan, bere babeska eskaintzen zidalarik. Itsasketan zehar izan genuen hartaz frogarik aski. Ardura hartu zuen elikapen duina jaso genezan. Gainera, gurekin izan zuen begiruneak gure miseriakideen errespetua ekarri zigun era berean. Arreta etengabea izaten nuen Manon eroso senti zedin. Ongi konturatzen zen bera horretaz, eta horrek alegia ni egoera hain latzera eraman izanaren damuak hain ezti eta suhar bilakatu zuen nire beharrik xumeenetan laguntzeko prest, ezen bion artean halako elkarren laguntza eta maitasun-lehia etengabean aritzen baikin. Ez nuen inondik ere Europaren faltarik nabaritzen aitzitik zenbat eta aitzinago gindoazen Ameriketarantz orduan eta zabal eta lasaiago nabaritzen nuen bihotza. Bizitzaren premiarik behinenak segurtatzerik izan banu, esker-tu izango niokeen patuari nire atsekabe guztiei hain norabide mesedegarria eman zielako.

Bi hilabetetako itsasketak irrikatzen genuen itsasbazterrera eraman gintuen. Lurralde hark

ez zuen lehen begiratuan gauza atseginik eskaintzen. Lur mortu bizilagunik gabeak aurkitu genituen, beraietan kanabera-sailak eta haizeak biluzturiko zenbait zuhaitz.

Besterik ez zen ikusten. Giza edo animalia aztarnarik ez. Hala ere kapitainak artilleria jaurtikitzea agindu zuelarik, Orleans Berriko hiritar talde bat begiztatu genuen guregana pozezko zeinuak egiten. Ez genuen oraindik hiria ikusten, alderdi hartatik muinotxo batek estaltzen baitu. Zerutik jaitsi berriak baikinen hartu gintuzten. Jende errukigarri hark ez zuen denborarik galdu. Hamaikatxo galdera luzatu ziguten Frantziako eta sortuak ziren eskualdeetako egoeraz. Anaia-arreba bezala besarkatzen gintuzten, beraiekin txirotasuna eta bakardadea banatzera gindoa-zen lagun maiteak baginen bezala. Elkarrekin jo genuen hirirantz. Baina aurrera egin ahala, antzematen joan ginen ordura arte hiri edertzat adierazi ziguten hura etxola xume batzuk baino ez zirela. Bost edo sei ehun pertsona biziko ziren beraietan. Gobernadorearen etxea —gain batean— apur bat gailentzen zen bere kokape-

nagatik. Haren babeserako, ezponda baten azpian hobi luze bat zegoen.

Berehala gizaseme harengana eraman gintuzten. Kapitainarekin bakarrik solas luzea izan ondoren, guregana itzuli zen eta itsasontzian heldu berri ziren neska guztiei begiratu zien banan-banan.

Hogeita hamar ziren, zeren Havre-n gurera batu zuten beste talde bat sartu baitzen. Gobernadoreak, luzaro aztertu zituen ondotik, emazte-irrikan zeuden hiriko zenbait gazte deitzeko agindu zuen.

Politenak beraietako garrantzitsuenei eskaini zizkien, gainerakoekin zozketa egiten zelarik. Ez zion oraindik Manoni hitzik esan, baina besteei alde egiteko agindu eta gero Manon eta bioi geratzeko adierazi zigun.

— Kapitainarengandik jakin dut, —esan zigun—, ezkondurik zaudetela, bai eta itsasaldian zehar pertsona jator eta bertuteduntzat estimatu izan zaituztela. Ez dut zuen zoritxarra sortarazi duten arrazoiez deus jakin nahi, baina egia bada zuen itxurak islatzen duen gizabidearen jabe zaretela, ez dut ezer saihestuko zuen

bizimodua hobetzeko. Are gehiago zeuen esku utziko dut leku basati eta mortu honetan niri poztasunik aurkitzen laguntzeko betebeharra.

Nire erantzuna gutaz zuen iritzia bermaturik gera zedin bidetik joan zen. Hirian guretzat bizilekua aurkitzeko agindua emanez, berarekin afaltzera geratzeko adierazi zigun. Gizatasun handiko gizona iritzi nion zorigaizto erbesteratu haien buru izateko. Ez zigun galderarik egin gure abenturei buruz. Gai arruntak ukitu zituen hizketaldi hartan. Triste baginen ere, ahalegindu ginen Manon eta biok alai agertzen. Iluntzean prestarazi zigun bizitokira gida ziezaguten agindu zuen. Buztin eta oholez eraikiko etxola eskasa, bizpahiru gela zoru garbian eta ganbara gainean. Haren aginduei jarraiki, bospasei aulki eta bizitzeko ezinbesteko ziren beste zenbait gauza ezarri zituzten. Egoitza hain urriaren aurrean Manonen aurpegia asaldatua ageri zen. Nigatik arduratzenago bere buruagatik baino. Bakarrik geratu ginenean eseri eta negarrari ekin zion mingostasunez. Kontsolatu nahi izan nuen. Baina niregatik baizik ez zela aitortu zidanean, eta gure zoritxar komunean nik nozitzen nitue-

nei baino ez zietela irizten, gehitu zuenean, orduan ausart itxura eginez, poza bera ere irado-ki nahian hauxe esan nion: —Zergatik ote naite-ke kexa? Opa dudan guztia dut. Maite nauzu, ezta? Ez dut inoiz bestelako zorionik amestu. Utz diezaiogun Zeruari gure patuaren ardura! Nik ez dut gainera berau horren etsigarria ikusten. Gobernadoreak gizon jatorra dirudi. Begirunez hartu gaitu. Ez du utziko premiazkoena falta dakigun. Gure etxolaren huskeria eta altzarien arruntari dagokionez, ohartuko zinen oso jende gutxi dagoela hemen guk baino baliabide hobe-rik duenik. Gainera zu, nire iratxo maitea, kimi-kari bikaina zaitut, ukitzen duzun oro urre bihur-tzen baituzu, —gehitu nuen besarkatzen nuela-rik.

— Orduan —erantzun zidan berak—, mundu-ko pertsonarik aberatsena izango zara, zeren zure maitasuna bezainbestekorik ez bada, ezi-nezkoa izango baita zu zaren bezain maitatua izatea. Nire buruari aitortu behar diot ez dudala inoiz zuk nireganako duzun lotura miresgarria merezi izan. Zure ontasun izugarriak baino barka ez zezakeen atsekaberik sortu izan dizut. Burua-

rin eta aldakor izan nauzu. Eta neuk ere bihotzez maite izan bazaitut ere beti, guztiz eskertxarrekoa izan naiz. Baina zinez diotsut ez dakizu ez zenuke sumatu ere egingo nola aldatu naizen. Frantziatik atera ginenetik, horren ugari isurtzen ikusi dituzun malkoetatik ttantta batek ere ez zituen nire zoritxarrak helburu. Zuk beroietan partaide izan zaitudanetik sentitzeari utzi diet. Zutaz gupida dudalako eta barrenean zaramatzadalako egin dut negar. Ez dut inoiz zuri min eman izateagatik lasaitasunik hartuko. Damu dut nire fideltasunik eza, miretsirik nago ikusirik zorigaizto honengatik zer egiteko gai bilakatu zaituen maitasunak. Ez nauzu guzti horren duin, eta ez nizuke zain hauei darien odol guztia husturik ere maitasun horrek sortarazi dizun oina-zeen erdia ere ordainduko.

Eta bere hitzak malko jario ugariz amaitu zituen. Negar haiek, bere jardunak, eta erabili zuen doinuak zirrara harrigarria sortarazi zidaten, hainbatekoa non une hartan nire arima barnean eten moduko bat sentitu bainien. —Kontu izan arren, kontu izan errepikatu nion, nire bihotzeko Manon. Ez dut kemenik aski zure xeraren

horren erakutsi biziak nireganatzeko. Ez eta horrelako poz-agerpenetara ohitua. O Jainko errukiorra, ez dizut beste ezer eskatzen. Manonen bihotzaren bermea dut. Zoriona erdiesteko desiratu nahi izan dudan bezalakoa da. Horratx nire zorionaren oinarria eraikirik!

— Bai. Horrelaxe da —hasi zen bera—, nire esku badago behintzat.

Badakit nik neuk ere non aurki nirea.

Bai pozik oheratu nintzela, hitz eder haiek entzun eta gero. Etxola hura munduko erregerik handienaren jauregi iruditu zitzaidan.

Harrez gero Amerika txoko zoragarria begitandu:

— Orléans Berrira etorri beharra dago —esaten nion maiz Manoni—, maitasunaren benetako gozoa dastatu nahi denean. Hemen bai, interesik, jalousiarik gabe, hau da fideltasunez maitatzen dela. Gure herritarrak urre bila datoz. Ez dakite ondo guk askoz ere altxor estimagarriagoak aurkitu ditugula.

Ardura handia hartu genuen gobernadorearen adiskidetasuna lortzen. Bere ontasuna erakutsiz, gu iritsi eta zenbait aste gero gotorlekuan



hutsik geratu zen enplegu apal bat eskaini zidan. Beste munduko gauza ez zelarik ere, zeruaren eskerrona bailitzan onartu nuen. Izan ere inoren bizkar bizitzeko premiarik gabe nire kontura aritzeko aukera ematen zidan. Sehia hartu nuen niretzat eta neskamea Manonentzat. Gure ondare apurra osatze-bidean jarri genuen.

Nire portaera jatorra bazen, Manonena ez zen gutxiago. Gure auzokideen zerbitzu eta on egiten saiatzen ginen. Jarrera hark eta gure gizatasunak kolonia guztiaren konfiantza eta onginahia ekarri ziguten. Aldi laburrean bada, begirune handia eskaini ziguten Gobernadorearen ondorengo lehen pertsonatzat hartzeraino. Gure bizimoduaren xalotasun eta lasaitasunak emeki-emeki erlijioaren kezka oroitarazi zigun. Ez zen Manon egia esan inoiz fedegabeko emakumea izan. Ez eta neroni ere libertino nabarmen horietakoa ohituren lizunkeriarri erlijio gabetasuna eranstea gauza handitzat irizten diotenetakoa alegia. Maitasuna eta gaztetasuna izan ziren gure gaitz guztien iturburu. Esperientziak adinak dakarren heldutasunaren lekua hartzen zuen, eta urteek eragin ohi duten ondorio bera ekarri

zuen. Gure solasaldietan gogoeta zen nagusi, bertutezko maitasunera urreratzen ginelarik poliki-poliki. Ni izan nintzen Manoni aldaketa hura proposatu nion aurrena. Ezagutzen nituen beraren bihotzaren ardatzak. Leial eta berezkoak zituen sentimendu guztiak, beti ere bertutebidean jartzen duten tasunak izaki. Gure zorionak gauza bakar bat falta zuela adierazi nahi izan nion:

— Zeruaren onespina falta zaio —gehitu nuen—, gure arima-bihotzak ez ote dira ederregiak berariaz betebeharra ahantzirik bizi gaitetzen? Onar dezagun Frantzian bizi ginelarik gure maitasuna lege-bidetik onetsi ezina, baina hemen bertan Ameriketara geure buruaren ardurara baino ez dugularik giza maila eta bizierazko arau hala-moduzkoak aintzako hartu beharrik ez dugularik, ezkonduzat jotzen gaituztelarik bestalde, zerk eragozten digu bada benetan izan gaitezen laster, erlijioak agintzen dizkigun zinen bitartez gure maitasuna ederturik gera dadin? Nik ez dizut nire aldetik ezer berririk eskaintzen nire bihotz eta eskuaz landa. Baina gertu nauka-

zu aldarearen aurrean bien berreskaintza egiteko.

Hitz haiek pozarren bereganatu zituela iruditu zitzaidan: —Sinetsiko al didazu mila aldiz pentsamendu berori erabili dudala Ameriketako garentetik? Gogozko izango ez zitzaizunaren zantzak bihotz barreanean zokoratu izan dit desio hori. Ez dut zure emaztea izateko nahikunderik.

— Ai Manon, —erantzun nion orduan—, errege baten emaztea zinatekeen berehala Ahalguztidunak haren koroarekin sortu izan banindu! Ez dezagun atzeratu. Ez dugu jadanik inolako oztoporen beldurrik. Gaur bertan mintzatuko naiz gobernadorearekin, atzipetu egin dudala orain arte aitortuko. Utz diezaiegun amorante arrunt horiei ezkontzaren kate hautsiezinen beldur izaten! Ez lirateke beroien beldur guk bezala maitasun-bide bilakatu izan balituzte! Erabaki hark pozez beterik utzi zuen Manon. Seguru nago ezein gizaseme ondratuk ez zukeela nire xederik baztertuko nire orduko egoera kontutan izanik; esan nahi dut maite-grina menderaezin bati kateaturik, isilaraz ezin nezakeen alhadurak astindurik. Baina ba ote da inor nire arrangurak

zuzengabetzat joko dituenik, zeruaren gogortasunaren kexu banaiz, bere poza lortzeko baino ez nuen asmoa ukatu didalako? Baina zer esaten dut ukatu! Krimena bailitzan zigortu zuen. Ego-narriz hartu ninduen irrirts-lohietan itsu-itsuan nindoanean. Baina bere zigorrik latzenak bertuterantz itzultzen hasi nintzenerako zeuzkan gor-derik. Beldur naiz nahikoa indarrik izango ote dudan inoiz gertatu izan den gertaerarik beldur-garrienaren kontraera amaitu ahal izateko.

Gobernadorearen etxera nindoan Manonekin bat etorri ondoren gure ezkontzaren elizkizuna baimendu zezan eskatzera. Ziur izan ez niokeela hartaz ez hari ez eta inori ere hitz egingo, baldin eta uste izan banu haren kaperauak —hiriko apaiz bakarra garai hartan— bestearen esku har-tzerik gabe mesede hura beteko zidala. Baina beronen isiltasuna segurtatzearen zain egoten ausartzen ez nintzelarik, zabalkiro aritzea eraba-ki nuen.

Gobernadoreak txit onirizten zuen Synnelet izeneko loba bat zuen. Hogeita hamar urtetako mutil mutiri baina era berean oldarkor eta hase-rrekor bat zen. Ezkongai. Manonen edertasunak

txunditurik zeukan heldu ginen egun beretik. Bederatzi-hamar hilabete haietan ikusi ahal izan zuen aldi kontaezinetan hain zitzaion bere maite-sua piztu non barnean hura noiz azalera irrikatzen baitzegoen.

Alabaina bere osabak eta hiri guztiak bezala, ezkondurik geundela sinetsirik zegoenez, Manonen maitasunaren jopu bihurtu zen halako moldez non ezertxo ere kanporatzen uzten ez zuen; are gehiago ardura handia hartu izan zuen behin baino sarriago niri laguntzeko ahaleginetan.

Osabarekin aurkitzen zen gotorlekura iritsi nintzenean. Ez nuen inolako arrazoirik ikusten nire helburua sekretupean gordetzeko.

Horrela bada ez nion nire buruari inolako eragozpenik ipini beraren aurrean guztia argitzeko. Gobernadoreak bere ohizko ontasunaz entzun zidan. Nire bizitzaren alderdi bat kontatu nionean atseginez entzun zuen. Elizkizunera etortzeko erregutu nionean, oso eskuzabal agertu zen festa-ospakizun guztia ordainduko zidala esanez. Pozturik egin nuen alde. Ez zen ordubete ere iragango, kaperaua nire etxera sartzen ikusi nuenean. Ezkontzako gorabeherekin zeto-

rrela pentsatu nuen, baina agur hotz bat luzatu ondoren zera esan zidan, alegia Gobernadore Jaunak ez zuela gure ezkontza onartzen, Manonentzat bestelako helburuak zituela gehituz.

— Bestelako helbururik Manonentzat? —esan nion bihotz-urratu bortitza sentitzen nuelarik—. Eta zeintzuk dira horiek kaperau jauna? Erantzun zidan jakin behar nuela han Gobernadorea genuela jaun eta jabe. Manon Frantziatik koloniara bidalia izan zenez gero hark agintzen zuela berarengan. Ez zuela ordura arte ezer aurrera eramanez ezkonduak uste gintuelako. Baina nik neuk aitortu ondoren ez zela horrela egoki irizten ziola hartaz maitemindurik zegoen Synnelet-imatea. Bortitz jokatu nuen zuhurtasun oro ahazturik. Burua harro, nire etxetik alde egiteko agindu nion kaperauari, zin egiten nuelarik ezein pertsonak ez Gobernadoreak ez Synnelet-ek ez eta hiri guztiko inork ez ziotela nire emazte edo amoranteari —nahi zuten bezala dei zezatela— eskurik aurreratuko.

Berehala adierazi nion Manoni ezagutu berri nuen mezu izugarria. Gure iritziz, Synnelet-ek bere osaba engainatu egin zuen, ni azken honen

etxetik irten eta gero; seguruenik bada, aspaldidanik buruan zerabilen egitasmoaren ondorioa zen. Nagusi ziren han. Gu ostera, Orléans Berrian itsas zabalaren erdian bagina bezala, mundutik lurralde izugarri handiek banatuko bagintuzte bezala alegia, aurkitzen ginen. Nora egin ihes, eremu ezezagun hartan, guztia mortu, piztia beldurgarri edo jende basatiz beteak zein baino zein erasokorrago?

Hirian ondo ikusia nengoen arren, nolaz ipiniko nituen nire alde, hain arazo larri bati aurre egiteko bezain gotor? Dirua behar izango nukeen, eta pobre nintzen. Gainera nork berma matxinada baten arrakasta? Eta zer esan patua okertzen bazitzaigun? Ez al zen gure zoritxarra aldaezina bilakatuko? Burutapen guzti haiek nerabiltzan buruan. Haietariko zenbaiten partaide egiten nuen Manon, beraren erantzunik entzun gabe. Erabaki bat hartu berehala bazertu eta beste bati ekiten nion. Bakar hizketan aritzen nintzelarik, ozenki erantzuten nien nire pentsamenduei. Azkenerako, inoiz sentitu gabeko aztorapenak inarrosten ninduen. Manonen begiak tinko nituen nireetan. Nire ezinegona

nabariturik arriskuaren izugarria antzematen zuen; eta niregatik beregatik baino arduratzena-go, izaki gurgarri hark ez zuen ahorik ere irekitzen bere beldurrik kanporatzeko. Gogoeta kontaezinen ondotik, gobernadorearengana joatea erabaki nuen. Ohorezko argudioak azaltzen ahalaginduko nintzen.

Nire begirunea eta beraren onginahia aipatuz hunkitu nahi nuen.

Manonek ez zuen joan nenkion nahi:

— Heriotzaren bila zoaz, —esaten zidan begiak negarretan—, hil eginen zaituzte. Ez zaitut berriro ikusiko. Zure aurretik hil nahi dut Ahalagin handiak burutu behar izan nituen irteteko nuen premiaz konbentzitzeko eta bera etxean gera zedin eskatuz. Aurki nintzela berriro etxean agindu nion. Hark ez zekien nik ere ez noski, bere bizkar hain zuzen zeruaren haserrea eta gure etsaien amorru guztia eroriko zenik. Gotorlekurantz abiatu nintzen. Gobernadorea bere kaperauarekin zegoen. Eta nola makurtu nintzen gizon hura hunkitzeko! Ahalkeak birrinduko nindukeen beste zernahi auzitarako horrela makurtu izan banintz! Ez nuen edozein gizakirengan



zirrara sortuko lukeen arrazoirik ttipiena ere baztertu. Basapizti doilor eta erasokor batengan izan ezik beste edonorengan eraginik sortuko zukeen. Baina nire arrangura guztiei ehun aldiz errepikatu zituen bi ihardespen besterik ez zizkien kontrajarri: Manon bere menpean zegoela eta jadanik hitza emanda zeukala bere lobari. Erabakirik neukan aurretik nire burua ez aztoratzea, horregatik esan nion nire heriotza desiratzeko baino lagunagoa irizten nion berari. Zeren nahiago nuela hil, nire maitalea galtzea baino.

Agure tematsu harengandik ez nezakeela deus espero pentsatuz atera nintzen. Izan ere zer ez zukeen gizon hark bere lobarengatik egingo! Hala ere azkenera arte zuhurtzia gordetzearen aldeko nintzen, erabakirik baineukan zuzentasunik ezak jarraitzen bazuen, inoiz maitasunak eman izan duen eszenarik odoltsu eta ikaragarrienetakoa Amerikako lurralde hari eskaintzeko. Banentorren bada, buruan asmo hura behin eta berriz nerabilela, eta hara non nire hondamendia bizkortu nahi zuen adu gaiztoak Synnelet-en aurrez aurre jarri ninduen. Nire pentsamendue-

takoren bat irakurri izan balu bezala urreratu egin zitzaidan. Esana dut ausarta zela.

— Nire bila al zabilta? —galdetu zidan—. Jakin dut nire egitasmoak iraindu egiten zaituztela. Horregatik argi ikusten dut elkarren arteko borrokak ebatzi beharko duela gure auzi han. Ikus dezagun bada nork kentzen dion besteari lekua.

Arrazoi zuela ihardetsi nion. Nire heriotzak baino ez zezakeela gure lehia garbitu.

Ehunen bat urrats aldendu ginen hiritik. Ezpatak gurutza erazi genituen. Zauritu eta desarmatu ia une berean egin nuen. Amorraturik bere porrotagatik errefusatu egin zuen biziaren mesedea eskatzea eta bidenabar Manonen eskuari uko egitea. Eskubidea nuen agian bata zein besteari hantxe bertan agur egin ziezaien nire ezpata bide. Baina leinu garbiko semearen odola beti da ageri. Ezpata oinetara jaurtiki eta esan nion: —Has gaitezen berriro, baina ez ahantz oraingoan ez duzula erdibiderik. Oldar ikaragarritz eraso ninduen. Aitortu behar dut ez nintzela arma kontutan oso trebea; Pariseko hiru hilabetetako ikasketa zen nire oinarri bakarra.

Baina maitasuna nuen ezpata-gidari. Halako batean Synnelet-ek besoa zeharkatu zidan baina nik orduan kolpe hain gogorra eman nion, zerraldo erori zela nire omen aurrera.

Hil ala biziko borroka baten ondotik garaipenak ematen duen poza izan arren, berehala heriotza hark ekar ziezadakeen ondorioez egin nuen gogoeta. Ez nezakeen ez errukirik ez eta zigor atzerapenik espero. Ezaguturik nik ezagutzen nuen bezala Gobernadorearen bere lobarrenganako xera, ziur nengoen nire heriotza ez zela ordubete berandutuko, bestearen heriotza jakin erazten zitzaion une beretik. Beldur hura ezin larriago izanik ere ez zen nire arduraren arrazoirik nagusiena. Manon nuen nire kezken ardatz. Zein arriskutan uzten nuen, bere galdu beharra... gauza guzti haiek begiak lausotzeraino arduratzen ninduten, zein lekutan aurkitzen nintzen ezagutzea ere eragozten zidatelarik.

Synnelet-en heriotzari bekaitz izan nion; izan ere ez al zitekeen heriotza azkarra nire oinazeen irtenbide bakarra? Alabaina burutapen hark arin arrazoitzera eraman ninduen eta erabaki bat hartzeko gauza bilakatu: «Baina nola? Hil nahi

dut nire oinazea amai dadin? Baina ba ote nire maitearen galera baino izutzenago egiten nauen gauzarik? Jasan ditzagun ankerkeriarik latzenak maiteari sorosteko. Etor bekit heriotza haiek ezertarako balio izango ez dutenean!»

Hiri-bideari ekin nion. Etxera sartu eta Manon izuak eta kezkak erdi-hilik aurkitu nuen. Biztu egin zen ni ikustean. Ezin nion gertatu berri zitzaidan ezbehar ikaragarria isildu. Synnelet-en heriotza eta nire zauriaren kontaeran konortea galdu zuen nire besoetan. Ordu laurden baino gehiago eman nuen bere onera etor zedin laguntzen. Neroni ere erdi-hilik nengoen. Ez nuen gu biontzat segurtasun argi izpirik ikusten. Lasaituz joan zenean honela esan nion: —Zer egingo dugu Manon? Ezinbestekoa da nik alde egitea. Nahi al duzu bertan jarraitu? Bai, zaude hemen. Zoriontsu izan zaitezke oraindik. Ni berriz banoa zugandik urrun. Basatien edo basapiztien erpeen artean bizia galtzera.

Makal sentitzen bazen ere zutitu egin zen eskutik hartu eta aterantz eramanez ninduen: —Egin dezagun ihes elkarrekin —esan zidan—, segundorik ere galdu gabe. Agian aurkitua dute

jadanik Synnelet-en gorpua eta ia ez dugu denborarik izango urruntzeko.

— Baina Manon bihotzekoa esadazu, norantz abia gaitezke —erantzun nion erabat eroturik—. Ikusten al duzu aterabiderik? Ez ote litzateke hobe zu hemen bertan bizitzen saia bazintez, eta nik ostera nire borondatez Gobernadorearengana jo baneza?

Proposamen hark oraindik ere ihes egiteko irrika handiagoa sortu zion. Jarraitu behar izan nion. Burua argi izan nuen irteeran, gelan nituen zenbait pattar botila hartu eta patriketan sarnitzakeen jangaiak gogoratzeko. Ondoko gelan zeuden gure morroiei berriz arratsaldeko osteratxoa egitera gindoazela esan genien. Gero Manonen makaltasunak utziko zigukeen baino azkarrago urrutiratu ginen.

Nora jo oraindik erabaki gabe banuen ere, nire esperantzak bi bide eskaintzen zizkidan, beraiek gabe heriotza nahiago izango nuelarik Manoni gerta zekiokkeenaren zalantza izatea baino. Ameriketako generaman hamar hilabete hartan aski ezagutzen nuen lurralde hura eta banekien jakin nolaz hezten zituzten basatiak.

Haiengana joan gintezkeen gure heriotza seguririk itzur eginez. Beraien hizkuntzaren zenbait hitz bai eta ohiturarik ere ikasteko aukera izan nuen beraiengana joateko abagunea izan nuen. Aterabide hits harekin batera, banuen beste bat eta zen hain zuzen ingeles aldetik zetorkidana. Hauek guk bezala, mundu berriaren alderdi haietan badute ezarlekurik. Baina urruntasunak izutu egiten ninduen. Izan ere haien kolonietaraino heltzeko, zenbait egunez landa zabal eta hutsak, mendi malkartsuak zeharkatu behar genituen hain garaiak ezen, gizonik saiatu eta gogorrenei ere zail gertatuko baitzitzaie gaintzea. Edozein modutan banuen oraindik aldarte onik irtenbide haiei etekinik aterako geniola pentsatzeko: basatiak gidari bezala, eta ingelesak beren egoitzetan hartzen gintuztelarik.

Manonen adoreak bere gorputzari zutik eusten lagundu zion aldi egin genuen aurrera, hots, pare bat lekua inguru, zeren maitale alde-  
ra ezin hark ez zuen ordura arte gelditu nahi izan. Azkenean akiturik oso, ezin zuela inola ere aitzina jarraitu aitortu zidan.

Gaua sartua zen jadanik. Lautada zabal baten erdian zuhaitzik eta babeslekurik gabe jesarri ginen. Bere lehen ardura nire zauriaren benda aldatzea izan zen. Irten aurretik ere berak jarri zidan sendabidea. Nik ostera ardura haiek uzteko errepikatzen nion.

Alperrik. Nire burua lasai eta arriskurik gabe ikusten nuela sinestearen satisfazioa ukatu izan banio bere iraupenean pentsatu ordez azken herio-gezia sartuko niokeen. Une haietan amore eman nien bere desioei. Haren ardurak isil eta ahalke jaso nituen.

Baina bere samur-ferekak amaitu zituenean zeinen gogotsu ekin nion nireari! Nire arropa guztiak erantsirik lurraren gainean zabaldu nituen bertan etzanda hura bigunago senti zezan. Bere gogoaren kontra burura etorri zitzaizkidan era guztietako erosotasunak erabili nituen. Suzko laztanez berotu nituen bere eskuak eta zizpuruz gozatuz, gau osoa igaro nuen bera zaintzen, Zeruari erregutzen niolarik loaldi ezti eta baketsua eman ziezaion.

O Jainko nirea! Bai benetakoak eta biziak zirela nire arrenak! Baina zein arrazoi nagusik

bultzatu zaitu beroiek ez asetzeraz? Barka iezada-zu hilduratzen nauen kontaera honi bukaera ematen badiot laburki. Antzekorik ezagutu izan ez duen gertakaria kontatzen ari natzaizu. Bizi guztia hura negartzen pasatuko dut. Eta etengabe nire oroimenean badaramat ere, irudi luke kontatzeari ekiten diodan bakoitzean nire arimak atzerantz egiten duela izu-ikaraz.

Gauaren zenbait ordu baketsu joan ziren. Nire maite adoragarria lotan uste nuen, horregatik hasperenik txipiena ere ez nintzen kanporatzen ausartzen, ametsak iratzarriko ote nizkion beldurrez.

Baina egunsentia iristean ohartu nintzen, bere eskuak ukituz, hotzak, dardara betean zituela. Nire golkora urreratu nituen berotzeko asmoz. Mugimendu hura sentitu zuelarik, ahalegindu egin zen nireei eusten, ahots indarge batez bereak egin zuela esaten zidalarik. Hasiera batean hitz haiek ezbeharrean erabili ohi den ohizko hizkeratzat jo nituen. Horregatik maite-erakutsi goxoz erantzun nion. Baina haren arnasestu usuak, nire itaunekiko isiltasunak, bai eta bere eskuen nireak estutu beharrak Manon nahi-



gabetuaren azkena hurbil zegoela ulertarazi zidaten. Ez eska otoi, nire orduko sentipenak adieraz eta beraren azken eleak berresan diezazkizudan.

Joan egin zitzaidan. Baina bere azken hatsetan maite-froga bikaina eskaini zidan. Horra gertakari negargarri eta latz haren gainean adierazteko gai naizen guztia.

Ez zen nire arima haren lorratzetik abiatu. Ez zitzaion nonbait Zeruari aski zigortu ninduenik iruditu. Haren nahia harrez gero, bizitza herbal eta hutsala paira dezadan izan da. Eta uko egiten diot nire borondate osoz inoiz hoberik eramateari.

Hogeita lau ordu baino gehiago igaro nuen nire ahoa Manon maitearen masail eta eskuei itsatsirik nuela. Hantxe bertan hil nahi nuen. Baina bigarren eguna argitu orduko, ohartu nintzen nire gogartean Manonen gorpua ni hilez gero, basabereen bazka eta sarraski bilakatuko zela. Ehorztea erabaki nuen bada, gero ni beraren hilobi gainean heriotzaren zain egongo nintzelarik. Barauak eta arrangurak sortarazten zidaten makaltasunak nire azkenetan nengoela

sinetsarazi zidaten, zutik irauteko ere ahalegin izugarriak egin behar izan baintuen. Aldean neuzkan edariak behar adina kemen eskaini zidaten bete behar nuen eginkizun tristea burutzeko. Lurrean zuloa egitea ez zitzaidan nekeza gertatu, hondarra nagusi baitzen eremu hartan. Ezpata apurtu egin nuen aitzurtzeko, baina eskuz hobeto baliatzen nintzen. Hobi zabala atera zitzaidan. Hantxe lurperatu nuen nire bihotzaren idoloa. Aurretik, arreta handiz nire soineko guztiez bildu egin nuen hondarrak uki ez zezan. Ordurako mila aldiz laztandua nuen maitasun beteenaren sukarrak. Bere ondoan eseririk begira aritu nintzaion. Ez nuen adorerik hilobia estaltzeko. Baina indarge sentitzen nintzen, beldurrez halaber, ez ote nintzen betebeharrak hura amaitzeko gauza izango. Horregatik lur haren errailetan hark bere gainean inoiz eraman izan duen gizakirik osoena eta jatorrena ehortzi nuen betiko. Une hartan hilobi gainean etzan nintzen aurpegia hondarrera itsatsirik. Eta begiak hertsirik inoiz gehiago ez zabaltzeko asmotan, Zeruari errukia eskatuz heriotzaren zain geratu nintzen. Sinesgaitz gerta dakizuke behar bada, baina

aitortu behar dizut eginkizun hits hartan ez zela nire begietatik malko-xortarik isuri ez eta ahotik zizpururik jaulki. Nire konsternazio sakon hark eta hiltzeko hartua nuen erabaki trinkoak etsipen eta oinaze agerpen edozelakori eten noten bidea. Gauzak horrela ez nuen hilobi gainean luzaro iraun egoera hartan. Laster indar apurrak agortu ondoren, konortea galdu nuen.

Entzun duzun guztia entzun ondoren, nire narrazioaren ebazpenak garrantzi gutxiago du. Ez ezazu bada arreta gehiegirik har datorrena entzuten. Synnelet hirira eraman zutenean beraren zauriak kontu handiz aztertu eta gero, ohar-tu ziren ez zegoela hilik, aitzitik zauri larririk ere ez zuela. Bere osaban aitortu zion nola gertatu zen bion arteko liskarra. Bihotz zabalez jokatu zuen, nirea ere nola mamitu zen berehala adierazi baitzion. Nire bila bidali zuten jendea. Eta Manon eta biok falta ginela oharturik, ihesi atereak ginela sumatu zuten. Beranduegi zuten baina egun hartan nire bila jotzeko. Biharamunean eta jarraiko egunean gure arrastoen bila ibili ondoren, Manonen hilobi gainean aurkitu ninduten bizi itxurarik gabe. Egoera hartan ia

biluzik eta zauriari odola zeriola ikusi nindutenek sinetsirik gelditu ziren lapurtua eta eraila izan nintzela. Hirirako bidean nire garraiatzaileen mugimenduak nire onera ekarri ninduen. Begiak ireki ahala egotzi nituen zizpuru eta aienakek nire burua bizien artean ikusten nuelarik, ohartarazi zituzten oraindik ere garaiz zeudela ni sendatzeko.

Kementsu ekin zioten nire zoritxarrerako. Ziega estu batean hertsu nindutelarik, nire kontrako auzia irekia izan zen. Eta nola Manon agertzen ez zen, bera amorru eta jalusia-bide hiltzeagatik salatu ninduten. Urratsik urrats nire abentura errukigarria azaldu nien. Nahiz eta nire kontraerak samin handia sortarazi zion, nire barkamena eskatzeko bihotz naroa erakutsi zuen Synnelet-ek.

Eta lortu egin zuen. Hain nintzen makal sentitzen, kartzelatik ohera eramana izan nintzela bertan hiru hilabetez eritasun gogorak astindu ninduelarik. Ez nuen haatik nire biziarekiko gorrotoa atertzen. Deika aritzen nintzaion etengabe heriotzari sendagai guztiak aldi luzez baztertu nituelarik. Baina Zeruak honen gogor zigor-

tu ninduen arren, asmo zuen nire nahigabe eta zehapenei onbidea aurki niezaien. Bere argiak eskaini zizkidan nire jatorri eta hezierari zegozkion ideiak nire egin nitzan berriro.

Nire arima lasaitasuna ezagutuz joan zen emeki-emeki, aldaketa hark sendabidean jarri ninduelarik laster. Ohorezko jokabideari su eta gar atxiki nintzaion, nire enplegu apalean jarraitzen nuelarik, Frantziatik urtean behin Ameriketako lurralde hartara hurbiltzen diren itsasontzien zain. Erabakirik neukan Frantziara itzuliko nintzela berton bizitza zuhur eta jatorraz nire jarrerak sortu eskandalua nolabait kitatzeko. Synnelet-ek berriz, nire maitearen gorpua duintasunezko leku batetan ehorzteko ardura hartu zuen.

Sei aste ere ez ziren iraungiko suspertu nintzenetik, eta hara non egun batez itsas ertzean paseatzen ari nintzela merkatalontzi bat begiztatu nuen Orléans Berrira zetorrela. Ontzi-gizonen lehorreratzeari erreparatu nion. Ezuste izugarria hartu nuen hirirantz zihoazenen artean Tiberge begiztatu nuenean. Adiskide min hark urrutitik ezagutu ninduen, tristurak nire begitartean alda-

keta franko eraginik bazuen ere. Bere bidaiaren xede lehena eta bakarra ni ikusi eta Frantziarantz itzul nendin konbentzitzea zela. Havre-tik idatzi nion gutuna jaso zuela esan zidan bai eta bera propio abiatu zela eskatzen nion laguntza eramatera. jarraitu zuen esaten nire irteerak arras penatu zuela. Berehala irtengo zatekeela nire gibel itsasoratzeko ontzirik gertatu izan balitz. Hara eta hona kairik kai zenbait hilabetez ibili ondoren, azkenean St. Malo-n haietariko bat aurkitu zuela Martinikarantz aingura jasotzeko prest. Bertan ontziratuta omen zen, gero handik Orléans Berrirantz pasabide erraza egiteko esperantzarekin. Baina St. Malotarren itsasontzia espainiar kortsarioek harrapatu zutelarik beren irletariko batetara gidatua izan zela, alabaina berak amarruz ihes egitea lortu zuelarik beste hainbat gorabeheraren ondotik ekarri berri zuen bapore txiki hartan ontziratuta ondoren nireganaino zori handiz iritsi zela.

Ezin adiskide hain bihotz handi eta iraunkorrekoari nire eskerrik beroena agertu gabe egon. Nire etxera eraman nuen. Neukan guztiaren jabe egin nuen. Frantziatik alde egin eta nire geroko

bilakaera kontatu nion. Eta nigandik ezin espero zezakeen poza eman ez, esan nion berak aspaldi nire bihotzean erein zituen bertute-haziak fruiturik ematen hasiak zirela. Orduan berak aitortu zidan bermatasun bikain hark bere bidaiako nekaldi guztiak ahortzi erazten zizkiola.

Bi hilabete igaro genuen elkarrekin Orléans Berrian Frantziatik zetozen ontzien etorrerari itxaroten. Eta itsasoratu ginelarik, duela hamabost egun lehorreratu ginen Havre-de-Grâce-n. Iritsi bezain laster, familiari idatzi nion. Nire anaiarik zaharrenaren erantzunak aitaren heriotzaren berri tristea ezagutarazi zidan.

Zeinen ikara —eta arrazoi handiz —ematen didan pentsatzeak ez ote duen nire berarenganako hutsuneak gertaera hits hura aitzinatu.

Haizea lagun genuelarik Calais-erantz abiatzeko, azkar ontziratatu nintzen, gero aipatu hiri horretatik zenbait legoatarara heltzeko, nire gurasoen ezagun zen leinu handiko gizaseme baten gana, non anaiak idatzi didanez bertan nire zain izango baitut.